

eman ta zabalazazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



UPV/EHUKO IKASLEEN II. PARTAIDETZA PLANA

www.ehu.eus

Unibertsitateak jarduera-sorta zabala garatzen du, etengabe aldatzen ari da eta bere baitan lan egiten duten kolektibo guztien itzaropenei erantzun behar die. Talde garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, ikaslegoa da. Paradoxikoki, eta garrantzi hori gorabehera, ikasleen parte-hartzea, unibertsitate-eredu tradizionalenaren barruan, unibertsitateko gainerako estamentuena baino txikiagoa izan ohi da.

Ikasleen I. Partaidetza Planak dinamika hori hautsi nahi izan zuen bere garaian, eta orain, II. Planarekin, ikuspegi hori sendotu nahi dugu, eta ikasleek euskal unibertsitate publikoaren jarduera guztietan duten protagonismoa indartu.

Orain aurkezten ari garen dokumentuak lau multzo handi ditu: aurrekariak, metodologia, diagnostikoa eta, batez ere, proposamenak. Bertan, sei esku-hartze eremu ezartzen dira, eta, oro har, 110 neurri espezifiko, hurrengo urteetan ezarri beharrekoak. Besteak beste, partaidetza-bideak hobetu nahi ditugu, partaidetza-eskaintza indartu eta egokitu, eta partaidetza aitortzeko kredituetatik harago doazen bideak aztertu. Era berean, ebaluazio- eta jarraipen-irizpideak ezartzen dira, adierazle kuantitatiboekin.

Onartu dugun planak, aurreko planean aurreikusitako ekintzak indartzeaz gain, eredu berri bateranzko trantsizio-logika hartzen du bere gain: ikasleak erakundearen parte hartzean oinarritutako eredu batetik (egitura eta organo instituzionalak) arlo guztietako lankidetza-eredu integral batera igarotzea. Ikaslegoak

erabat protagonista izan behar du unibertsitateko bizitzako arlo guztietan, eta plan honek koherentea izan nahi du uste horrekin.

Nire aldetik, ekimen hau koordinatu duten eta prozesuan zehar ekarpenak egin dituzten pertsona guztien ahalegina zoriondu eta eskertu besterik ezin dut egin. Ziur nago hamaika aukera berri eskeintzen dituen plan berri honek, unibertsitate irekiagoa, integratzaileagoa eta unibertsitate-komunitatea osatzen duten kolektibo guztien hausnarketei eta eskaerei arreta handiagoa eskainiko dien unibertsitate bat lortzen lagunduko digula.

EVA FERREIRA
UPV/EHUko errektorea

AURKIBIDEA

01.	SARRERA	4—7
02.	IKASLEEN PARTAIDETZAREN TESTUINGURUA : LEGE ETA KONTZEPTU ESPARRUA	8—26
03.	AURREKARIAK: UPV/EHUKO IKASLEEN I. PARTAIDETZA PLANA	27—35
04.	IKASLEEN II. PARTAIDETZA PLANA EGITEKO PROIEKTUAREN METODOLOGIA	36—44
05.	DIAGNOSTIKOA: UPV/EHUKO IKASLEEN PARTAIDETZAREN ERREALITATEA	45—65
06.	PROPOSAMENAK. UPV/EHUN IKASLEEN PARTAIDETZA HOBETZEA	66—96
07.	ONDORIOAK	97—99
08.	ERANSKINA	100—104

01. SARRERA



SARRERA

UPV/EHU, unibertsitate publikoa den aldetik, konprometituta dago ikasleen garapen pertsonalarekin, prestakuntza osoarekin, gizarteratzearekin eta laneratzearekin. Haren Estatutuen arabera, unibertsitatearentzat oso garrantzitsua da ikasleek parte hartzea unibertsitate bizitzan eta ikasleen elkarteetan. Hori horrela, UPV/EHUK konpromisoa hartzen du bultzatzeko partaidetza politiko, kultural eta sozial hobe bat ziurtatuko dituzten baldintzak, bai eta unibertsitate proiektu bat ere.

Bat etorri konpromiso horrekin eta ikasleen partaidetza arduratsua eta aktiboa sustatzeko, UPV/EHUko Ikasleen arloko Errektoreordetzak UPV/EHUko ikasleen I. Partaidetza Plana egin zuen 2012an, elkarlanean unibertsitateko kideekin eta agenteekin. Plan hori anbizio handikoa eta aitzindaria izan zen, eta bost arlo eta 75 ekintza bildu zituen. Gainera, parte hartzeko aukera berriak eskaintzeaz gain, lehendik zeudenak sendotu zituen.

Hamabi urte igaro direnean, UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak

lanean jarraitzen du, proposamenak diagnostikatu eta identifikatzeko prozesu batean, UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana lantzeko helburuaz. Mandatu instituzional horren ondorioz eginiko prozesuan, Parte Hartuz Ikertalde finkatua arduratu da alderdi teknikoaz, prozesuaren diseinu eta exekuzio metodologikoaz, eta haren ondorioak bildu ditugu dokumentu honetan.

UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana ataletan antolatuta dago.



01. Sarrera

Lehenik eta behin, azaltzen da zer lege esparrutan gauzatzen den partaidetza Europan, Espainiako Estatuan eta UPV/EHUn. Zehazki, aipatzen dira, alde batetik, 2023an onarturiko Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa; bestetik, UPV/EHUn Estatutuak eta Ikasleen Arautegia. Atala amaitzeko, hurbilketa bat egingo dugu partaidetzaren kontzeptura.

Bigarrenik, ikasleen partaidetzaren gakoak erreparatzen dira, UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Plana onartzeak irekitako aukeretatik abiatuta. Ebaluazio adierazlerik ez dagoenez, ibilbide deskriptibo bat egiten da, eta mugarri batzuk aipatzen dira aurrez zehazturiko 5 jardun arloetan. Hirugarren atalak jorratzen ditu ikasleek UPV/EHUn duten partaidetzaren diagnostikoan erabilitako metodologia eta hari loturiko proposamenak. Besteak beste deskribatzen dira unibertsitateko sektore guztien partaidetzaz erabili diren tresna kuantitatiboak, kualitatiboak eta parte-hartzaileak.

Laugarren atalaren ardatza da partaidetzaren diagnostikoa. Oinarri harturik 1.600 ikaslek eta 670 irakaslek eta TEKAZEL langilek baino gehiagok erantzun duten inkesta bat, bai eta eztabaida taldeak eta elkarrizketa sakonak ere, zehazten dugu

proposamen operatiboak aintzat hartu beharko lukeen ardatz estrategiko sail bat. Bosgarren atalak xehatzen ditu UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana egiteko erabili diren proposamenak, tresna kuantitatibo, kualitatibo eta parte-hartzaileetatik abiatuta. Proposamen horiek hainbat ekintzatan gauzatzen dira, 5 jardun arloetan. Atala amaitzen da planaren ebaluazioari eta jarraipenari buruzko epigrafe batekin eta ondorio labur batzuekin.

Azkenerranskin batean, jarraipen-adierazleak jasotzen dira, ikasleen parte-hartzearen bost dimentsioen arabera sailkatuta.

A high-angle photograph of two women sitting at a wooden table in a meeting room. The woman on the left, seen from behind, is wearing a white shirt and a dark blue vest, and is looking at a magazine. The woman on the right, with curly hair, is wearing a white lab coat and dark trousers, and is smiling while holding an apple. On the table in front of the woman on the left are several papers, a pair of glasses, and a small black board with yellow sticky notes. Another apple is on the table. The room has a green carpet and other wooden chairs and tables are visible in the background.

02. IKASLEEN PARTAIDETZAREN TESTUINGURUA

LEGE ETA KONTZEPTU ESPARRUA

Atal honek, araudia kokatzeaz gain, ikasleen partaidetza kontzeptualizatzen du. Hasteko, aurkeztuko dugu partaidetzaren kontzeptualizazioa Europako Goi Mailako Hezkuntza Sistemaren Ondoren, xehetasunez aipatuko dugu 2023ko Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoarekin burutu zen lege garapena. Segidan, aztergai izango dugu ikasleen partaidetza UPV/EHU-n, oinarri hartuta Ikasleen Estatutua eta Arautegia. Amaitzeko, aipatuko ditugu 3 eskubide zehatz, gure ustez partaidetza baldintzatzen dutenak: diskriminatua ez izateko eskubidea, inklusiorako eskubidea eta ikasleek ikaskuntzan parte hartzeko eskubidea.

Bigarren zatian, kontzeptualki kokatuko dugu partaidetza. Partaidetza motak ez ezik, egungo testuinguruaren erronkak eta aukerak jorratzen dira.

02.1 Ikasleak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan

UNESCOren 1998ko Mundu Adierazpenean jada agintariei eskatu zitzairen beren kezken erdigunean kokatzeko ikasleak eta haien beharrak. *“Une hartan eskatzen zen ikasleak partaidetzat eta protagonistatzat hartzeko goi-mailako irakaskuntza sistema berritzeko prozesuan”* (Michavila eta Parejo, 2008:86). Horrela, milurtekoaren hasieran funtsezko mugarri izan zen 2001eko Pragako Adierazpena, bultzada eman ziolako Boloniako prozesuari eta haren bidez ministroek dei egin zitelako ikasleei GHEEren eraikuntzan parte hartzera.

Beren errepasso historikoan, Palma *et al.-ek* (2023) nabarmentzen dute ikasleek zeregin garrantzitsua izan dutela goi-mailako hezkuntzaren egungo eredia eratzeko prozesuan. *Europako Ikasleen* Batasunaren garrantzia azpimarratzeaz gain, gogoratzen dute erakunde hori izan dela Boloniako prozesuaren Jarraipen Batzordeko kidea. 2001az geroztik, arduradun instituzionalek hainbat goi-bileratan eginiko adierazpenek nabarmendu dute ikasleen garrantzia unibertsitate sistemaren erreforman. 2009ko Ministroen Konferentzian adierazi zen erreforma horrek ikasleen partaidetza aktiboa behar zuela. 2012koan, berretsi egin zen garrantzitsua zela ikasleak eta langileak maila guztietako gobernu organoetan inplikatzeko jarraitzea.

Hala ere, *Europako Ikasleen Batasunak* ñabardura bat egin nahi izan zuen Bologna with Student Eyes izeneko dokumentuan: *“Estatu mailan nahiz maila instituzionalean, oro har esan daiteke ikasleak ez direla bazkide osotzat hartzen, ez praktikan ez teorian”* (ESU, 2020:39). De facto, txosten horretan Europako ikasleen sindikatuak salatzen du gero eta garrantzi txikiagoa ematen zaiola ikasleen partaidetzari GHEEren integrazio prozesuan aurrera egin ahala. Horregatik, Europako Ikasleen Batasunaren ustez, *“funtsezkoa da elkargotasun printzipioa berrestea goranzko ikuspegi bidez; esaterako, ikasleen ahalduz eta askatasun akademikoa nahiz*

ordezkaritza autonomia babestea helburu duten ekintza instituzionaleko estrategien bitartez” (ibid, 4).

Gauzak horrela, hasierako asmoak gorabehera, ikaskuntzari loturiko alderdietara mugatu da ikasleek Europako goi-mailako hezkuntzaren erreforma prozesuan duten zeregina, sistema osoaren kudeaketaren, definizioaren eta orientazioaren kaltetan. Ez hori bakarrik: unibertsitateak kanpoko kudeaketaren eta kudeaketa gerentzialaren alde eginiko apustuak, merkatuari loturikoak, are gehiago murriztu du unibertsitateko kideen eta, jakina, ikasleen partaidetza. Kudeaketa publiko berrian oinarrituriko esternalizazio prozesu horrek, Espainiako lege esparrutik kanpo, indartu egin du kalitatean oinarrituriko partaidetzarako joera. Beraz, irakaskuntza metodoen eta programen ebaluazioaren eta berritzearen inguruan ardatz du nagusiki ikasleen partaidetzaren zehaztasun handiagoa Europako arautegian.

Ikuspegi horretan oinarritzen dira ***Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren kalitatea ziurtatzeko irizpideak eta ildoak (ESG)***. Dokumentu hori onartu zen 2015eko maiatzaren 14an eta 15ean Erevanen (Armenia) egin zen Ministroen Konferentzian, eta Europa mailako gogoeta eta kontsulta prozesu baten emaitza izan zen. Prozesu hori 2010ean hasi zen, 2005ean zehazturiko lehen irizpideak berrikusteko, *European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA)* erakundeak prestatuturiko proposamen baten ondoren.

Abiapuntu gisa, kalitatea hartzen da nagusiki irakasleen, ikasleen eta ikaskuntza instituzionaleko ingurunearen arteko elkarreraginaren emaitzat. Aldi berean, uste da kalitatea ziurtatzeko printzipioetako bat dela kontuan hartzea ikasleen beharrak eta itxaropenak, bai eta *“gainerako interes taldeenak eta gizartearenak”* ere (Aneca, 2015:10).

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

Ikaslea subjektu aktibotzat eta goi-mailako hezkuntzaren kalitatearen lehentasunezko helburutzat hartuz, dokumentuan jasotako irizpideetako batzuek lotura zuzena dute ikasleen partaidetzarekin.


Zehazki, 1.2 printzipioaren arabera (prestakuntza programen diseinuari eta onarpenari buruzkoa), *"ikasketa programak dira goi-mailako hezkuntzako erakundeen irakats misioaren muina"*. Esplizituki identifikatzen da kalitate irizpide gisa *"programak ikasleen parte-hartzearekin diseinatzea"* (ibid, 13). Ideia horretan sakonduz, irakaskuntzari, ikaskuntzari eta ebaluazioari buruzko 1.3 printzipioak ekintza guztien xedetzat hartzen du *"ikasleengan zentratuta egotea"*. *"Ikasleengan zentratu irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburuak dira ikasleen motibazioa, auto-gogoeta eta, hitzez hitz, "ikaskuntza prozesuan parte hartzea"*. Aurrerago ikusiko dugunez, elementu hori kontuan hartuko da Estatuko erreformatan, Espainiako irakasleen kidegoak akreditatzeko irizpideen definizioan, UPV/EHUren ikaskuntza eremuan eta UPV/EHUko irakasleen irakats kalitatea ebaluatzeko tresnetan.

Gainera, apustu egiten da sistemak *"ikasleen hexei erantzuteko prozedura egokiak"* izatearen alde (ibid, 15). Era berean, 1.8 irizpideak kalitate irizpidetzat hartzen du informazioaren kudeaketa, eta bereziki nabarmentzen du ikasleak unibertsitate programekin gogobetetzearen garrantzia. Azkenik, honako hau dio 2.4 irizpideak, goi-mailako hezkuntzaren kanpo ebaluazioari buruzkoak: *"Kalitatea bermatzeko kanpo prozesuak egin behar dira pare ebaluatzaileen taldeen bidez, ikasle bat edo gehiago barne hartuko dituztenak"* (ibid, 23).

Edonola ere, Europako Ikasleen Batasunak (2020) ikuspegi guztiz kritikoa plazaratuko du irizpide horiek betetzeari dagokionez. Bologna with Student Eyes dokumentuan adierazten duen bezala, informaziorik

eza, partaidetza tratatzea, baliorik ez ematea edo kide izatearen sentimendurik eza dira kalitatea ziurtatzeko prozesuetan ikasleen inplikazioa zailtzen duten faktoreetako batzuk. Aurrerago ikusiko dugu nola agertzen diren faktore horietako asko UPV/EHU ikasleek duten partaidetzari buruzko diagnostikoan.

Grafikoa: Ikasleak kalitate prozesuetan inplikatze oztipoak



Iturria: Europako Ikasleen Batasuna (2020)

02.2. Ikasleak Espainiako arau esparruan

Espainiakogoi-mailako hezkuntza sisteman aldaketak eragin dituzte unibertsitatei buruzko lege berri batek (2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemari buruzkoa) eta unibertsitate bizikidetzari buruzko legearen onarpenak (3/2022 Legea, otsailaren 24koa). Estatuko arau egitura osotik, soilik gelditzen da indarrean 2010eko abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretu bidez onarturiko Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua.

02.2.1 Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa

Aurreko lege esparruarekin alderatuta, ikasleek garrantzi handiagoa dute 2023an onarturiko Unibertsitate Sistemaren Lege berrian.

Hitzaurreak legearen asmoen berri ematen du. Argi eta garbi dio: *"Ikasleek, edozein dela ere haien adina, protagonista izan behar dute unibertsitate sisteman"*. Helburu hori betetzeko, legeak irakaskuntza indartzen du, *"hau da, arduren artean ditu (...) ikasleek beren gain hartzea tutoretza eta mentoretza lanak eta praktika eraginkorren esperientziak"*, Europako kalitate irizpideen ildotik. Aldi berean, alderdi berriak sartzen dira; hala nola *"ikasleen osasun emozionalarekiko"* kezka.

Hezkuntzarako sarbideari dagokionez, *"legeak aukera ematen du urratsak egiteko doakotasunerantz"*. *Prezio publikoak murriztea proposatzen da, eta beka hartzen da "eskutzaileen egoera sozioekonomikoari loturiko*

eskubide subjektibotzat". Gainera, legeak aipatzen ditu eskubideak eta betebeharrak, eta, adibidez, etenaldi akademikoa jotzen du *"ikasleen eskubidetzat"*.

Azkenik, gobernantzari dagokionez, honako hau dio: *"Unibertsitateko sektoreen partaidetza da unibertsitate publikoen osagai definitzaileetako bat"*. Ildo horretan, *"apustu egiten da prozesu parte-hartzaileen, kontsulten eta unibertsitateko kide guztiek parte hartzeko beste mekanismo batzuen alde, aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatuz"*. Modu esplizituagoan, *"areagotu egiten da ikasleen gutxieneko ordezkariak unibertsitatearen gobernu organoetan, eta agintzen da Ikasle Kontseilu bat sortzeko unibertsitate bakoitzean"*.

Laburbilduz, hitzaurreak dio Legearen helburua dela *"ikasleen partaidetza indartzea unibertsitatearen gobernuan, haren unitate guztietan eta zerbitzuen kudeaketan berean"*.

Hitzaurreak adierazitakoa oinarri hartuta, jarraian xehatuko ditugu legegintza mailan definituriko funtsezko zenbait alderdi: III. tituluak arautzen ditu ikaskuntza prozesuan parte hartzearekin zerikusia duten gaiak; V. tituluak, gobernantza egiturak; VI. tituluak, unibertsitate bizitza; eta VII. tituluak, eskubideak (partaidetza izanik eskubide garrantzitsuetako bat). Azkenik, 2. kapituluak arautzen ditu ordezkariak organoak, Estatutuetan jaso beharrekoak unibertsitate guztietan. Artikuluetan jasotako alderdi azpimarragarrienak jasoko ditugu orain.

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

III. tituluaren (Irakaskuntzen Antolaketa) 6.

artikuluak argi eta garbi dio 2. puntuak: "Bermatu egin beharko da ikasleen partaidetza erabateko eta eraginkorra ikasketa planen elaborazioan, jarraipenean eta eguneratzean, bai eta plan horiek irakaskuntza gidetan duten ondorioen definizioan ere". 5. puntuak baieztapen hori osatzera dator: "Unibertsitateek etengabe ebaluatu beharko dute irakats jardueraren kalitatea. Ebaluazio horretan, bermatu egingo da unibertsitate bakoitzeko ikasleen parte-hartze eraginkorra".

V. tituluak (Lankidetzaren, koordinazioa eta partaidetza unibertsitate sistemaren)

zehazten ditu unibertsitatearen gobernantza egiturak, eta iragartzen du Estatuko Unibertsitate Ikasle Kontseiluaren sorrera, honela definituta: "Unibertsitate ikasleen partaidetza, eztabaida eta kontsulta organoa Unibertsitate Ministerioaren aurrean".

VI. tituluaren (Unibertsitatea, gizartea eta kultura)

arabera, "unibertsitateek ikasleen protagonismoa sustatuko dute unibertsitate bizitzan, eta erabateko ikaskuntza bultzatuko dute, hainbat arlotan eginiko jardueren bidez: kultura, kirola, ikasleen ordezkariak, elkartasuna, boluntariora eta garapenerako lankidetzaren". Horri erantzen dio kultura eta hizkuntza aniztasuna errespetatu behar direla jardueraren horietan. Apustu egiten da kirolaren eta jardueraren fisikoaren alde eta pertsona guztiek horretarako aukera izatearen alde: "arreta berezia jarriko arrazoi sozioekonomikoengatik eta desgaitasunengatik sortzen diren desberdintasunetan".

VIII. tituluak (Unibertsitate sistemako ikasleak) 7 artikuluak ditu. 31. artikulua sarbide eskubideaz mintzo da. 32. artikulua, ikasketetan laguntzeko bekez, eta beka lortzeko ikasleen eskubide subjektiboak aipatzen ditu. 33. artikulua aitatzten ditu prestakuntza akademikorako eskubideak. Zehazki, j) letrak aitortzen du "Estatuko eta nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko eskubidea, aukera berdintasuna bermatuko duten baldintzetan, kontuan izanik bereziki arrazoi sozioekonomikoen eta desgaitasunek eragindako desberdintasunak"; k) letrak arautzen du "aintzatespen akademikoa" eta apustu egiten du "ikasleek unibertsitate jardueretan parte hartzearen alde (mentoretza, ikaskuntza-zerbitzua, Herriarren Zientzia, kultura, kirola, ikasleen ordezkariak, unibertsitate elkarteak, elkartasun jarduerak, lankidetzakoak eta gizarte eta enpresa egitasmo berriak sortzekoak)"; p) letrak aldarrikatzen du etenaldi akademikorako eskubidea, "ikasleen hezkuntzarako eskubidea errespetatuta. Unibertsitateek garatuko dituzte eskubide hori baliatzeko baldintzak, bai eta etenaldi akademikoa deklaratzeko prozedura ere, ikaslearen ordezkariak organoak egingo duena. Etenaldi akademikoa izango da erabatekoa edo partziala".

Azkenik, 34. artikulua ikasleen partaidetzari buruzkoa da. Osorik ekarriko dugu lerrootara.

1. Unibertsitateek bermatuko dute ikasleen partaidetza aktiboa, askea eta esanguratsua unibertsitate politikaren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, bai eta haien adierazpen askatasuna eta biltzeko,

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

manifestatzeko eta elkartzeko eskubideak ere, Konstituzioan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako baldintzetan.

2. Unibertsitateek sustatu eta erraztuko dute ikasleen partaidetza ikasleen elkarte eta ordezkari jarraiek, bai eta haien inplikazio aktiboa ere unibertsitate bizitzan eta jardueran. Era berean, bermatuko dute haien parte-hartzea:

- a. Ezagutzaren sorkuntzan eta hori ikasketa planetara eramateko lanean.*
- b. Unibertsitate tituluen eta irakaskuntzaren ebaluazioan.*
- c. Unibertsitate bizitzari loturiko zerbitzuen kudeaketan.*
- d. Irakaskuntza berrikuntzaren sustapen aktiboan.*
- e. Gizartearekiko eta tokiko eta nazioarteko ingurunearekiko loturan.*
- f. Unibertsitate bizikidetzan, bitartekaritzan eta gatazken konponbide alternatiboan.*

3. Ikasleek eskubidea izango dute ordezkari aktibo, esanguratsu eta parte-hartzaile bat izateko unibertsitate gobernu eta ordezkari organoetan, bai eta organo horiek hautatzeko prozesuetan parte hartzeko ere, bereziki haien unibertsitatearen ikasle kontseiluetan, Estatuko Unibertsitate Ikasle Kontseiluan eta, halakorik balego, autonomia erkidegoetako ikasle kontseiluetan.

4. Unibertsitateek bermatuko dituzte ikasleek informazioa benetan jasotzeko aukera eta partaidetza eta ordezkari eskubideak baliatzeko mekanismo egokiak, jarraipen eta ebaluazio mekanismoak barne.

Era berean, neurriak hartuko dituzte eskubide horiek bateragarri egiteko jarduerak akademikoarekin, hala nola kredituak aitortzea ikasleek unibertsitate politikan, jardueretan eta kudeaketan duten inplikazioagatik, ikasleen elkarte eta ordezkari jarduerak, kultura arlokoak, solidarioak, kooperaziokoak eta ingurunearekiko lankidetzak arlokoak barne”.

Azkenik, 36. artikulua aipatzen ditu partaidetzari loturiko ikasleen betebeharrak. Besteak beste: “Modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea irakaskuntza jardueretan eta gainerako unibertsitate jardueretan”, “Unibertsitate arautegia errespetatzea, unibertsitate bizikidetzaren arautzen duena barne”, edo “Ordezkaritza karguen berezko erantzukizunak betetzea, hala badagokio”.

II. kapituluaren jorratzen da **Unibertsitate publikoen gobernantza**. 44. artikulua mintzo da ikaslearen partaidetza sustatzearen eta aitortzearen garrantziaz. Honako hau dio hitzez hitz: “Estatutuek mekanismo eraginkorrek ezarriko dituzte unibertsitate sektoreek unibertsitate gobernu organoetan, ikastegietan, sailetan eta institutuetan parte hartu eta ordezkari izan dezaten, arreta berezia jarriz ikasleen partaidetzan”. Horri gehitzen dio: “Helburu horri begira, egingo dira prozesu parte-hartzaileak eta kontsultak, eta sortuko dira unibertsitateko kide guztiek parte hartzeko beste mekanismo batzuk”.

Unibertsitate Klaustroari dagokionez, ikasle gutxieneko ordezkari ezartzen da. 45. artikuluan 3. atalak honako hau dio: “Unibertsitate bakoitzaren Estatutuek ordezkari ehunekoak ezarriko dituzte irakasle-ikertzaile ez-iraunkorrenzat, ikertzaile ez-iraunkorrenzat, irakasle elkartuentzat, ikasleentzat eta teknikarientzat eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzu langileentzat, ikasle ordezkari % 25koa izanik gutxienez”. Bestetik, Gobernu Kontseiluari dagokionez, 46. artikuluan 3. atalak dio ikasle ordezkari % 10koa izango dela gutxienez, eta klaustroak izendatuko duela.

Azkenik, gobernantza kapituluaren ixten da Ikasle Kontseiluaren erregulazioarekin eta kide anitzeko organoen osarearekin. 49. artikuluan arabera: “Bermatu egin behar dira kide anitzeko organo bakoitzaren erregulazioan haren funtzionamendu eraginkorra eta ikasle ordezkari: % 25 gutxienez”.



02.2.2 Beste arau garapen batzuk

Ikasleen partaidetza zehazten duen arau esparru nagusia da 1791/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, **Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua** onartzen duena. Haren arabera, *"Estatutuak ikasleek unibertsitateko bizimoduan parte-hartze handiagoa izateko mekanismoak finkatzen ditu, ikasleen eskubideak onartzen ditu, kultura, kirol eta elkartasun jarduerak aintzat hartzen ditu eta unibertsitateko bizikidetzara arautzen duen lege esparrua aldatzeko konpromisoak ezartzen ditu"*. VII. kapituluak definitzen ditu ikasleen ordezkari printzipioak, bai eta oraintsuko legerian argi eta garbi jorraturiko eskubide batzuk ere.

Estatutuak zehaztapenak ematen ditu ikasleen antolakuntza autonomoari buruz. Hala, ikasleen parte hartzeari eta ikasleen elkarte, federazio eta konfederazioen sustapenari buruzko 38. artikulua arabera, *"ikasleen parte hartzea bultzatuko da gizarte elkarte eta mugimenduetan, bizikidetasunaren eta herritartasunaren balioetan heztearen adierazgarri"* eta *"ikasleen elkarte, talde, federazio eta konfederazioen sorrera sustatuko da. Horien helburua izango da beren estatutuarekin xedaturiko moduan ikasleen intereseko jarduerak garatzea"*. Elkarte horien oinarriak izango dira: *"oreka, parekotasuna eta aukera berdintasuna ikasleen ordezkarietan eta elkarten ordezkari organoetan; emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna proiektuak aurkezterakoan; desgaitasunen bat duten ikasleen parte hartzearen sustapena; beren jarduerak burutzen duten campusen diseinua eta horietako politika estrategikoak; eta bereziki, campusen hobekuntza jasangarritasunaren, osasungarritasunaren eta solidaritatearen alderditik"*.

Azkenik: *"Unibertsitateek, euren aukeren barruan, elkarten jarduerak garatzeko eta horien funtzionamendua bermatzeko lokalak eta baliabideak jarriko dituzte"*, eta *"unibertsitate gaitan eskumenak*

dituzten administrazioek eta unibertsitateek partidak izango dituzte aurrekontuetan elkarte horien kudeaketa eta ikasleek horietan parte hartzea diruz laguntzeko".

LOSU idatzi eta onartu aurretik, Unibertsitate Ministerioak argitaratu zuen **Unibertsitate Bizikidetzaren Legea**, 2022ko otsailaren 24an.¹

¹ 2022ko Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legearen Laugarren Xedapen Gehigarria betez, UPV/EHUK onartu du bizikidetzaren arloko bere arautegia. Honako hauek osatzen dute: UPV/EHUK Bizikidetzara Arautegia, 2023ko uztailaren 24koa, UPV/EHUKo idazkari nagusiaren erabaki bidez onartua; Ikasleen Falta eta Zehapenen Arautegia, 2023ko uztailaren 10ekoa, UPV/EHUKo idazkari nagusiaren erabaki bidez onartua; eta Ikasleen Diziplina Prozeduraren Arautegia, 2023ko uztailaren 24koa, UPV/EHUKo idazkari nagusiaren erabaki bidez onartua.

Ezaugarri orokorreki dagokienez, nabarmendu behar da, alde batetik, testu horiek sortu direla unibertsitate sektoreetako ordezkarien adostasunetik; bestetik, araudi horien bidez unibertsitateak apustu egiten duela gatazkak modu baketsuan konpontzearen alde, elkarri entzunez, bizikidetzaren eta bitartekariaren bidez.

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

Legeak helburu bikoitza du: alde batetik, *"bizikidetzaren oinarriak ezartzen ditu unibertsitatearen esparruan, bizikidetzaren eragotz ditzaketen gatazkak konpontzeko modalitate alternatiboak lehentasunez erabiltzea sustatuz"*; bestetik, *"unibertsitateko ikasleen diziiplina araubidea ezartzen du"*. Zehazki, 4. artikulua helburua da indarkeria, diskriminazioa edo jazarpena prebenitzeko eta horiei erantzuteko neurri buruzko xedapenak ezartzea. Gai horiek parte hartzeko askatasunari eragiten dioten heinean, labur-labur ikusiko dugu nola tratatzen diren legean. Zehazki, apustu egiten da oinarrizko prebentzioaren alde; hala nola sentibilizazioa, kontzientziazioa eta prestakuntza. I. tituluak erreparatzen die konponbide alternatiboari, *"bitartekaritzan oinarritutakoak, diziiplina prozeduraren aurretik eta bitartean aplikatzeko. Sorturiko bitartekoak printzipio hauetara egokituko dira beti: borondatezotasuna, konfidentzialtasuna, ekitatea, inpartzialtasuna, fede ona eta elkarrekiko errespetua, errepresalien prebentzioa eta debekua, malgutasuna, argitasuna eta gardentasuna"*. Halaber, planteatzen da Bizikidetzaren Batzorde bat sortzea unibertsitate bakoitzean.

Falta eta zehapenen arautegiaren II. tituluak diziiplina araubidea zehazten du. Falta oso larritzat hartzen dira, besteak beste, hasiberriek iseka egitea, jazarpena, indarkeria, sexuagatiko edo generoagatiko jazarpena edo unibertsitateko hauteskundeak oztopatzea. Zehapen araubideak ezartzen duenez, falta oso larriaren zigorra izango da unibertsitatekanporatzea bi hilabetetik hiru urtera bitartean edo matrikula partzialeko eskubideak galtzea ikasturte edo sei hileko akademiko batean.

Gainera, azken formulazioa gorabehera, nabarmentzekoa da ikasleen, CRUEren eta

Unibertsitate Ministerioaren artean lorturiko eta lege aurreproiektuan formalizaturiko akordioak ezartzen zuela lehentasunezko metodo bat, esparru komun batean finkatua, zehapenaren aurreko gatazkak konpontzeko mekanismoetan oinarrituta. Alderdi hori aldatu egiten da izapidetzean, Parlamentuko prozesuan eginko zuzenketen ondorioz.

02.3

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen arau esparrua

Ikasleek UPV/EHUⁿ duten partaidetza arautzen da nagusiki erakundearen Estatutuen eta Ikasleen Arautegiaren arabera, zeinaren bertsio finkatua onartu baitzen unibertsitateko idazkari nagusiaren 2023ko urriaren 1eko erabaki bidez.

Hala ere, duten garrantziagatik, erreparatuko diegu ere ikasleek ikaskuntza prozesuan duten parte hartzeari eta partaidetza horretarako sine que non baldintza diren bi elementu nagusiri: diskriminaziorik eza eta sarbidea berdintasunean.

02.3.1

Arau esparru orokorra. Estatutuak, Ikasleen Arautegia eta 2022-2025 Plan Estrategikoa

Estatutuen I. tituluak definitzen ditu UPV/EHUren izaera eta helburuak. Titulu horren artikuluek zehazten dituzte antolaketa egiturak; hala nola kide anitzeko organoak.

11. artikulua 4. atalak aipatzen ditu ikasleen egiturak: *"Ikasle kontseiluak dira ikasleen kide anitzeko ordezkariak organoak. Kontseiluetako presidentek kide bakarreko ordezkariak organotzat hartuko dira. Kontseiluen oinarrizko arautegian zehazturiko gainontzekoek ere izan dezakete izaera hori"*.

12. artikulua, **unibertsitateko kideei** buruzkoak, hiru kolektibo bereizten ditu, eta horietako bat da ikasleena: *"Unibertsitateko kideak hiru taldetan daude banatuta: ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak"*. Hala, ikasleen eskubideetako bat da *"UPV/EHUko gobernu eta ordezkariak organoetan parte hartzea"*.

Ikasleen **parte hartzeko eskubidea** arautzen da 17. artikulua hainbat ataletan. Eskubide hauek aitortzen dira:

- Ikasketen antolaketa parte hartzea, unibertsitateko organoen bitartez eta, halakorik gertatuz gero, ikerketako zereginetan laguntzea.*
- Irakasle eta ikertzaileen ebaluazioan eta administrazioko zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea, onarturiko prozedurei eta indarreko legeriari jarraiki.*
- Unibertsitatean adierazpen askatasuna, bilerak egitea eta elkarteak eratzea bermatuko duten bitartekoak izatea.*
- Beren eskubideak defendatzea eta beren aldarrikapenak eta protesta akademikoak egitea, Ikasleen Arautegian zehaztuta egongo den moduan.*
- Unibertsitatearen aitorten akademikoa jasotzea ikasleen ordezkari izateagatik, baita ere unibertsitateko kultura eta kirol ekintzetan eta elkartasun eta lankidetzan ekintzetan parte hartzeagatik"*.

Era berean, partaidetza aktiboa betebeharrak gisa ezartzen da.

Estatutuez gain, Ikasleen Arautegiak eskubide batzuetan sakontzen du. Adibidez, 2. artikuluan irakur daitekeenez, *"pentsatzeko, iritzia emateko eta beste batzuekin biltzeko eta elkartzeko askatasuna izatea, UPV/EHUren eremuan askatasunok erabiltzeko baliabideak izanik"*. Era berean, *"ikasketen antolaketa parte hartzea, unibertsitateko organoen bitartez eta, hala badagokio, ikerketako zereginetan laguntzea"*. Gainera, etenaldi akademikorako eskubidea aipatzen da, ikasleen eskubideak eta aldarrikapenak defendatzeko mekanismo gisa: *"Etenaldi akademikorako denbaldi bat eginez gero, eskolara ez doazen ikasleei hutsegite hori ez zaie"*

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

aintzat hartuko, baina ikasturtearen hasieran ezarritako ebaluazio egutegia ez da aldatuko. Beraz, dena delako datarako adosturikoez gain, ezin izango da ebaluazio proba berririk ezarri”.

Azkenik, eskubide multzo bat lotzen da partaidetzaren aitortzarekin, honako atal hauetan:

24.– UPV/EHUK antolaturiko borondatezko, parte hartze sozialeko, garapenerako lankidetzako, eta gizarte erantzukizuneko jardueretan parte hartzeko eskatzea. Sustatuko da desgaitasuna duten ikasleek parte hartzea garapenerako lankidetzako eta parte hartze sozialeko proiektuetan.

25.– Boluntario edo kooperante egiaztagiria edukitzea, jarduera egiteko gaituko eta identifikatuko duena.

26.– Unibertsitatearen aitortpen akademikoa jasotzea ikasleen ordezkari izateagatik, baita ere unibertsitateko kultura eta kirol ekintzetan, eta elkartasun eta lankidetzak ekintzetan parte hartzeagatik, indarreko araudian ezarritako baldintzetan. Ikasleak hala eskatuta, ziurtagiri bat egingo zaio, UPV/EHUK antolaturiko borondatezko eta parte hartze sozialeko jardueretan ikasleak egindako zerbitzuena, honako hauek zehaztuta: data, iraupena, eta ikasleak boluntario edo kooperante gisa egindako zerbitzu mota”.

Estatutuen 20. artikulua arautzen du **Ikasle Kontseilua**, “ikasleen ordezkari organo” gisa definitua. Kontseiluaren osiera zehaztu ondoren, haren eginkizunak aipatzen dira, horien artean nabarmenduz ikasleen ordezkaria izatea UPV/EHUKo organoetan. Eginkizun kontsultiboa aitortzen zaio, gaitasun hau ematen zaionean: “Entzuna izatea, Gobernu Kontseiluak Ikasleen Arautegia onartu aurretik”. Azkenik, apustu egiten da lan autonomo

eta proaktiboaren alde, “*ekimenak bultzatu eta sustatzea, unibertsitateko ikasleen baldintza orokorrak hobetzeko*” eta “*ikasleei dagozkien ekimenak kudeatzea eta gatazkak ebaztea, bere eskumenen babesean*”. Berriki eginiko egokitzapen batean, Estatutuek zehazten dute ere Campuseko eta Ikastegiko ikasle kontseiluen eraketa, horiek hautatzeko mekanismoak eta funtzioak.

Ikasleek **unibertsitate gobernantzan** duten partaidetzari dagokionez, III. kapituluak finkatzen ditu ikasleen ordezkari organoak Gizarte Kontseiluan (errektoreak hautaturiko ordezkari bat gutxienez), Klaustroan (53 ordezkari 240tik; hau da, ordezkariaren % 22) eta Gobernu Kontseiluan (5 ordezkari 45etik, gutxienez bat graduondoko ikasleen ordezkari). Ondoren zehazten dira campuseko, ikastegiko eta saileko ikasleen ordezkariak. **Ikasleen Arautegiak** zehazten du partaidetza egitura horren funtzionamendua, LOSUra egokitu beharrekoa.

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

14. artikulua arabera:

1.– Ordezkariek izango dira UPV/EHUko ordezkariak eta gobernu organoetan parte hartzen duten ikasleak, beren kolektiboko kideek horretarako aukeratuta, arautegi honek, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrak eta gainerako unibertsitate arauak ezarritakoaren arabera.

2.– Taldeko delegatuak ikastegiko, egoitzako edo ataleko ikasle kontseiluean eta ikasleen arteko berezko solaskideak dira”.

Era berean, 15. artikulua aipatzen du ikasleen partaidetza aktiboa, betebeharrak gisa.

1.– Unibertsitateko ikasle guztiek konpromisoa dute UPV/EHUko, ikastegiko eta saileko gobernu organoetan eta beren kolektiboetan modu aktiboan eta demokratikoan parte hartzeko, beren ordezkariak hautatuen bidez.

2.– UPV/EHUk ikasleak bultzatuko ditu hauteskundeetan modu aktiboan parte hartzera. Hala, horretarako behar diren bitarteko materialak eta informazioa jarriko du haien esku, eztabaida bultzatuko du, eta saiaturiko da ikasleak inplika daitezkeen beren parte hartzea areagotzeko mekanismoen diseinuan”

Eskubideei dagokienez, ordezkariak eta adierazpen librerako eskubideez gain, hainbat elementu aipatzen dira zeregin horien eta ibilbide akademikoarekin arteko bateragarritasuna bermatzeko. Hala: “Gobernu eta ordezkariak organoetan ikasleen ordezkari gisa parte hartzeak ordezkariaren prestakuntzari eragiten diola ikusten bada, irakasleek tutoretza osagarriak antolatuko dituzte, ordezkariak irakasgaia edo gaia behar bezala gainditzeko ezagutza lortuko duela bermatze aldera”. Ebaluazio probetan parte hartzeko

prozedurak ere ezartzen dira, bai eta ordezkariak bileretan parte hartzeko betebeharrak ere.

55. artikulua definitzen ditu **ikasleen elkarteak**.

“Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen elkarteak izango dira titulu honen arabera eraturiko guztiak, eta, parte hartze eta ordezkariak demokratikoko printzipioen arabera, honako helburu hauek dituztenak: goi mailako hezkuntza, kulturaren sustapena, unibertsitateko eta kulturako ondasunen defentsa, garapen zientifikoa, kulturala eta artistikoa, jardun profesionalean aritzeko prestakuntza eta horien antzekoak, UPV/EHUko Estatutuen eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoaren arabera”.

Nolanahi ere, kanpoan uzten dira kolektibo jakin batzuk.

“Arautegi honetatik kanpo geratzen dira elkarte alderdikoiak, erlijiosoak eta irabazi asmodunak, baita UPV/EHUren helburuen kontra daudenak edo unibertsitateko kideen eskubideren bat urratzen dutenak ere”.

Erregistroan oinarrituriko aitortza sistema bat ezartzen da, eta parte hartzeko mekanismoak zehaztu. Zehazki esaten da: “Parte hartzea, batez ere, elkarteek antolatutako jarduerak zientifiko, kultural, artistiko edo bestelako bidez bideratuko da, eta jarduerak horiek baliagarriak izan beharko dira ondare intelektuala, humanistikoa, kulturala eta zientifikoa aberasteko, bai eta ikasleen eta, oro har, euskal gizartearen ongizatea, prestakuntza osoa eta garapena bultzatzeko ere”. Argi uzten da jarduerak bat etorri behar dutela ordenamendu juridikoarekin eta behar dutela informazioa eta, hala badagokio, UPV/EHUren baimena. Gai hori lotzen zaio espazioen erabilerrari.

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

UPV/EHUREN 2022-2025 PLAN ESTRATEGIKOA SORTZEN DA UNIBERTSITATEAREN BARNEAN EGINIKO GOGOETA ETA PARTAIDETZA PROZESU BATETIK. PLANAK EZARTZEN DITU GURE UNIBERTSITATEAK HAREN INDARRALDIAREN LAU URTEETAN DITUEN LEHENTASUNAK, ETA AUKERA EMATEN DIO GIZARTEA HOBETZEN LAGUNTZEKO HELBURUAN SAKONTZEKO, BIKAINTRASUNEZKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKETAREN BIDEZ. PLAN ESTRATEGIKO HORI ONARTU ZUEN UPV/EHUREN GOBERNU KONTSEILUAK, 2022KO MAIATZAREN 24AN EGINIKO BILERAN.

GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK ARDATZAREN HELBURUETAKO BAT DA: "UNIBERTSITATEKO KIDEEEN ERANTZUNKIDETASUNA, BATERAKO PARTAIDETZA ETA INPLIKAZIOA SUSTATzea, UPV/EHUREN ERABAKIAK HARTZEAN ETA HAREN JARDUERAK GARATZEAN; BEREZIKI, GAZTEENEN ARTEAN" (01 HELBURUA). HELBURU HORI HAINBAT EKINTZATAN GAUZATZEN DA, NABARMENTZEKOA IZANIK: "IKASLEEN II. PARTAIDETZA PLANA EGITEA, ETA ARAUDIA ERREFORMATzea, KOLEKTIBO HORREN PARTAIDETZA ETA HAREKIKO KOMUNIKAZIOA ERRAZTEKO" (01 EKINTZA).

AIPATZEN DEN ARAUTEGIA (IKASLEEN ARAUTEGIA) JADA ALDATU ZENEZ, ORAIN DAGOKIONA DA IKASLEEN II. PARTAIDETZA PLANA EGITEA.

02.3.2 Ikaskuntza, diskriminazioa eta berdintasuna

UPV/EHUko partaidetzaren arau esparrua zehaztuta dago erakundearen arautegian. Hala ere, partaidetzaren esparrua interpretatu behar da ere ikasleen eskubide nagusia den kalitatezko hezkuntzarako sarbidearen erabilera eta hedapenetatik. Horrek behartzen gaitu aztertzeraz, alde batetik, nola heltzen dion UPV/EHUK ikasleek ikaskuntza prozesuan duten partaidetzari; bestetik, nola gauzatzen den ikaskuntzarako sarbidea berdintasun eta inklusio baldintzetan.

Ikaskuntzan parte hartzea

Ikusi dugu nola Europako eta Estatuko arau esparruek, bai eta goi-mailako hezkuntza sistemaren garapenak berak ere, apustu garbia egiten duten ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartzearen alde. Horrela, apustu egiten da ikasleen auto-erregulazioa, auto-zuzendaritza eta auto-ikaskuntza bilatzen duten metodologia aktiboetan eta kooperatiboetan oinarrituriko ikuspegi aldaketaren alde. Eredu horien helburua da gainditzea ezagutzaren transmisioaren logika bertikala, ikaskuntza aktibo, aplikatu, esperimental eta kooperatiboaren bidez. Printzipio horiek daude ANECAk 2024an eginiko irakasle figuren akreditazio sistema berrian, eta UPV/EHUko irakasleen ebaluazio ereduari ere eragiten diote.

Zehazki, UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuaren **Irakasleen Irakats lanari buruzko Inkestak** esplizituki galdetzen du ikasleen partaidetza sustatzen den ala ez. Ikasleen iritzi hori adierazletzat hatzen da **Docentiaz programaren irakasleen kalitatea ebaluatzeako protokoloan**. Zehazki, bikaintasunak behar ditu bikainak ere izango diren ikasleen ebaluazio adierazleak. Era berean, errubrika honen adierazle sail batek erreparatzen dio irakasleak ikasleak ikaskuntza prozesuan inplikatzeko duen gaitasunari.

Ikasleak ikaskuntza prozesuan duen partaidetzaren zentraltasun hori da UPV/EHUren irakaskuntza eredu propioaren gakoetako bat: **IKD - Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa**, eredu propio, kooperatibo, eleaniztun eta inklusiboa, xedetzat duena ikaslea bere ikaskuntzaren jabe izatea, bai eta ikaslea modu integral eta malgu batean hezteaz, gizartearen beharretara egokituta. IKD eredu aho batez onartu zuen UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2010eko apirilean, [UPV/EHUko titulu ofizialen curriculum garapenerako oinarrietan](#), eta 2012-2017 Plan Estrategikoak garatu zuen operatiboki.

Eredua hainbat gaketan oinarritzen da:

- Curriculum garapenaren alorrean, IKDk nabarmentzen du berrikuntzaren balioa. Helburua da "hartu-eman biziak izatea irakasleekin, ikaskideekin eta ingurunearekin; euskal gizarte eta kulturaren arazo eta erronketan esku hartzea, iraunkortasuneko eta gizarte erantzukizuneko irizpideak aintzat hartuta". Eredu horren desafioetako bat da ikasleek "ikaskuntza bizitza osorako jarduera bilakatzea".
- Heziketa aktiboaren ikuspegitik, "IKD ereduari, beharrezkoa da ikasleak ikaskuntzako eragile aktibo izatea". Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (HELAZ) arabera, logika aktibo horren osagarri, "ikasleek unibertsitatearen gobernantzan, kalitate batzordeetan, zerbitzu bidezko ikaskuntza proiektuetan, kanpo praktiketan edo mugikortasuneko eta lankidetzako programetan parte hartzea lehentasuneko lan ildo da".
- Azkenik, guri dagokigunez, ereduak apustu egiten du lurralde eta gizarte garapenaren alde: "Inguruko gizarteari begirako curriculum garapen iraunkor eta arduratsua hauen bitartez gauzatzen da: kanpo praktikak, gizarte ekimenei emandako laguntza, sare sozialak, enpresekiko harremana eta ikasleen nazioarteko esperientzia eta lankidetzaren esperientzia sustatzen dituzten mugikortasun programak".



Diskriminazioa eta inklusioa

Ikasleek parte har dezaten, ezinbestekoa da, arau esparruaz gain, babes esparru bat, eta horretarako behar da diskriminazioari, genero indarkeriari eta gizarteratzeko zailtasunei aurre egingo dien egitura instituzional bat. UPV/EHUk modu estrategikoan heltzen dio estrategia horri, **Berdintasunerako Zuzendaritzaren eta Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren** bidez.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (2005) arabera, "euskal unibertsitate sistema osatzen duten unibertsitateek emakumeek eta gizonek aukera berdinak izatea bultzatuko dute" eta *emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko dute*". Berdintasunerako Zuzendaritza gai hori lantzen ari da ikasleen partaidetzarekin lotura zuzena duten zenbait arlotan.

- Besteak beste, aipatzekoak dira genero ikuspegitik emandako sariak gradu amaierako lanei (2024an, Francisca Aculodi Sariaren X. edizioa) eta master amaierako lanei (2024an, Maria Goyri Sariaren XII. edizioa). Bi sari horiei gehitu behar zaie GRAL/MALetan LGTB ikuspegia txertatzea saritzen duen Empar Pineda Saria.
- Partaidetza modu horiei erantsi behar zaizkie film laburren eta kartelen lehiaketak eta dozena bat online ikastaro.

Zehazki, prestakuntzaren arloan, **bi programa** eskaintzen zaizkie **ikasleei**, ikasleen agenzia areagotzeko helburuaz.

- Indartu programaren xedea da martxan jartzea ahalduntze prozesu bat emakumezko

ikasleentzat, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa. Programa sortu da soil-soilik andrazko ikasleentzat, eremu seguru eta ahalduntzaile bat sortze aldera.

- Bestetik, Eraldatzen programaren xedea da gizonezko ikasleek kontzientzia hartzea eta beren erantzukizuna onartzea zuzenean eragiten dien arazo batean, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa. Programa gizonezko ikasleentzat da eta helburutzat du mutilek gogoeta egitea genero sozializazioari, genero indarkeriaren aurrean duten jarrerari eta beren erantzukizun eta inplikazioareningurukoerabakiak hartzeaz buruz.

Azkenik, azpimarratzekoak dira bi protokolo, aniztasunaren aitortzan eta eraso sexisten aurka borrokan duten garrantziagatik.

- Alde batetik, **genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa**. Protokoloaren helburua da ingurune seguru bat eraiki eta mantentzea, genero indarkeriarik gabekoa, UPV/EHUko pertsona guztientzat. UPV/EHUk ez du onartzen genero indarkerien inolako adierazpenik eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu jarrera eta portaera horiei aurre egiteko eta behingo desagerrarazteko.
- Bestetik, UPV/EHUko **pertsona transek eta ez-bitarrek izena aldatzeko protokoloa**. Izan ere, berea sentitzen duen baina ukatzen zaion identitateaz bizi nahi duen pertsonaren sufrimendu handienetako bat izan ohi da propiotzat ez duen izenaz dei diezaioten. UPV/EHUren ustez, norberaren identitatezko bidea hasi duten pertsonak aukeraturiko izena aitortzea ez da bakarrik errespetu kontua, eta kokatu egin

02. Ikasleen partaidetzaren testuingurua

behar da pertsona orok nahi duen modukoa izateko, nahi duen bezala agertzeko eta nahi duen moduan bizitzeko dituen eskubideen baitan.

Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren xedea da aurre egitea araudian eta Estatutuetan jasotako beste erronketako bati, ekintza praktiko batzuen bidez.

Hain zuzen ere, UPV/EHUren Estatutuen II. tituluaren V. kapitulua eskaintzen zaie desgaitasun bat eta hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonari, eta 68. artikuluan honako hau esaten da hitzez hitz: "UPV/EHUK bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipaturiko pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean".

Konpromiso hori berretsiz, UPV/EHUK onartu du IV. Inklusio Plana, 2023-2026 urteetarako. Plan horrek bere egiten du hezkuntza inklusiboa bermatzeko irizpidea eta unibertsitate etapa guztietara zabaltzen du ikasleen arreta. Zehazki, III. ardatzaren xedea da unibertsitate bizitza garatzea ikuspegi inklusibo batetik. Helburu horrekin, ekintza sail bat ezartzen du ikasle zaurgarriek aktiboki parte har dezaten jarduera akademikoetan eta eskolaz kanpokoetan, bai eta bereziki ere unibertsitatearen ordezkari organoetan eta gobernu organoetan.

Aurreko guztia gauzatzen da Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua lantzen ari den hainbat jardueraren bidez. Horien artean nabarmentzekoa da Izaskun Heras Prado Saria, gai nagusitzat desgaitasuna eta hezkuntza premia bereziak dituzten Master Amaierako Lanentzat, helburua

izanik inklusioa bultzatzea eta, horrela, guztiontzako unibertsitatea lortzea. Horri gehitu behar zaizkio kartel lehiaketaren egitasmoa, ikasleek inklusioaz gogoeta egin eta emaitza kartel batean gauzatzeko, eta desgaitasun bat edo hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko programa. Alde horretatik, aipatzekoa da ere Desgaitasun bat duten unibertsitateko kideak integratzeko programa, Kirol Egokituko programa bat EHUkirolaren arloan.

A close-up photograph of a hand raised in the air, palm facing forward. The hand is in sharp focus, while other hands in the background are blurred. The background is dark with some green bokeh lights. The overall mood is one of active participation or voting.

03. AURREKARIAK

UPV/EHUko IKASLEEN I. PARTAIDETZA PLANA

03. Aurrekariak: UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Plana

Ikusi dugunez, ikaskuntzaren, genero arrazoiengatiko diskriminazioaren aurkako borrokaren edo gizarteratzeko estrategien alorrean, UPV/EHUK ikasleen partaidetza errazten du lan dinamika proaktibo baten bidez. Atal honen helburua da jarraitzea partaidetzaren arloan eginiko urratsen ibilbidearekin, UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plan honen lanketari begira.

Esan dugunez, 2012an, UPV/EHUko Ikasleen arloko Errektoreordetzak helburutzat hartu zuen ikasleen partaidetza sustatzea unibertsitate arlo guztietan, Partaidetza Plan bat eginez. Horretarako erabili zuen metodologia oinarritu zen ikasleen, irakasle-ikertzaileen, TEKAZEL langileen, Ikasle Kontseiluko kideen, adituen eta errektoreorde ohien eztabaida taldeetan.

Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko lege esparruaren barruan, eta bat etorritz indarrean dagoen UPV/EHUren arautegiarekin, Ikasleen arloko Errektoreordetzak konpromisoa hartu zuen funtsezko ideia batzuetan oinarrituriko partaidetzaren ikuspegi bat lantzeko: partaidetza ikaslearen eskubidetzat hartzea, eta ikasleen prestakuntza eta profesionalizazio prozesuaren zati gisa ulertzea (Soler et al. 2012, I. Plana, 14. or.). Ildo horretan, konpromisoa hartzen da bultzada emateko parte hartzeko ekintza programei, *"arlo politikoan, elkarteetan, jarduera akademikoetan, kultura eta gizarte jardueretan, boluntarioen ekintzetan, etab., bai eta ikasle elkarten jardueretan laguntzeko programaren plangintzari, kudeaketari eta ebaluazioari ere"*, Europako eta Estatuko jarraibideen arabera (2012:13).

Unibertsitatea ulertzen da, prestakuntza leku edo lan eremu gisa ez ezik, baita modu kolektiboan eta interdependentean eraiki, aldatu eta berreraikitzen

den komunitate gisa ere, eta lehenengo partaidetza planaren abiapuntuan dago honako ideia hau: partaidetza funtsezko pieza da *"guztioz parte garen unibertsitate komunitatearen"* hedakuntzan.

Partaidetzaren kontzeptuaren definizioari dagokionez, I. Partaidetza Planak aukeratzen du bigarren plan honetan geure egiten dugun kontzeptu ireki bat. Baieztapen honetatik abiatzen da:


"Unibertsitateko kide guztiek erantzukizuna daukagu unibertsitatearen eraikuntzan, eta prozesu horretako partaideak gara. Horra hor partaidetza kontzeptuaren jatorria". Beraz, partaidetza lotzen da unibertsitatea eraikitzeko prozesuarekin². Aurrekoari gehitzen zaio: *"Zenbait arlotan parte har daiteke, eta zenbait inplikazio mailarekin. Inplikazioa txikia izan daiteke; egotea edo bertaratzea dira, besteak beste, halako inplikazioaren adibide. Baina handia ere izan daiteke, esaterako, norbanakoa prozesuko eragile bihurtu, eta haren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartu nahi duenean"* (19. or.).

²Definizio osagarri bat izan liteke: partaidetza da unibertsitateko kideak antolatze edo mobilizatzeko prozesu bat, zeinaren bidez beren gain hartzen duten kontzienteki eragile edo subjektu gisa duten eginkizuna bilakaera kolektiboan. Praktika pertsonal bat eta prozesu kolektibo bat da, prestakuntza alorrekoa, hezitzailea, sortzailea, berdinzalea eta eraldatzailea dena edo izan nahi duena.

03.1 Esku hartzeko arloak

Ikasleen I. Partaidetza Planak bereizten ditu **bost partaidetza arlo nagusi**, non ikasleek parte har dezaketen hainbat inplikazio eta agentzia mailarekin, presentzia hutsetik hasi eta kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeraino.

Erakundearen izandako parte hartzean (batik bat zentratua prestakuntzaren alorrean) eta kontsultan oinarrituriko logika batetik, I. planak zehazten ditu erakundearen parte hartzeko eta laguntzeko mekanismoak, bost arlotan: (a) irakaskuntza eta ikerketa; (b) kudeaketa eta ordezkariak; (c) gizarte eta kultura; (d) komunitatea; eta (e) ebaluazioa.



Irakaskuntzaren eta ikerketaren arloari dagokionez, proposaturiko jardueren helburuak dira: ikasleen partaidetza zabaltzea jarduera akademikoetan; ikasleei begirako komunikazio eta informazio bideak hobetzea; ikasleek tutoretza programetan parte har dezaten sustatzea; edo ikasleen inplikazioa lortzea IKD eredu pedagogikoaren ezarpenean. Arlo honetan, planak jasotzen ditu ere proposamenak ikasleak inplikatzeko saiatzeko bere lan etorkizunari,

ekintzaitzaren kulturari, irakaskuntzaren jarduera osagarri eta ikerketa bokazioak sustatzeari loturiko jardueretan.

Kudeaketaren eta ordezkariaren arloan, planak proposatzen du ikasleen partaidetza handitzea kudeaketa jardueretan, ordezkarien eta ikasleen arteko komunikazio bideak hobetuta. Era berean, hobetu egin nahi du ordezkari organoak eta ikasleen eskubideei eta betebeharrak buruzko ezagutza, bai eta hauteskunde prozesuak eta ordezkarien hautaketa indartu ere. Rol garrantzitsua du ere ordezkariak lana aitortzeak.

Gizartearen eta kulturaren arloari dagokionez, bultzada eman nahi zaio ikasleen partaidetzari kirola, elkarteak eta akademiaz kanpokoak bezalako jardueretan.

Komunitatearen arloan antzeko zerbait planteatzen da, helburua izanik gizarte hedakuntzako jarduerak bultzatzea; hala nola boluntarioria eta lankidetzak.

Azkenik, **ebaluazioaren arloan** proposatzen diren neurrien xedea da ikasleen partaidetza sustatzea goi-mailako hezkuntza ebaluatzeko prozesuetan, gogobetetze, ebaluazio eta laneratzeko inkestak bidez.

Arlo horietan aritzeko eta partaidetza sustatzeko, I. planak ezinbesteko hiru **gako** finkatzen ditu bere gain: (1) motibazioa; (2) informazioa eta (3) prestakuntza. Horrela, nabarmentzen da garrantzitsua dela ikasleek parte hartu nahi izatea eta horretarako bideak zeintzuk diren jakitea, hainbat modu eta mekanismo eskainiz partaidetza lekuetan esku hartzeko haien gaitasunak eta ezagutzak garatzeko (22. or.).

03.2 Planaren hedapena

Ikasleen I. Partaidetza Plana onartu eta 12 urtera, agerian gelditu da partaidetzaren aldeko apustua errealitate berrira egokitzeko beharra, eta horixe da, hain zuzen, Ikasleen II. Partaidetza Plan honen zentzua: 2012an hasitako bidean sakontzea.

Ondorengo orrialdeek jasotzen dute orain arte arlo bakoitzean eginiko bidearen azterketa labur bat. Zoritxarrez, I. planak ez zuen **erabili** ekintzen jarraipenaren eta betetze mailaren adierazlerik, eta ez dute jarraipenik izan ere aurreikusitako koordinazio tresnek. Ondorioz, ez dago adosturiko adierazle objektiborik, ekintzen ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko. Hori dela-eta, ondorengo orrialdeetan, asmoa ez da ekintzen garapena ebaluatzea, arlo bakoitzeko **mugarri nabarmenetako batzuk identifikatzea** baizik, hurrengo ataletan aurrera egiteko. Kasu honetan, oinarri hartuta partaidetzaren indarguneei eta mehatxuei buruzko diagnostiko kualitatibo, kuantitatibo eta parte-hartzailea.

Orain arteko ibilbidea bere osotasunean aztertuta, haren **balorazio orokor positiboa** egin daiteke, termino kuantitatiboetan. Hala, Ikasleen I. Partaidetza Planean jasotako ekintzen % 80 baino gehiago burutu dira, hainbat garapen mailarekin.

Ekintza batzuk normalizatu egin dira, unibertsitate jardueraren egunerokotasunaren parte izateraino: hala nola ikaslegoari informazioa ematearekin, ordezkariak aukeratzearekin edo haien ordezkariak organoak osatzearekin zerikusia duten neurriak. Beste batzuk inplementatu dira hedapen maila ezegonkorragoarekin: esaterako, ekintzailletza egitasmoak edo ikasleen elkarleen bultzada (campus, ikastegi eta diziplinen errealitate espezifikoaren eta koiunturaren oso mendekoak).

Azkenik, kontuan hartu gabeko beste egitasmo batzuk sortu dira edo horietan biziki sakondu

da: adibidez, ikasleen partaidetza nazioarteko programetan edo haien presentzia hezkuntza berrikuntzako proiektuetan.

Oro har, **hobetzeko arlo** batzuk zehaztu dira:

- Lehenik eta behin, programaturiko ekintzen urteko monitorizazioa ahalbidetuko duten **ebaluazio adierazle** kuantitatiboak eta kualitatiboak **mugatzeko beharra**. Egitasmo guztiak aztertzen badira ere, ez da zentralizatzeko zerbitzuen, campusen, ikastegien eta abarren informazioa, Jardueren Memorian jasotzeaz harago. Ez dago ere ebaluazio adierazle kuantitatibo eta kualitatibo estandarizaturik eta bateraturik.
- Bigarrenik, **planaren lankidetzaren eta jarraipen egiturak** artikulatzea, aurkezturiko neurriak zehazteko eta horietan sakontzeko. Bideragarria ez den arren Estatutuetan jasotakotik kanpo egongo den erabaki organorik, talde eragile bat sortu behar da, barne hartuko dituen ikasleen partaidetzari eragiten dioten programak ezagutzen dituzten eta zuzenean inplikaturik dauden eragileak (Ikasleen arloko errektoreordea, Ikasleen Zuzendaritza eta Ikasle Kontseiluaren ordezkariak). Egitura hori oinarritu daiteke jarraipen batzordeetan, unean-uneako ala ez, inplikaturiko arloetako edo erakundeetako ordezkariarekin, ekintzak monitorizatzen, ebaluatzen eta zehazten lagun dezaketenak.
- Hirugarrenik, **sozializazio lan** bat behar da eragile guztien artean, ikasleek parte hartzeko dituzten aukerak ikusarazteko, ordenatzeko eta kartografiatzeko. Funtsezkoa da unibertsitateko kide guztiek, ez bakarrik ikasleek, ezagutzea eta inplikatzeko ikasleen partaidetzaren kultura eta praktika baten garapenean.

03.2.1 Irakaskuntzaren eta ikerketaren arloa

I. planaren arabera, arlo honen xedea zen "errektoreordetzek, ikastegiek eta sailek antolatutako jarduerak akademikoetako partaidetza zabaltzea" (2012:23). Hala, helburua zen informazioa hobetzea eta ikasleen inplikazioa eta partaidetza areagotzea, honako hauetan: (a) tutoretza programak; (b) mugikortasun programak; (c) IKD eredu pedagogikoa ezartzea; (d) ekintzaitzaren kultura eta lan etorkizuna; (e) ikerketa eta (f) prestakuntza osagarria.

Bi dira tutoretzaren eremuan partaidetza hedatzeko funtsezko mugak. Alde batetik, Berdinen arteko Tutoretzarako **BAT programa**, harrera ona izan duena eta ikasleek gehien ezagutzen duen programa arrakastatsuenetakoa bat bihurtu dena. Haren ibilbidea oso aldakorra izan bada ere ikastegien eta fakultateen arabera, partaidetza aktiboaren eredutzat hartzen da eta beste gai batzuetara zabal daiteke: hala nola genero desberdintasunen kudeaketara edo ikaskuntzaren hobekuntzara. Ikasle agentziaren aktibazioan oinarritutako lankidetzaren eta partaidetzaren logika horretan, beste programa bat aipatu behar da: **Entzute eta Erantzute Sarea**. Pandemiaren ondoren sortua eta oraindik garapen fasean, laguntza sare informal bat da, ikasleen, irakasle-ikertzaileen eta TEKAZEL langileen artekoa. Haren bidez, ikasleek informazioa eta laguntza lor ditzakete, zuzenean eta era informalean, laguntzarako egitura eta baliabide ofizialak ezagutzeko eta horietara iristeko.

Aurrera egin da ere **IKD eredu pedagogikoaren** ezarpenean. 2023an, eredu berrirakurri eta egokitu ondoren, eta egungo orientabide pedagogikoekin eta Europako jarraibideekin lerrokatzeko, onartu egin da i3 estrategia (ikaskuntza x ikerketa x iraunkortasuna). Eredu honen hedapena oinarritzen da PBL proiektuen (Project Based Learning) inplementazioan; hala nola Bizkaiko Ingeniaritza Eskolaren Formula Student Proiektua. Ikasleen partaidetza zabaldu da ere hezkuntza berrikuntzarako proiektuetara. Zehazki, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak planteaturiko UZTATU 4. prototipoak eta ONDU 5. prototipoak (eredu finkatuak eta bikaintasunezkoak) behar dute UPV/EHUko eta beste unibertsitate batzuetako titulazio edo ikastegi bat baino gehiagoko irakasleen eta ikasleen presentzia.

Nabarmentzekoa da ere **Enlight Europako Aliantzaren** bultzada, Europako 10 unibertsitateen arteko lankidetzaren estruktural eta sistematikoan gauzatzen dena, "bizi kalitate ekitatiboa, jasangarritasuna eta konpromiso globala sustatzeko, goi-mailako hezkuntza eraldatuta". Aliantza horrek, bere gobernantza eredu bereziari esker, aukera ematen du programa bateratu berritzaileak diseinatzeko eta abian jartzeko, unibertsitate sistema integratu bat eratzeko epe luzera. Egitasmo honi gehitu behar zaizkio beste batzuk; hala nola **Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Euskampus-Bordeaux Campusa** edo Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak eskaintutako mugikortasun beka.

Hirugarrenik, ikasleen enplegarritasunarekin, ekintzaitzarekin eta lan etorkizunarekin loturiko jarduerak hainbat programaren laguntza dute: adibidez, enpresa ekimena laguntzeko **Entreprenari, Zitek** eta **EHU-Inizia programak**, helburutzat dutenak ekintzaitzaren eta partaidetzaren kultura sustatzea. Hortik sortu dira jardunaldiak, hitzaldiak eta Gradu Amaierako eta Master Amaierako ikerketa proiektuak, ikasleek gehiago parte hartzea eragin dutenak. Beste adibide bat da **IKD GAZte** esperientzia, oinarri gisa erabilia kanpoko erakundeekin lankidetzan egiten ari diren GRAL eta MALetan. Adjudikatzen dira lankidetzaren proiekturako beka eta poltsa ekonomiko gehigarri bat, prototipoak eraikitzeko edo kongresuetan lanaren komunikazioak egiteko. Lan ildo hori bultzatu da ere Enplegu Foroetan, ekintzaitza beketan, irakasgai batzuetan enpresetara eginiko irteeretan eta 2020an onartutako **UPV/EHUren I. Ekintzaitza Planean**.

Arlo honetan kokatzen dira ere **Unibertsitate-Enpresa-Gizarte Gelak (UEG)**, elkarlan gune gisa, UPV/EHUren eta unibertsitatearekin lankidetzan diharduten eta gela bakoitza babesten duten enpresen eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen artean. Gela horietan sortzen dira prestakuntza eta ikerketa proiektuak, borondatezko praktiken, gradu eta master amaierako lanen, doktorego tesien eta abarren baitan. Gaur egun, 50 UEG Gela inguru daude martxan, campusetan eta fakultateetan. Ildo horretan aipatu behar da ere **EmpACT i3 proiektua ("ENplegarritasuna inpAKTuarekin")**: mugaz gaindiko egitasmoa, biltzen dituena hainbat diziplinako unibertsitate ikasleak, irakasleak eta aktore publiko zein pribatuak, helburutzat duena ezagutzak eta gaitasunak garatzea etorkizuneko profesionalen artean, aurre egiteko Akitania Berriaren eta Euskadiren arteko mugaz

03. Aurrekariak: UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Plana

gaindiko lurraldearen trantsizio desafioei. Proiektua oinarritzen da Erronketan Oinarrituriko Hezkuntzan (EOH), eta hiru arlo nagusi ditu: ozeanoen osasuna eta jasangarritasuna plastikoaren kutsaduraren ikuspegitik, itsas energia berriztagarriak, eta ekonomia zirkularra.

Laugarrenik, ikasleek ikerketan duten inplikazioari dagokionez, haien presentzia baloratzen da UPV/EHUren hainbat deialditan; hala nola aipaturiko **Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetan**, Eusko Jaurlaritzak ikertalde finkatuen ikerketetan laguntzeko emandako Ikasiker beketan eta **Campus Bizia Lab** jasangarritasun proiektuetan.

03.2.2 Kudeaketaren eta ordezkartzaren arloa

Kudeaketari eta ordezkartzari dagokienez, Ikasleen I. Partaidetza Planaren xedea zen *“errektoreordetzekin, ikastegiekin, sailekin eta ikasleen kontseiluekin loturiko kudeaketa eta ordezkartzatza jardueretan ikasleen partaidetza areagotzea”* (2012:23). Horretarako, helburu hauek zituen: (a) *ikasleen ordezkarien eta ikasleen arteko koordinazioa eta komunikazio bideak hobetzea*; (b) *ikasleek ordezkartzatza organoak eta euren eskubide nahiz betebeharrak hobeto ezagutu ditzaten lortzea*; (c) *ikasleek kudeaketan duten partaidetza aitortzea*; (d) *unibertsitateko organoetan ikasleak hautatzeko prozesuen kudeaketa hobetzea, eta (e) taldeko/gelako ordezkarien aukeraketa sustatzea, ikasleengandik hurbilen dauden pertsona gisa.*

Esan dugun bezala, UPV/EHUren Estatutuen 11.4 artikulua araberan, *“Ikasle kontseiluak dira ikasleen kide anitzeko ordezkartzatza organoak”*. UPV/EHUko Ikasle Kontseilua da ikasleen ordezkartzatza organo gorena, eta arduratzen da, besteak beste, Ikasleen Arautegia onartzeaz, ikasleen eskubideak eta betebeharrak jasotzeaz gain, ikasleen ordezkartzatza arautu eta definitzen duena (18. artikulua). Azkenaldian eginiko arau aldaketa bati esker, ikastegi bakoitzeko Ikasle Kontseilua osatzen dute delegatuen, Ikastegi Batzarreko kideen eta Klaustruko kideen ordezkariak.

Alde horretatik, esan daiteke UPV/EHUK aurrera egin duela ikasleen ordezkartzatza egituratzeko lanetan, 2022an arautegia erreformatuta, eta horrek eragin positiboa izan du Ikasle Kontseiluak demokratizatzeko orduan, beharrezkoa bada ere sakontzen jarraitzea ikasleen eta haien ordezkarien arteko **komunikaziorako eta harremanetarako zeharkako kanal eraginkorretan**. Horiek horrela,

ikasleen eta haien ordezkarien arteko **komunikazioa** hobetzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira iradokizunen postontzia eta REXATU kexen protokoloa. Aurrera egin da ere ikasleen ordezkartzatza lanaren zabalkundearen hobekuntzan, hainbat egitasmoren bidez: adibidez, Ikasle Kontseiluko kide guztientzako Prestakuntza Jardunaldiak antolatuta; 2011-2012 ikasturteko Ikasleen Ordezkarien Gida eginda; edo 2023an UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren testu bategina argitaratuta. Urte hauetan aurrera egin bada ere **taldeko ordezkariak** (ikasleengandik hurbilen dagoen figura gisa) hautatzeko araudi eta protokolo bat prestatzeko lanetan (horrek hobetu egin ditu hautaketa prozesuak eta handitu ikasgeletan dauden ordezkarien kopurua), badirudi beharrezkoa dela aurrera egitea ordezkartzatza figura horiek **aintzateste**ko, **ezagutzeko eta babesteko** lanean. UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Plana aukera on bat izan daiteke aurrera egiteko araudi bidez finkaturiko egitura batean, haren ezagutza eta aintzatespena zabaltzeko unibertsitateko kide guztien artean.

03.2.3 Gizartearen eta kulturaren arloa

Gizartearen eta kulturaren arloan proposatzen zen areagotzea ikasleen partaidetza jarduera soziokulturaletan, honako hauek sustatuta: (a) *ikasleen elkarteak*; (b) *jardueren eskaintza transmititzeko bideak*; eta (c) *jarduerak sustatzeko ekimena, ikasleen eta UPV/EHUren arteko loturak indartuz eta hobetuz.*

Oro har, eta aurrerago diagnostikoan jorratuko dugun bezala, ahulduta dago **unibertsitatearen eta ikasleen arteko lotura**, eta horrek zaildu egin du zalantzarik gabe ikasleen partaidetza. Ikusiko dugunez, unibertsitate publiko askotan gertatzen den bezala, ez dago unibertsitateko **kide izatearen sentimendu sendorik**. Ikusi dugu gu indartsu bat definitzea funtsezkoa dela agentzian finkaturiko partaidetzarako, eta horregatik arlo hau funtsezkoa izan daiteke etorkizunean.

Izan ere, esandakoa gorabehera, askotarikoa eta aberatsa da unibertsitatearen jardueren eta aukeren eskaintza, duela urte batzuk baino askoz aberatsagoa, eta bilakaera positibo bat egon da, hortaz. Hala, badira indartu beharreko ekintza bateratzaileak, hala nola **ekitaldi instituzionalak** (graduazio ekitaldiak, espediente akademiko onenen bikaintasuna aitortzekoak), Harrera Egunak, Kirol Egunak eta izaera soziokulturaleko eta ludikoko beste hainbat ekitaldi eta jarduera. Horretarako, Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak **aurrekontu hornidura** bat ematen die ikastegiei, ikasleentzako jarduera soziokulturalak antolatzeko eta haien partaidetza bultzatzeko unibertsitate bizitzaren alor guztietan.

Alde horretatik, **ikasleen elkarteak** funtsezko elementua dira, nahiz eta gorabeherak izan dituzten denboran zehar. Alor hau indartzeko, aldaketak egin dira arautegian, altak eta bajak errazteko adibidez, elkarteak sendotzeko maila guztietan. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Junior Enpresak izenekoen indarra, unibertsitate ikasleek osaturiko irabazi asmorik gabeko elkarteak, ikasleen prestakuntza hobetzeko asmoz sortuak. Elkarte horiek aukera ematen diete ikasleei praktikan jartzeko ikasketetan lorturiko ezagutza teorikoa, bai eta lotzeko ere unibertsitatean ikasitakoa eta benetako enpresa mundua.

03.2.4 Komunitatearen arloa

Arlo honen helburua zen "ikasleen partaidetza areagotzea gizarte hedakuntzako jardueretan", helburu hauen bidez: (a) *ikasleen artean boluntariora sustatzea*; (b) *ikasleei boluntariorarekin eta lankidetzarekin loturiko UPV/EHUko jarduerak ezagutaraztea*; eta (c) *mugikortasun programetako ikasleei laguntzea eta babesa ematea, errazago integratzen gizaratean nahiz unibertsitatean*.

Oro har, jasangarritasuna, inklusioa eta konpromiso soziala bezalako zutabeetan oinarrituriko i3 eredu pedagogikoaren atal gisa, UPV/EHUk parte hartzen du Jasangarritasunerako Hezkuntzako hainbat saretan eta bultzada ematen dio erakundeekiko, GKEekiko eta elkarteekiko lankidetzaren publiko-privatuari, lankidetzaren eta garapen jasangarriaren esparruan. Horrela, **Campus Bizia Lab** egitasmoaren baitan, Zientzia eta Gizarte Garapenaren arloko Errektoreordetzatik eta EHUGUNE (Konpromisoa eta Eragin Soziala) Zuzendaritzatik, lankidetzaren **programak** gauzatzen dira Bolunta, Bizkaia Gara edo Gizalde bezalako erakundeekin. Halaber, **Gaztenpatia** bezalako programak, aukera ematen dutenak curriculum praktikak eta GRALak egiteko Latinoamerikako gizarte erakundeekin elkarlanean; GRALak eta MALak Campus Bizia Lab programaren barruan, aukera ematen diena ikasleei beren ikerketa lanak egiteko jasangarritasunerako hezkuntzaren arloan, erronketan oinarrituriko diziplinaz gaindiko ikaskuntza sustatuz. Nabarmentzekoa da **ere ikaskuntza-zerbitzura, komunitatean oinarrituriko ikaskuntzara eta ikerketa/partaidetza-ekintzara** hurbiltzeko eginiko ahalegina, enborreko atala UPV/EHUko irakasgaiak,

graduak eta masterrak ikasteko prozesuan. Halaber, **Mugaz gaindiko Campusaren** eta mugikortasuna sustatzearen esparruan, Europako Elkartasun Kidegoa bezalako ekimenen bidez, helburua izanik aukerak sortzea ikasleek lan egin dezaten Europako erkidegoari mesede egiten dioten proiektuetan. Gainera, UPV/EHUk sustatzen ditu lankidetzaren praktikak eta boluntariora jarduerak, curriculumaren barruan eta curriculumetik kanpo, eta hautazko kredituak aitortzen ditu jardueraren solidarioetan parte hartzeagatik.

Ikasleen artean presentzia eta onarpen handia duten proiektuak dira, COVID-19a horietako batzuetan inflexio puntu izan bazen ere: adibidez, **Gaztenpatia** programan, mugikortasun murrizketen ondorioz. Era berean, azpimarratu behar da programa oso feminizatuak direla, parte-hartzaileen 2/3 emakumeak izanik.

UPV/EHUk ikasleei eskaintzen dien programa eskaintza zabala hedatzeko, funtsezkoak dira **EHUalumni** bezalako sareak edo programa hauen ikasle enbaxadoreak.

03.2.5 Ebaluazioaren arloa

Azkenik, I. planak bere gain hartu zuen goi-mailako hezkuntza ebaluatzeko prozesuetan ikasleen partaidetza sustatzeko konpromisoa, gogobetetze galdetegiaren, iritzi inkestaren... bitartez.

Ebaluazioa presente dago ikasleen unibertsitate esperientzia osoan, parte hartzen duten jardueren gogobetetze **inkestaren** bidez, irakasleak ebaluatzeko inkestaren bidez (autoebaluaziorako atal bat dute) eta iritzi eta laneratze inkestaren bidez. Ondorioz, UPV/EHUk informazioa eta datu estatistiko ugari ditu, ikasleen iritziak jakiteko eta etorkizunera begira hobetu beharrekoak identifikatzeko.

Horrek ez du esan nahi sakondu behar ez denik **ebaluazio tresna kualitatiboagoetan**, Graduak Ebaluazio Batzordeak edo graduak eztabaida taldeak bezalakoak, dagoeneko UPV/EHUko fakultate eta titulazio askotan erabiltzen ari direnak eta informazioa lortzeko eta ondorengo lana egiteko leku eta formula emankorrak izan daitezkeenak.





04. METODOLOGIA

II. PARTAIDETZA PLANA EGITEKO PROIEKTUAREN METODOLOGIA

04.1 Ikerketaren helburu orokorrak

Diagnostikoa egiteko eta proposamenak lantzeko prozesu baten diseinu metodologikoari eta inplementazio teknikoari dagokienez, lau helburu nagusitan oinarritu da:

01

UPV/EHUko ikasleen **partaidetzaren esparrua mugatzea**, ikuspegi filosofiko, metodologiko, juridiko eta arau ikuspuntutik.

02

Prozesuan parte hartu duten eragile guztiekin, ikasleen **partaidetza zailtzen edo mugatzen duten aldagaiak zehaztea**.

03

Identifikaturiko **aldagaiari aurre egiteko proposamen posibleak identifikatzea**, kontuan hartzeko UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Planaren diseinuan eta garapenean.

04

Ekintzen proposamen bat aurkeztea **UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza** Planaren esparruan, honako hauek jasoko dituen:

1. Esku hartzeko proposamen orokorrak.
2. Proposamen horiek testuinguruan jarriko dituen narratiba bat, aukeren adibideak jarri eta orientatuz parte-hartzaileen ekarpenetatik abiatuta.
3. II. Partaidetza Planaren jarraipena, koordinazioa, zeharkakotasuna eta ebaluazioa egiteko mekanismoak eta adierazleak.

04.2 Lantaldea

Helburuak betetzeko, lantalde bat sortu da, irakasle-ikertzaileez osatua, zereginen artean izan dituen, Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko Errektoreordetzarekin eta Ikasleen Zuzendaritzarekin batera, I. plana ebaluatzea, diagnostikoa eta proposamen bilketa egitea eta II. Partaidetza Planaren zirriborroa idaztea.


Ikerketan lagundu du Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterreko eta Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan Masterreko 2023/2024 promozioko praktiketako ikasle talde batek.

Prozesu osoan, harreman estua izan dugu UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin, eta ikerketaren diseinu metodologikoan parte hartu du eta diagnostikoaren aldagai garrantzitsuenak identifikatzen lagundu du.

04.3 Ikerketaren metodologia

Aipaturiko helburuak lortzeko erabili dugu metodo anitzeko diseinu bat, ikerketa-ekintzaren estrategietan oinarritua, hasieratik proposatzen zuena UPV/EHUko ikasleen partaidetzan zuzenean inplikaturiko bost eragile talderen parte hartzea: (a) ikasleak; (b) irakasle-ikertzaileak; (c) TEKAZEL; (d) organo eta kargu instituzionalak eta (e) partaidetzan adituak diren pertsonak.

Beraz, esparru metodologikoari dagokionez, erabili da diskurtsoak irekitzeko (Irekiera fasea: diagnostikoa) eta akordioak ixteko (Itxiera fasea: proposamenak) estrategia bat, prestaketarako aldez aurreko fase batekin eta adostasunak bilatzeko tarteko fase batekin, diagrama honetan ikus daitekeen bezala:



Dena dela, adierazi dugun bezala, partaidetzan oinarrituriko ikerketa kritikoak onartu egin behar du garrantzitsua dela ikerketetan parte hartzen duten pertsonak ez tratatzea datuak ematen dituen subjektu huts gisa, eta eragileen rola ere jokatu behar dutela; hau da, ikerketa prozesuaren laguntzaile gisa.

Horrela, aintzat harturik ikerketa prozesuaren beraren denborak eta mugak, erabaki zen ikasleen ordezkariekin batera (Ikasle Kontseilua) lantzea eta ko-diseinatzea II. Partaidetza Plana izango dena, haiekin kontrastatuta eginiko urratsak, lorturiko emaitzak eta proposaturiko dinamika batzuen diseinua eta lanketa; hala nola Desioen Tenderetea izeneko dinamikarenak (ikus 3.3.3 atala).

04.3.1 Irekiera fasea: diagnostikoa

Ikerketaren lehen fasea egin da 2024ko urtarriletik apirilera, eta helburu izan du UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren egungo errealitatea aztertzea. Adierazlerik ez dagoenez, ezin izan da egin 2012ko Ikasleen I. Partaidetza Planaren irismena eta betetze maila ebaluatzeko diagnostikorik. Ondorioz, diagnostiko lana oinarritu da partaidetza zailtzen duten aldagaien identifikazioan.

Diagnostiko lan hori egiteko, irekiera fase hau zabaldu zen informazio bilketa bat egiteko teknika kualitatiboen bidez. Horrela, eztabaida taldeak eta elkarrizketa sakonak egin dira, aipaturiko hainbat eragilerek: ikasleen ordezkariak, kargu instituzionalak, irakasle-ikertzaileak eta adituak. Hainbatestrategiaerabiliziren horiekin harremanetan jartzeko.

1. Elkarrizketa sakonak

Hemezortzi elkarrizketa sakon egin dira, hiru bloke nagusiren inguruan. Horretarako, antzeko gidoida bidali zien ikertaldeak parte hartzeko gonbidapena onartu zuten pertsona guztiei (50 lagun baino gehiago gonbidatu ziren), aldaketa batzuk eta elkarrizketatuaren iritzi eta esperientziari buruzko galdera zehatz batzuk gehituta. Horrekin batera, helarazi zitzaie I. Partaidetza Planaren jardun arloak eta ekintza bide nagusiak laburtzen zituen folio bat, planaren hedapen orokorra ezagutu eta balora zezaten.

Lehenengo blokean, elkarrizketaturiko pertsonen galdetu zaie zer dakiten ikasleek UPV/EHU duen partaidetzaz, bai eta haren indargunez eta ahulgunez ere. Hala, abiatu gara beti esperientzian oinarrituriko ideiak eta testigantzak bildu nahi izan dituen ikuspegi batetik, parte-hartzaile askok ez dakitelako eta ez dutelako ikasleen partaidetzari eragiten dioten faktore guztiei buruzko datu zehatzik.

Bigarren blokean, helburua izan da ikasleen partaidetza mugatzen eta zailtzen duten edo bultzatzen duten arazoak eta faktoreak ezagutzea, lan ildo berriak marrazten hasteko hautemandako gabeziatik.

Hirugarrenik, elkarrizketak ixteko, saiatu gara lantzen Ikasleen II. Partaidetza Planean sartu beharko lirakeen gakoak eta ekintza zehatzak, eta horretarako abiapuntu izan dugu I. planean eginiko lana. Zehazki, proposamenak lantzean, kontuan izan ditugu dokumentu horretan landu ziren ikasleen partaidetzaren bost arloak eta gakoak (ikus 2. atala).

Elkarrizketak ikasleen ordezkarietan

Diagnostikoaren lehen fase honetan, metodoanitzeko ikerketa bat denez, erabaki zen elkarrizketa sakonak egitea UPV/EHU osoko ikasleen ordezkarietan. Hala, ikasleen ordezkariaren antolaketa dela-eta, harremanetan jarri ginen fakultateetako eta

campusetako ikasle kontseilu aktibo guztiekin, bai eta ikasleen kontseilu nagusiarekin ere.

Ikertzaileek harremanetan jartzeko eginiko saioen ondoren, azkenean **hiru elkarrizketa sakon** egin ziren, elkarrizketa bakoitza UPV/EHUko kontseiluetako bina ordezkariarekin. Elkarrizketek eman digute ikasleek kudeaketa eta ordezkartza zereginetan duten partaidetzari buruzko ikuspegi bat, eta ideia batzuk, hobetzeko ikasleen partaidetza oro har, eta ordezkartza lana, bereziki.

Elkarrizketak irakasle-ikertzaileen kargu instituzionalekin

Ikasleen ordezkarietaz gain, erabaki zen ahotsa ematea ere unibertsitateko beste kide batzuei, funtsezko zeregina izan dutenak I. Partaidetza Planaren garapenean; hala nola erakundeak kudeaketa kargu bat izan duten edo duten irakasle-ikertzaileei. Horretarako, parte hartzeko eskatu zitzaie partaidetzaren arloan inplikaturiko organoetako erreferentziazko pertsonen, bai eta, beren kargua eta erantzukizunak direla-eta, gaiarekin lotura zuzena duten beste pertsona batzuei ere.

Horrela, ikertzaileek harremanetan jartzeko eginiko saioen ondoren, azkenean **hamabi elkarrizketa sakon** egin ditugu kargu instituzionalekin. Pertsona horiek azaldu dizkigute beren ikuspegia eta esperientzia Ikasleen I. Partaidetza Planaren ebaluazioaren inguruan, eta argibideak eman dizkigute partaidetzaren egungo errealitateari eta aurrerantzean aztertu beharreko lan ildoei buruz.

Elkarrizketak adituekin

Azkenik, elkarrizketa sakonen barruan, ikertzaile taldeak beharrezkotzat jo zuten elkarrizketatzea gaien adituak diren pertsonak. Hala, partaidetzan (unibertsitatean eta unibertsitate kanpo) adituak diren hiru pertsonaren laguntza izan dugu, eta haiekin hitz egin dugu ikasleen partaidetza blindatu dezaketen ideiei eta lan ildoei buruz, beste unibertsitate batzuetako esperientzietan oinarrituta.

2. Eztabaida taldeak

Elkarrizketa sakonekin batera, ikertzaile taldeak proposatu zuten erabiltzea eztabaida taldeen tresna, irakasle-ikertzaileekin eta ikasleekin, eztabaidatzeko eta I. Partaidetza Planaren diagnostikoan eta ebaluazioan aurrera egitea ahalbidetuko luketen ideiak bateratzeko.

Hori horrela, gidoi bat bidali zien gonbidapena onartu zuten pertsonen, laburpen dokumentu bat erantsita, elkarrizketa sakonen gidoida bezala, I. Partaidetza Planaren lan arlo eta ekintza ildo nagusiei buruzkoa.

Eztabaida taldeak irakasle-ikertzaileekin

Irakasle-ikertzaileekin kontaktatzeko, kontuan harturik UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen kopurua, ikertzaile taldeak aukeratu zuten laginketa estrategia

04. IKASLEEN II. Partaidetza Plana egiteko proiektuaren metodologia

ez-probabilistiko bat, lagina hautatzeko irizpide zehatzetan oinarritua. Horretarako, erabaki zen harremanetan jartzea modu batera edo bestera ikasleen partaidetzarekin inplikaturik dauden irakasleekin. Hirurogeita hamar gonbidapen baino gehiago bidali eta harremanetan jartzeko hainbat saio egin ondoren, hogeitaz inguruk onartu zuten **bi eztabaida talde** egiteko gure gonbidapena. Eztabaida talde bakoitzak sei parte-hartzaile izan zituen, ezinezkoa izan zelako bateratzea II. plan honetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko interesa agertu zuten pertsona guztien agendak.

Eztabaida taldeek, elkarrizketa sakonek bezala, hiru bloke orokor izan dituzte: (a) UPV/EHUko partaidetzaren balorazio orokorra eta egungo errealitatea; (b) ikasleen partaidetza mugatzen edo errazten duten arrazoiak eta faktoreak; eta (c) II. Partaidetza Planean sartu beharreko gakoak eta proposamenak.

Eztabaida taldeak ikasleen ordezkari antolatuekin

Bestetik, saiatu ginen antolatzen eztabaida talde bat ikasle antolatuekin, harremanetan jarriz UPV/EHUko ikasle elkarte aktiboetako ikasleekin eta ikasleen ordezkari multzoarekin. Ikertzaile taldeak hainbat saio egin bazituen ere, ez zuen erantzunik jaso.

04.3.2

Tarteko fasea: adostasunak bilatzea

Tarteko fase hau martxotik apirilera bitartean egin da, eta helburu bikoitza izan du: diagnostikoaren eta ebaluazioaren lehen fasea osatzea, eta lan ildoak zehazten hastea II. Partaidetza Planerako proposamenak josteko. Faseak izaera kuantitatiboagoa izan du eta bi inkesta egin dira: bata, ikasle guztientzat; bestea, galdetegi ireki gisa, UPV/EHUko langile guztientzat (irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL).

1. UPV/EHUko ikasleen inkesta

Kontsulta kuantitatiboa egiteko, errolda galdetegi aukeratu da, eta bidali zaie UPV/EHUko matrikulaturiko ikasle guztiei, gradukoak, masterretakoak, doktorego eskolakoak eta esperientzia geletakoak, ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren bidez. Galdetegiak enpresa informatiko baten bidez irauli dira, eta posta elektronikoz bidali, esteka bat erantsita, Encuesta Fácil aplikazioa erabilita. Galdetegi hiru egunetan bidali zen (2024ko martxoaren 7an, martxoaren 25ean eta apirilaren 10ean), eta apirilaren 21ean itxi zen behin betiko, datuak aztertzeko.

Elkarrizketen eta eztabaida taldeen ereduari jarraituz, inkesta hiru bloketan planteatu da, lorturiko datuak hobeto aztertzea ahalbidetu duten kontrol galderez gain. Hasteko, galdera orokorren lehen blokea, helburu zuena jakitea ikasleek

unibertsitatearen jardueretan parte hartzen duten edo parte hartu duten. Bigarren galdera blokearen xedea zen ezagutzea ikasleek unibertsitatean duten partaidetzari buruz egiten duten balorazio orokorra, bai eta partaidetza errazten edo zailtzen duten faktoreena ere. Azkenik, proposamen bloke bat, erabilidena, hobekuntza proposamenak planteatzeko eta proposamen berriei buruz galdetzeko ez ezik, baita ikasleek amaierako fasean parte har dezaten eskatzeko ere, proposamen tailerren bidez. Inkesta bidali zaie graduko eta masterretako ikasle guztiei (45.000 baino gehiago), euskaraz eta gaztelaniaz. 2.225 pertsonak zabaldu dute inkesta (743 euskaraz eta 1.482 gaztelaniaz). Horietatik, 1.696 inguruk gutxienez galdera bati erantzun diote (504 euskaraz eta 1.192 gaztelaniaz), eta 787k lagunek osorik erantzun dute inkesta (194 euskaraz eta 593 gaztelaniaz).

Irakasle-ikertzaileen eta TEKAZEL langileen galdetegi. Ikasleen inkestaren kasuan bezala, galdetegi hau bidali zaie UPV/EHUko irakasle-ikertzaile, ikerketako pertsonal eta TEKAZEL langile guztiei. Bi hizkuntzatan ere bidali da (euskaraz eta gaztelaniaz), posta elektronikoz, esteka bat erantsita, Encuesta Fácil aplikazioaren bidez. Galdetegi bidali zen apirilaren 11n, eta apirilaren 21ean itxi zen, jasotako datuak aztertzeko.

Bi bloke handitan egituratu da, kontrol galderen blokeaz gain: lehen blokea, ikasleek unibertsitatean duten partaidetzaren errealitateari, mugei eta indarguneei buruzkoa; bigarrena, partaidetzan aurrera egiteko proposamenak lantzeari eta biltzeari buruzkoa. Bigarren multzo horrek arreta berezia eskaini dio diagnostiko fasean gehien errepikatu den aldagai mugatzaile eta kexetako bati buruzko proposamenak jasotzeari: hau da, nola hobetu saria, parte hartzen duten ikasleena ez ezik, baita bereziki partaidetza bultzatzen duten irakasleena eta administrazio eta zerbitzuetako langileena ere.

Inkesta bidali zaie 6.100 laguni, eta 826k ireki dute. Horietatik, 673 inguruk gutxienez galdera bati erantzun diote, eta 229k osorik erantzun dute inkesta (euskaraz eta gaztelaniaz).

04.3.3

Proposamen fasea: akordioak ixtea

Azkenik, akordioak ixteko proposamen fase batekin amaitu dugu I. Plana ebaluatzeko, diagnostikoa egiteko eta UPV/EHUko ikasleen II. Partaidetza Plana egiteko proposamenak garatzeko proiektua. Fase honen helburua izan da diagnostiko fasearen emaitzak partekatzea (irekiera fasea eta tarteko fasea) eta proposamen fasean hasitako lan ildoak definitzea (tarteko fasea eta itxiera fasea), akordioak eta ekintzak zehaztuta. Horretarako, bi dinamika handi garatu ditugu informazioa modu parte hartzailean biltzeko: Desioen Tenderetea eta proposamen tailerrak.

1. Dinamika parte-hartzailea: Desioen Tenderetea

Desioen Tenderetea izeneko dinamika bat dator ikerketa-ekintza arautzen duten printzipioekin. Beraz, ez da oinarritzen soilik informazioaren bilketan, eta komunitatea eraikitzen laguntzen duen ikasleen aktibazioa ere eragiten du.

Horrela, "Tenderete Pintxo-flexiboa" lelopean, Tenderetearen diseinuan parte hartu duten pertsonen dinamika bat garatu zuten 2024ko apirilaren 23an, Leioako Campuseko (Bizkaia) Mikel Laboa Plazan. Aurreko astean, dei egin zen dinamikan parte hartzera era masiboan, kartelen bidez eta Bizkaiko Campuseko fakultateetako informazio pantailen bidez. Ikertzaile taldearen hasierako asmoaz dinamika errepikatzea UPV/EHUko hiru campusetan, baina azkenean ez da posible izan, denbora mugengatik eta muga teknikoengatik. Hori ikusirik, ikasleen informazioa modu eraginkorrean biltzeko, hainbat proposamen tailer egin dira unibertsitate osoko ikasleekin.

Tenderetearen erdiko mahaian pintxoak eskaini ditugu, parte-hartzaileek horiek dastatu bitartean hitz egin eta gogoeta egin zezaten: nola hobetu partaidetza unibertsitatean. Haiekin hitz egin ondoren, unibertsitateko partaidetzaren inguruan dituzten emozioak eta esperientziak aztertzei aukera eman diguten mikro-elkarrizketen bidez, pertsona bakoitzak aukera izan du bere proposamenak planteatzeko eta Desioen Tenderetera gehitzeko, ikertzaile taldeak proposaturiko panelak betez.

2. Proposamen-tailerak

Amaitzeko, Desioen Tenderetea dinamikarekin batera, bi proposamen tailer egin dira ikasleekin, 2024ko apirilean. Lagina osatzeko eta aukeraturiko lagunak kontaktatzeko, ikasleentzako galdetegi erabili zen (ikus 3.2.1 atala), galdetegi horretan helbide elektronikoa eskatzen zitzaielako ikerketaren azken faseko tailerretan parte hartzeko eta ideiak trukatzeko interesa zutenei. Gainera, parte hartzera bultzatzeko eta tailerrean emandako denbora aitortzeko modu gisa, ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzak erabaki zuen aukerako kreditu bat aitortzea dinamikan parte hartuko zuten pertsona guztiei.

Azkenik, guztira 83 lagunek eman zuten baiezkoa (12 euskaraz eta 71 gaztelaniaz). Ikertzaile taldea harremanetan jarri zen parte hartzeko interesa agertu zuten pertsona guztiekin, eta bi tailer egin ahal izan ziren azkenean, 2024ko apirilaren 23an eta 30ean.

Tailerren dinamikak bi jarduera osagarri izan zituen, eta eztabaida taldeak hobeto dinamizatzeko aukera eman zuen horrek:

- Alde batetik, ikertzaile taldeak laburpen dokumentu bat egin zuen, ikasleei helarazteko tailerren helburua, ikerketaren testuinguru

orokorra (helburuak eta diseinu metodologikoa) eta irekiera eta tarteko faseetan eginiko diagnostikoaren bidez identifikaturiko partaidetzaren aldagai mugatzaile nagusiak.

Dokumentu horren xedea zen ikasleak diagnostikoan kokatzea eta ikasleen partaidetza hobetzeko gakoiei buruzko gogoeta piztea, aldagai bakoitzerako galdera zehatz bat helaraziz: nola hobetu dezakegu gai honetan? Esan bezala, helburua zen lortzea proposamen sorta bat eta banakako gogoeta bat, ideien inguruko eztabaida eta bateratze kolektiboa egin aurretik.

- Bestetik, bidalitako dokumentuaren gainean lan egin ondoren, bi eztabaida talde egin ziren, tailer edo lantalde gisa. Talde horietan eztabaidatu da partaidetza maila hobetzeaz, bai eta proposamenen bideragarritasunaz, aukerez eta mugez ere, dokumentu honetan jasotzen diren adostasunak eta akordioak gauzatzeko helburuaz.



$$\frac{\partial}{\partial x} (e^u) = 0$$

$$\frac{\partial u}{\partial x} = -\frac{1}{e} \frac{\partial P}{\partial x}$$

$$\left(\frac{\partial}{\partial x} \right) + u \frac{\partial}{\partial x} \left(\frac{\partial}{\partial x} \right)$$

05. DIAGNOSTIKOA

DIAGNOSTIKOA: UPV/EHUko IKASLEEN PARTAIDETZAREN ERREALITATEA

Proposamen tekniko eta metodologikoan planteatu genuen II. Partaidetza Planaren diseinua oinarritzea ikasleen premia erlatiboan diagnostikoan, unibertsitateko eragile guztien partaidetzaz, ondoren identifikatzeko ildo horretan sakontzea ahalbidetuko duten proposamenak. Beraz, diagnostiko hau hasteko abiapuntua izan da **ikasleen partaidetza oztopatzen duten aldagai nagusiak mugatzea.**

Oro har, nahiz eta unibertsitateko kide guztiak ados egon ikasleen partaidetza sustatzeak ikasleen gaitasunak eta pentsamendu kritikoa garatzen dituelako ideiarekin, elkarrizketetan aipaturiko faktore nagusietako bat izan da **unibertsitate eragile guztien partaidetza txikia.**

05.1 Partaidetzaren ikuspegi orokorra

Partaidetza txikian eragiten duten aldagaiak identifikatu nahi dituen planteamendu metodologikoaren arabera, hurbilketa kritiko batetik egingo da diagnostikoaren zatirik handiena. Helburua da arazoak identifikatzea. Ahulguneetan eta mehatxuetan oinarrituriko hurbilketa diagnostiko horren bidez, ardatz estrategiko batzuk zehaztu nahi dira, Ikasleen II. Partaidetza Plana bihurtuko dutenak presentzia eta agentzia aktibatzeako akuilu, partaidetzaren esparru orokorraren postulatuaren arabera.

05.1.1 Hobekuntzarako hurbilketa kritikoa

Horrenbestez, helburua da igarotzea erakundearen parte hartzeko eredu batetik **erakundearekin** parte hartzeko eredu batera; gonbidapenean oinarrituriko logika batetik **elkarlanean** oinarrituriko beste logika batera; ikaslea objektutzat hartzen duen eredutik subjektutzat hartzen duen beste eredu batera; informaziotik aktibaziora; eta, ezagutzen ez ezik, unibertsitate barruko nahiz kanpoko **aitortzan** ere oinarritzea, curriculum logika batetik, baina baita herritarren **konpromisotik** ere.


Beraz, helburu hori betetzeko, azterketa kritiko bat behar da, ahulguneak eta mehatxuak identifikatzeko argi eta garbi. Horixe da analisi kuantitatiboan (elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan oinarritua) egin den dinamika askoren zentzua. Era berean, lan kuantitatiboa saiatu da ere identifikatzen ikaslearen partaidetza zailtzen duten aldagai horiek.

05.1.2 Abiapuntu itxaropentsua

Hala ere, abiapuntu gisa, analisi kuantitatibo hau ahalegindu da ere partaidetzaren egoerari buruzko erradiografia bat egiten, ikasleei galdetuz haien inplikazio mailaz eta parte hartzen duen arloez. Era berean, saiatu gara identifikatzen, ikasleen hitzetatik abiatuta, partaidetzaren zentzuaren oinarrian dagoen iruditeria. Beraz, partaidetza zailtzen duten aldagaiak aztertzen hasi aurretik, komeni da arreta jartzea inkestek emandako informazio kuantitatiboan, agerian uzten dituztenak **partaidetza tasa handia, parte hartzeko moduen askotarikotasuna eta hurbilketa plural eta aberats bat partaidetzaren zentzura.**

Hala, analisi kualitatiboak adierazten du erantzun duten ikasle gehienek (1.642 guztira) noizbait parte hartu dutela unibertsitatean eginiko ekintzaren batean (855), parte hartu ez dutenekiko aldea oso handia ez izan arren (668). Alde horretatik, nabarmendu behar da auto-adskripzioko erantzun bat dela. Hau da, pertsona bakoitzak baiezkoa edo ezezkoa eman behar du, adibide zehatzetan oinarritu gabe. Horrek azalduko luke Ez daki/Ez du erantzun tasa handia.

Partaidetzaren ehunekoak eta erantzunen bolumena



05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

Ikasleei beren konpromiso mailaz galdetuta, baiezkoarekin erantzun dutenen artean, 168 ikaslek (ia % 20k) uste dute modu aktibo eta jarraituan parte hartzen dutela UPV/EHUren programa edo ekintzaren batean. Inkestak aukera ematen du identifikatzeko zer egitasmotan parte hartzen duten ikasleek. Taulan irakur daitezke ikasleen erantzun batzuk.

EHUKirola, EHUkultura kontzertuak, Ikertzaileen Europako Gaua, TANDEM hizkuntza programa / Doktorego Eskolak antolatzen dituen ikastaroak / Zientzia astea / Hitzaldiak / Tipi Tapa korrika / Ikasiker / Psikotxarla, psikozine, udaberriko lasterketa, ate-irekiak / Mendi erronka / Eskubaloia / Estresaren kudeaketa aktiboaren inguruko formakuntza Argazki ikastaroa / Tandem jarduera / Ehu udaberriko lasterketa / EHUkirola jarduera / Intercultural competences ikastaroa / The planet app eta udaberriko lasterketa / Kultura jarduerak eta hitzaldiak / Antzerkia / Ehu Orkestra Sinfonikoa / Ikusiker panelkidea / Berdinen Arteko Tutoretza / Bolei torneo / Ehukirolak, Buddy eta ate irekiak / Ángela Mallének antolatutako Literatura Sorkuntzako Laborategia / Ekintzaitza programa Ikaslagun / batxilergo jarduerak Ate irekiak jardunaldia, Eskolako Batzarra, hitzaldiak, lasterketak eta herri martxak, ehuKultura jarduerak / BAT programa / Ikasle Kontseilua eta AEGEE-Bilbo / Indartu programa / Running eskola / Ikasle Kontseiluaren prestakuntza jardunaldiak / Hitzaldiak, zineforum / Psikotxarla / Informazio azoka eta FLL / Kirol eskola / Hezkuntza Lankidetzak / ADUEE / Unibertsitate errugbia / Boleibol / Abesbatza / Ikaslagun / Kultura jarduerak eta ikasleen elkarteak / BUDDY programa, Ate Irekiak Jardunaldiak, ESN / Antzerkia (antzerki ikerketako gela) / Psikocheilu / Sormen Ola / SAP tailerrak / Ikasleen ordezkariak / Psikotxarlarak. Psikozinea. Zeinuen hizkuntza ikastaroa / Mentoring Asteazken kulturaletako hitzaldi zikloa ZTFn / BAT programa / Indartu / Running kluba / Formula Student Bizkaia / Antzerkia / Bioforo / Innoboat / Eskubaloia / Motostudent/ Bisky Team / Xake ikastaroa eta zibermaratoia / Ehurokestra / Enlight / Talentia Skills/ Erasmus / Tenisa / Errugbia / Psikotxarla / Doktorego programako jarduerak / Ikusiker programa / Tandem / Ikasle Kontseilua / Mendi Erronka (Eskalada eta trekking taldea / AUIT / Open Data Bizkaia programa / Simulog / Programazio lehiaketak (SWERC, Ada Byron, Codefight...)) / Geologia poeta, miope eta despistatuentzat / Psikozinea, psikontseilua, sexu aniztasuneko ikastaroa, esperimentuak...

Ikus daitezkeenez, erantzun horiek agerian uzten dute parte hartzeko modu eta aukera ugari, alternatiben kartografia bat osatzen dutenak ordezkariaren, lankidetzaren eta prestakuntzaren logikatik; planteatzen direnak ikasleak hartzaile eta eragile protagonista diren programen bidez; gonbidapen logiketan oinarritzen direnak, baina baita lankidetzak logiketan ere; eta ardatz dituztenak l. planean identifikaturiko alderdiak eta arloak.

Aldi berean, galdetegiak ikasleei eskatzen die beren hitzekin adierazteko zer esan nahi duen UPV/EHU parte hartzeak. Hitz taulak erakusten du ikasleen iruditerian dauden esanahien aniztasuna, kredituak lortzeari loturiko dimentsio praktikotik hasi eta bizipenekin eta unibertsitate bizitzarekin loturiko ikuspegi komunitarioago bateraino. Partaidetzaren zentzuaren ardatz nagusia harremana da, bizikidetzak. Era berean, begirada kaleidoskopiko bat suma daiteke, oinarritzen dena ikaskuntza prozesuan, curriculumaren hobekuntzan eta konpromiso profesional, sozial edo politikoan. Kritika edo erantzun eszeptikoetatik libre ez dagoen begirada.

Jendea ezagutzea / Aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea / prestakuntza / Erabakitzea / Pozgarria / Komunitatea egitea / Partekatzea / Aukera / Parte sentitzea / Kolektiboa Aldaketa / Aberastea / Hobekuntza eta laguntza / Talde sentimendua / Ondo pasatzea / Konpromisoa / Esperientzia / Gizarte praktika / Entzutea / Erabakitzea / Bizitza asko (adinekoek) / Esperientzia berriak / Ekarpina / Elkarlana / Ikastea / Klubak eta taldeak / Harrotasuna / Antolaketa / Integrazioa / Konponbidearen parteizatea / Gizarte harremanak / subjektu aktibo izatea / aldaketa eragilea / laguntza / inklusioa / ezagutza / denbora pasatzea / hazkundea / eragina / boluntariotza / ohorea / prestakuntza / ahalegina eta debora / gozatzea / ordezkariak eta ordezkariak izatea / bizitza soziokulturala / Bilakaera akademikoa / gozatzea / esperientzia / Lan handia, baina sozializazio handia / Hezkuntza publikoan laguntzea / bilerak Denbora galtzea / ez naiz parte sentitzen / ez nau motibatzen / kredituak lortzea / denbora falta / antolaketa txarra / bateraezintasuna / izapide bat / aparteko orduak / denbora kontsumoa / ziurgabetasuna / inkestakerantzutea / aspertzea / garrantzirik gabeko

05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

Partaidetza positiboki baloratzean komunitatearentzat zerk duen garrantzia ulertzeko, galdetegiak galdetzen dute hainbat adibideren inguruan, zer neurritaraino jotzen diren hainbat egitasmo parte hartzeko modu. Zehazki:

- Mugikortasun programa bat egitea (Erasmus+, Seneca, ikerketa egonaldiak, etab.).
- Boluntario izatea ikasleentzako programetan: Buddy, Berdinen arteko Tutoretza, Entzuteko Sarea, etab.
- Irakasleen ebaluazio inkestei erantzutea.
- Unibertsitateko hitzaldi eta hitzaldietara joatea.
- Hitzaldiak antolatzea edo antolatzen laguntzea unibertsitatean.
- Ikastaro, mintegi eta prestakuntza jardunaldietara joatea (uda ikastaroak, Zientzia Astea, etab.).
- Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza jardunaldiak antolatzea edo antolatzen laguntzea.
- Ekintzailatza egitasmoak egitea edo horietan laguntzea, enpresekin batera (unibertsitate-enpresa gelak, Entreprenari programak, Zitek, EHU-Inizia, etab.).
- Ikerketa jarduerak egitea edo horietan laguntzea, irakasle-ikertzaileekin batera (lankidetzak, ikerketa proiektuak, hezkuntza berrikuntzarako proiektuak, etab.).
- Ikasleen ordezkari izatea (ikasgelako ordezkariak, saileko kontseilua, klaustroa, ikasle kontseilua, etab.).
- Kirol jarduerak egitea (gimnasioa, Kirol Eguna, etab.).
- Kirol jarduerak antolatzea edo horiek diseinatzen laguntzea (Unibertsitate Liga, kirol taldeen eta klubuen prestakuntza, etab.).
- Unibertsitate elkarteetako edo ikasle sindikatu etako kide izatea.
- Unibertsitate elkarteak edo diziplinari loturiko elkarteak sortzea.
- Botoa ematea unibertsitate organoetako hauteskundeetan edo horietara aurkeztea.
- Boluntariotza eta ikaskuntza jarduerak egitea, GKEekin eta elkarteekin elkarlanean.
- Boluntariotza eta ikaskuntza jarduerak antolatzea edo horietan laguntzea, GKEekin eta elkarteekin elkarlanean.
- Unibertsitatearen kultura jardueretan parte hartzea edo boluntario izatea (lehiaketak, ate irekien jardunaldiak, Harrera Eguna, etab.).
- Unibertsitatearen kultura jarduerak antolatzea edo antolatzen laguntzea.

05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

Batez bestekoak aztertuz gero, ikus daiteke hurbilketa aktiboarekin zerikusia dutenak direla ikasleek unibertsitatean parte hartzearekin gehien identifikatzen dituzten ekintzak. Horrela, hobekien baloraturiko neurria da ikerketetan parte hartzea irakasleekin batera, 5,85eko batez bestekoarekin. Ondoren datoz, alde oso txikiaz, ikasleentzako boluntariora programei loturiko egitasmoak (7tik 5,6); hitzaldiak eta konferentziak antolatzea (7tik 5,78); ikastaroak eta mintegiak antolatzea (7tik 5,76); kultura jarduerak antolatzea (7tik 5,56); eta kirol jarduerak antolatzea edo horietan laguntzea (7tik 5,36). Bigarren egitasmo multzo batek zerikusia du ikasleen ordezkariarekin eta auto-antolakuntzarekin, eta hor batez bestekoa kokatzen da, 0-7 eskalan, 5,37/5,36 (elkarteak sortzea edo elkarteetako kide izatea, edo ikasleak ordezkatea, hurrenez hurren) eta 5,11 (hauteskundeetan botoa ematea) artean. Aitzitik, **ekimen pasiboagoak** edo agentzia maila txikiagokoak dira partaidetzarekin gutxien lotzen direnak. Adibidez: irakasleen balorazio inkestetan parte hartzea, mugikortasun programetan parte hartzea edo kirol jarduerak egitea.

05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

	1	2	3	4	5	6	7	Media
Boluntario izatea ikasleentzako programetan	3,03	3,15	4,41	10,34	17,40	22,32	39,34	5,60
Irakasleenebaluazio inkesteierantzutea	13,09	9,38	12,96	16,42	15,31	16,42	16,42	4,26
Unibertsitateko hitzaldi eta konferentzietara joatea	2,22	4,19	6,29	12,08	21,21	24,04	29,96	5,38
Hitzaldiak antolatzea edo antolatzen laguntzea unibertsitatean	3,60	2,36	4,10	7,95	12,42	23,11	46,46	5,78
Ikastaro, mintegi eta prestakuntza jardunaldietara joatea	3,71	3,46	5,93	9,89	19,04	24,35	33,62	5,45
Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza jardunaldiak antolatzea edo antolatzen	2,98	3,10	4,22	8,44	14,52	22,08	44,67	5,73
Ekintzaitza egitasmoak egitea edo horietan laguntzea, enprekin batera	3,96	3,45	4,73	10,47	18,14	24,90	34,36	5,48
Ikerketa jarduerak egitea edo horietan laguntzea, irakasle-ikertzaileekin batera	2,63	2,26	2,63	7,15	16,06	23,84	45,42	5,85
Ikasleen ordezkari izatea (ikasgelako ordezkariak, ikasle kontseiluak)	4,48	3,99	5,85	13,95	16,19	19,43	36,11	5,36
Kirol jarduerak egitea (gimnasioa, Kirol Eguna, etab.)	9,25	8,13	8,50	13,25	19,00	19,00	22,88	4,73
Kirol jarduerak antolatzea edo diseinatzen laguntzea	5,17	5,42	6,18	11,22	14,12	24,72	33,17	5,31
Unibertsitate elkarteetako edo ikasle sindikatuetako kide izatea	5,73	3,86	6,23	11,08	14,80	22,26	35,99	5,36
Unibertsitate elkarteak edo diziplinari loturiko elkarteak sortzea	5,75	3,80	6,21	10,77	16,35	21,80	35,61	5,37
Botoa ematea unibertsitate organoetako hauteskundeetan edo horietara aurkeztea	6,97	4,98	5,35	14,57	18,56	20,42	19,14	5,11
Boluntariotza eta ikaskuntza jarduerak egitea, GKEekin eta elkarteekin elkarlanean	8,34	6,57	7,96	14,54	17,32	21,24	24,02	4,86
Boluntariotza eta ikaskuntza jarduerak antolatzea edo horietan laguntzea, GKEekin eta elkarteekin elkarlanean	8,35	5,95	5,44	12,78	16,96	21,56	28,86	5,04
Unibertsitatearen kultura jardueretara joatea eta boluntario izatea	4,10	3,35	5,47	9,81	17,52	24,47	35,28	5,48
Unibertsitatearen kultura jarduerak antolatzea edo antolatzen laguntzea	4,38	3,63	4,38	8,88	16,63	22,63	39,50	5,56

05.2 Zailtasunei eskainitako begirada orokor bat:

Emandako datuak gorabehera, elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan oinarritutako hurbilketa kualitatiboan adostasuna dago ikasleek unibertsitatean duten parte hartze txikiari buruz. Ikuspegi hori bera dute, halaber, Espainiako eta Europako beste unibertsitate batzuetan. Laster ikusiko dugun bezala, oztopo formalak dauden arren (denborarekin lotuta), edo balorazio oztopoak (partaidetzaren irismenarekin lotuta), tartean diren eragile guztiek adierazi dute errealitate hori unibertsitateetako langileek oro har erakundearekin duten lotura ahularen isla dela. Beraz, ez da ikasleekin bakarrik lotuta dagoen gai bat:

“Esaten dugu ikasleen partaidetzak hobera egin behar duela eremu instituzionalean, etab. Hala ere, har ditzagun irakasleak erreferentzia gisa, baita Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak ere. [Gu] ez gaude hemen aldi baterako bakarrik, hemen gaude edo hemen geratzeaz gaude. Eta gure partaidetza batez beste lau, bost edo sei urte igaroko dituzten gazte batzuenarekin alderatzen badugu, analisia egiterakoan parametro horiek hartu beharko genituzke kontuan” (GD1).

Partaidetza txiki orokortua unibertsitatearen arazoa ez ezik, gizarte osoarena den egiturazko arazo eta arazo instituzional gisa hartuta, elkarrizketatutako pertsona batzuek diote Ikasleen I. Partaidetza Planean egindako diagnostikoak indarrean jarraitzen duela hamabi urte geroago. Horren arabera, lau arrazoi nagusi zeuden UPV/EHUren jardueretan parte ez hartzeko: (a) programatutako jardueren interes eta erakargarritasun txikia; (b) informazio falta; (c) denbora falta eta (d) parte hartzeko motibaziorik eza. 2024an, aldagai horiek ere hor izan dira, egindako elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan, ñabardura batzuekin bada ere.


Zehazki, 2024an egindako analisi kuantitatiboan, ikasleei eta irakasleei zenbait aldagairi buruz galdetu zaie, eta partaideei eskatu zaie 1etik 7ra bitarteko eskala batean kokatzeko, 1 inolako garrantzirik gabea eta 7 guztiz garrantzitsua izanik.

2024an honako aldagai hauek identifikatu dira:

- Betebehar akademikoak (denbora falta, derrigorrezko bertaratzea, lan karga, ordutegiaren bateraezintasuna, etab.).
- Motibazio txikia (ekintza edo jarduerengatik interes falta, jarduerak ez dute loturarik ikasleen beharrekin eta interesekin, etab.).
- Informazio gutxi edo informazioa ez da iristen (gaininformazioa, kanal ez eraginkorrak, etab.).
- Prestakuntza falta (jarduera batzuetan nola parte hartu ez jakitea, ezagutza nahikorik ez izatea, etab.).
- UPV/EHU norberarekin zerikusia ez duen zerbait bezala sentitzea (desafekzioa, erakundearekiko urruntasun sentazioa, etab.).
- Partaidetzaren eragin txikia (garrantzi txikia erabakietan, esku hartzeko ezintasuna, erantzunik eza erakundearen aldetik, etab.).
- Kredituez gain, ez dago aintzatesteko mekanismorik (ziurtagiriak, sariak, curriculumaren aintzatespena, etab.).
- Ekimenen izaera pasiboa (emanda etortzen diren ekintzak, ekimenak elkarrekin eraiki ezin izatea, erabakiak hartu ezin izatea, etab.).

Ondoko grafikoa ikus daitekeenez, ikasleen ustez, aldagai garrantzitsuena, alde handiarekin, 7tik 6,84ko batez bestekoarekin, **betebehar akademikoei** dagokiena da, eta ondoren, 5,84ko batez bestekoarekin, **kide izatearen sentimendu falta** eta 5,29 punturekin, **motibazio txikia**.

Parte hartzeko zailtasunak



05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

Aurrerago, ikasleen testigantzetan ikusiko dugunez, aldagai horiek elkarren osagarri dira. Hau da, betebeharrak akademikoak, denbora faltak edo ikasketen lehentasunak bat egiten dute unibertsitate bizitzaren ikuspegi instrumentalarekin, eta horrek parte hartzeko motibazio txikia dakar.

Aldagai bakoitzari **garrantzi** handiena emateko orduan ikasleen erantzunak non kontzentratzen diren aztertuz gero (aldagai bakoitzari erantzuten dioten ehunekoak batuta eta aldagai bakoitzari 5etik 7rako puntuazioa emanda), agerian geratzen da ikasleen % 80k betebeharrak akademikoak ematen diela garrantzia, % 72k motibazio txikiari, % 63k informazio eskasari, % 56k partaidetzaren eragin txikiari eta % 54k aitortzearen ezari.

Taula: Zergatik ez dute parte hartzen ikasleetako batzuek UPV/EHUk programaturiko jarduerak eta programetan?

1 = inolako garrantzirik gabea 7 = guztiz garrantzitsua	1	2	3	4	5	6	7
Betebeharrak akademikoak	3%	3%	5%	9%	18%	24%	40%
Motibazio txikia	2%	4%	7%	14%	20%	25%	27%
Informazio gutxi	4%	7%	10%	15%	21%	22%	21%
Prestakuntzarik eza	8%	12%	14%	20%	17%	16%	13%
UPV/EHU norberarekin zerikusia ez duen zerbitzu bezala	6%	10%	13%	17%	19%	13%	15%
Partaidetzaren eragin txikia	7%	10%	11%	15%	18%	19%	20%
Aintzatespena	7%	9%	13%	17%	16%	19%	19%
Izaera pasiboa	8%	13%	18%	22%	17%	10%	11%

Bestalde, irakasleen eta TEKAZEL langileen begiradak osatu egiten du argazki hori. Zehazki, eta aldagai zehatzen inguruan galdetu ez bazaie ere, erantzun orokorra da ikasleek oso gutxi parte hartzen dutela unibertsitatean, eta kasu askotan okerrera egin duela COVID-19aren pandemiaren ondoren, lotura komunitarioak indartzen saiatzen ziren espazioak eta jarduerak desagertu direlako. Egia da fakultate batzuek, batez ere txikienek, ikasleen presentzia egunerokoagoa eta sendoagoa sumatu dutela zenbait ekintza eta dinamikan, batez ere etorkizun profesionalarekin zerikusia dutenetan: ekintzailatza, laneratzea eta prestakuntza.

Azterketa kuantitatibo horrek unibertsitate komunitateko ordezkarien iritziz ikasleen parte hartze txikia azaltzen duten elementu batzuen argazki orokorra erakusten du.

Hala ere, datu kuantitatiboez haratago, bada faktore bat egindako elkarrizketa guztietan errepikatu dena eta detektatutako aldagai guztiak eta egindako diagnostikoa egituratzen dituen kausa nagusietako bat ere badena. Desafekzioaz ari gara, hau da, unibertsitatearekiko atxikimendurik ezaz edo haren kide izatearen sentimendurik ezaz, eta hori izan da diagnostikoko gainerako elementuak indartzeko gehien eragin duen aldagaietako bat.

05.2.1

Partaidetzaren arazo handia: desfekzioa

Oro har, unibertsitateko komunitatea, ez bakarrik gure unibertsitatean, baita besteetan ere, ahulduta dago. Ahulezia horrek berekin dakar kide izatearen sentimendu gero eta apalagoa, baita unibertsitateen presentzia sozial gero eta txikiagoa ere bizitza soziokultural eta ekonomiko gero eta konplexuago batean.

Ildo horretan, elkarrizketatutako pertsona guztiek gero eta ikuspegi utilitaristagoa dute unibertsitatean betetzen duten zereginaren inguruan. Irakasleen kasuan, batzuek uko egiten diote abian jartzen diren partaidetzazko dinamiketan inplikatzeari, eta dagokien irakaskuntza lanean soilik jartzen dute arreta, eta, batez ere, ikerketa guztietan adierazten den bezala, ikerkuntzan zentratzen dira (EO1). Irakasleen kasuan, lehen aurkeztutako begirada positiboa gorabehera, unibertsitatea tituluak eta ezagutzak ematen dituen eta eskolak jasotzeko, ebaluazioak egiteko eta titulu bat lortzeko baino balio ez duen leku gisa ikusteko joera gero eta zabalagoa da (GD1; GD2).

Ikuspegi hori indartu egiten da, gainera, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL langileak gero eta gehiago kezkatzen dituen dinamika batzuen bidez, hala nola ikasleak gero eta presentzia fisiko txikiagoa izatea campusean. Hala, honako hau ohartarazten da: "Ikasleak ez dira eskoletara joaten, eta askotan ez dira beraien artean erlazionatzen." (GP6); "Fakultatera aurrez aurre joatea bigarren mailako zerbait da ikasleentzat (...) irakaskuntza presentziala desagertzen ari da aurretiko hitzorduen, online tutoretzen eta egunerokoa bertaratu gabe eta parte hartu gabe ebaluatzea ahalbidetzen duten araudien ondorioz" (GP7). Dinamika horiek gero eta ohikoagoak dira unibertsitatean, eta lotura komunitarioak eta sozialak pitzatzen eta ahultzen dituzte.

Horren erakusle, ikasleek atxikimendurik ezaren eta mesfidantza sentimenduen gorakada larriaz ohartarazi dute. Logika hori ez dagokio unibertsitateari bakarrik, eta nahi pertsonalen eta ekintza instituzionalen arteko distantzia konfrontazio gisa interpretatzen duten irismen handiagoko joera sozialetan ikusten da. Hala, unibertsitatearen kasuan, ikasle batzuek honako hau adierazi dute: "Parte hartzea zailtzen duen faktore nagusietako bat da

UPV/EHU ez dugula sentitzen gu parte izan gaitzkeen zerbait bezala, eta, kasu batzuetan, 'etsai' gisa ikustera ere iristen gara" (C1). Beste ikasle batek gai horretan sakondu du. Haren arabera, esperientzia pertsonal negatiboek, hezkuntzaren ikuspegi individualista eta instrumentalari batuta, ondorio kaltegarriak eragin ditzakete: "Jende askok nolabaiteko 'gaitzespena' eta atxikimendurik eza sentitzen du erakundearekiko. Ikusten dut irakasle batekin esperientzia txar bat izan ostean, UPV/EHUrekiko gaitzespena sentitzen dela, nahiz eta ez izan zuzenean erakundearen errua, baizik eta X irakaslearena" (C2).

Aldi berean, ikuspegi bateratu eta komunitariorik ez izateak areagotu egiten du ikasleen eta irakasleen inplikaziorik eza. Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen da lan egitea kidetasun sentimendua eta publiko denarekiko kontzientzia sentimendua hobetzeko, eta unibertsitatea komunitatean aintzatespena duen proiektu partekatu baterako espazio partekatu gisa ikusteko. Aurreko testigantza idatzi duen pertsonak arazo horren ondorioak laburbiltzen dituen begirada bat eman du: "(Arazorik handiena) irakasleen inplikazio eta ordezkaritza falta da; ikasle asko etorri, ikasi eta joan egiten dira, eta halaxe egiten dute irakasle askok, etorri, kobratu eta joan, eta horrek, neurri batean, sentimendu hori susta dezake" (C2). Elementu hori, azkenik, logika individualista batekin lotzen da: "Ingurunea individualista da, ez oso kolektiboa, lehiakorra, eta ez zaio laguntzen aurrera egiteko oztopoak dituenari, hura gehiago baztertzen dute, bai ikasleek, bai irakasleek".

Ikasleen beste testigantzetako batetan azaltzen da nola erlazionatzen diren pieza horiek (desfektzioa eta urruntasuna), eta arreta ikasleek izan dezaketen eta izan behar duten funtsezko rolean jartzen du: "UPV/EHU urrun sentitzea. Askok eskatzen dute irakasleek baina haien arteko konektagarritasuna oso eskasa da. Beraiek bakarrik arduratzen dira beren ikasgaiaz, baina besteaz inolako informaziorik ez dute, ez beste irakasgaiez, ezta gutaz ere. Gu, ikasleok, nekatuta ateratzen gara klasetik hainbat ordu jesarrita egon eta gero, eta horregatik energia gutxi daukagu berriz ere ikastetxean jarraitzeko eta bertan parte hartzeko boluntarioki. Jada ikasten den bakarra da irakasgaia gailentzea, eta besteak, garrantzia galtzen du denborarekin".

05.3

Ikasleen parte hartzea mugatzen duten aldagaiak, unibertsitateko komunitatearen arabera

Ikuspegi partekatu eta komunitarioa ahulduta duen unibertsitateko komunitate baten esparruan, ikasleen partaidetza mugatzen duten hamar faktore identifikatu ditugu. Hurrengo lerroetan faktore horietako bakoitza aurkeztuko dugu, elkarrizketatuen ahotik (irakasle-ikertzaileak, organo akademikoetako kideak eta ikasleak). Argazki hori osatzeko, TEKAZEL langileei irakasle-ikertzaileei egindako galdetegian lortutako informazioa erabili da.

05.3.1

Testuinguru aldaketa

Azken hamabi urteetan, Ikasleen I. Partaidetza Plana onartu zenetik, gauza asko aldatu dira. Baina inflexio puntu bat ezarri behar bada, ez bakarrik partaidetzari dagokionez, baizik eta bizitza sozialari eta unibertsitate bizitzari dagokienez, puntu hori COVID-19aren pandemia litzateke (EO2).

Pandemiak eragindako hondamenak agerikoak izan dira eta hala izaten jarraitzen dute, maila askotan gainera: lan egiteko moduan, ikasteko eta harremanak izateko moduan, baina baita gazteen eta nerabeen ongizateari dagokionez ere, haien trantsizioko bizi etaparen berezitasunak direla eta. Ildo horretan, eta hainbat azterlanek erakutsi dutenez, COVID-19aren ondorioek areagotu egin dituzte gazte askok lehendik pairatzen zituzten kalteberatasun material eta emozionaleko egoera batzuk, eta, besteak beste, bakardade sentazioa areagotu dute. Bakardade horri zuzenean eragiten diote individualismo gero eta handiagoak, loturen likideziak, ziurgabetasunak eta hiperkonektibitate beharrak komunitatearen deskonexioaren aurrean (Viñas et. al. 2022: 83).

Oro har, elkarrizketatutako irakasleek aipatu dute zailtasunak dituzten ikasleen “hauskortasuna eta infantilizazioa” areagotzen ari dela (EE1), eta ikasle horiek “frakaso beldurrarekin paralizatuta bezala” daudela (GD2); egoera horren ondorioz, unibertsitatea orain arte nahiko arrotzak zitzaizkion arazoei nola aurre egin ikasi beharrean da, edo, bestela esanda, unibertsitate egiturarentzat arrotzak ziren egoerei. Horrela, eta TEKAZEL langileen eta irakasle-

ikertzaileen galdetegietan jasotzen den bezala, “azken urteotan askoz ere pasiboagoak dira, baina aldi berean exijenteagoak” (CP1).

Diagnostikoa, beraz, argia da: “Ahulezia badago, emozio negatiboak kudeatzeko zailtasunak, gatazkak konpontzeko, egoera latzen aurrean arduraz jokatzeko”, eta horren aurrean, unibertsitateak prestakuntza behar du: “Ikasi eta formatu behar den bezala” (EO6). Ildo horretan, aipatzen da ikasleen arteko gatazkak gero eta ohikoagoak eta agerikoagoak direla; eta gatazka horiek areagotu egiten dira sare sozialen erabileraren ondorioz. Dena den, gatazka horiek konpontzeko laguntza eskaerak ere gero eta ohikoagoak dira. Hala, ikasleei gatazka horiei heltzen eta haien kudeatzen ikasten lagunduko dieten tresnak eskaintzeko premia identifikatu da, bizikidetzarako atsegina izango den unibertsitateko ingurune bat eraikitzeko. Eta funtsezko elementuetako bat, nolaez, ziurgabetasuna da. Horrek geldiarazi egiten ditu ikasleetako asko, eta arretaren erdigunea kolektiboa den horretatik urruntzen du: “Nire ustez, gazteen artean motibazio faltarekin loturiko arazo orokor bat dago, etorkizun zalantzarri eta ustez negatibo bat baitugu aurrean. Ondorioz, pertsonak orainean zentratzen dira, nahiko modu indibidualistan” (C3).

Horri galdetegietan TEKAZEL langileek eta irakasle-ikertzaileek aipaturiko beste arazo bat gehitu behar zaio: erakundearen eta ikasleen arteko ustezko bezero harremana edo harreman klientelista. Hala, lekukotzetako batek dioenez, “Ikasleek ez dute barneratzen beraiek unibertsitatearen parte direla eta zerbitzu baten erabiltzaile gisa ikusten dute bere burua” (CP5).

Lan ildo nagusiak:

- Elkarbizitza batzordeak (ikasleak, irakasleak eta AZPko langileak: hausnarketarako esparru bezala eta sortzen diren gatazkak kudeatzeko esparru).
- Mediazioan formazioa eta tresnak.

05.3.2

Betebehar akademikoak eta kontziliaziorako zailtasunak

Datu kuantitatiboek adierazi dutenez, ikasleek unibertsitatean antolatzen diren ekintzetan eta jardueretan partaidetza txikia izateko arrazoi nagusietako bat, zalantzarik gabe, betebehar akademikoak dira, oro har, eta gazteek betebehar horiek beren lan bizitzarekin, bizitza sozialarekin eta familiakoarekin uztartzeko dituzten zailtasunak.

I. Partaidetza Planak gradu berriak eta EUE ezartzearekin lotutako denbora falta eta ebaluazio jarraituaren nagusitasuna aipatzen zituen ikasleek curriculumetik kanpoko unibertsitate jardueretan partaidetza txikia edo partaidetzarik ez izatea azaltzeko faktore nagusietako bat gisa. Aldagai hori behin eta berriz atera da egindako elkarrizketa gehienetan eta jasotako testigantzetan, eta zehatz-mehatz eskolen ordutegiak eta partaidetzakoak bateragarri egiteko ezintasunean islatzen da; izan ere, "hainbat eskola ordu dituzte, hainbeste praktika, kontziliatzeko hainbeste premia, ezen egiaz, denborak ez diela ematen ikasleei" (EE1). Arazoaren izaera poliedrikoari buruzko galdetegiko testigantza batek modu nahiko grafikoa azaltzen du: "Denbora falta da arazo nagusia. Ikasturtearen hasieran oraindik ere posible izaten da, baina ikasturte erditik amaierara irakasgai guztietan egin behar dira amaierako lanak, eta tartean ere entrega ugari izaten dira. Horri gehitu behar zaio eskolen antolakuntza, eguna erditik ebakitzen baitizute: eskola ordu baten ondoren, batzuetan 4 ordu itxaron behar dira hurrengorako. Gainera, denbora eskaini behar badiet borondatezko jardueri, lo egiteko astirik ere ez dut" (C4). Gauza bera hautematen dute TEKAZEL langileek eta irakasle-ikertzaileek: "Gaur egungo irakaskuntza estiloa dela eta, irakasgai askotan talde lanak bidaltzen dira eta horrek haien lan karga handitu edo pilatu egiten du" (CP4).

Ildo horretan, eta gaur egungo gizarteetako gazteen bizimoduaren ezaugarri den erabateko ziurgabetasuna eta krisi multidimentsionalaren ondoriozko prekarietatea dela eta, gazteen premiak, interesak eta haien bizitzaren antolamenduak ezaugarri bereziak ditu. Presaren eta bertigoaren gizartea da nagusi, eta horri geroago aztertuko ditugun beste faktore batzuk gehitzen zaizkio, hala nola aintzatespena. Bertigoaren mundu honetan, kostua-onura kalkulatu badugu, parte hartzea ez da errentagarria. Aurreko iruzkinean ikusi dugu partaidetza "denbora inbertitze" (C4) gisa definitzen zela. Beste testigantza batzuek logika hori azpimarratzen dute: "Arazoa betebehar akademikoak dira, baita aintzatespen mekanismoen falta ere. Askotan ez du merezi zerbaiti denbora eta energia eskaintzea gero jasotzen dugun 'sarirako'. Berez nahikoa lan dugu gure ikasketekin, hau da, eskola orduekin gehi etxeko lanekin, bizitza pertsonala, etxea, erosketak, bizitza soziala, intimitatea, planak, eskolaz kanpoko jarduerak... Ez dugu minutu bat bera ere libre, ezta minutu bat ere 'aspertzeko'" (C5).

Horregatik, ikasleek eskatzen dute unibertsitateko ordutegiak bateragarriak izan daitezela goizeko edo

arratsaldeko lan partzialekin, eta horrek zaildu egiten du bai curriculumetik kanpoko partaidetza bera, bai partaidetzarako ordutegiak egokitzeko aukera. Hala eta guztiz ere, arazo paraleloak ere badaude, honako testigantza honetan ikus daitekeenez: "Ez badituzu gauzak eskola orduetan sartzen, ez dago modurik (...) beteta daude, guk nahi izango genuke asteazkenero 12etatik aurrera klaseak ez izatea, baina hori egiten badugu, hankaz gora jartzen zaigu ordutegia eta orduan ez daukagu aukerarik. Kentzen baditugu ordu horiek non sartzen ditugu? Arratsaldean etorri beharko lirakeke klasera eta ez dute nahi, blokeak gero eta gehiago estimatzen dituzte: goizez edo arratsaldez etortzea, gero alde egiteko" (EO6).

Egia esan, fakultate eta eskola batzuek hainbat estrategia hartu dituzte, hala nola hilean egun bat eta astean tarte bat jarduera osagarriak sustatzeko eta horietan parte hartzeko erabiltzea. Itxura guztien arabera, neurri horiek harrera desberdina dute UPV/EHUko kideen artean. Batzuen ustez neurri horiek ikastegi guztietan ezartzeak berekin ekarriko luke ikasleek egin izan dituzten beste eskakizun batzuei uko egitea; adibidez, ordutegiak antolatzea beren ikasketak bizitzako beste alderdi batzuekin bateragarri egiteko (zaintzak, aisialdia, laneko konpromisoak eta abar), baita blokeen arabera antolatzea ere (goizekoa edo arratsaldekoa).

Era berean, prekarietatea ere indar handiarekin agertzen da. Prekarietatea ekonomikoa, mentala eta lanekoa da, eta ikasleei eragiteaz gain, haien familiei ere eragiten die, eta bizitzari eusteko behar diren oinarri materialak urratzen ditu —baita unibertsitateko bizitzari eta partaidetzakoari ere—. Izan ere, "lan egiten duten ikasleen portzentajea handiagoa dela uste dut eta denbora aldetik zailtasunak dituzte. Alde egin behar dute lan egin behar dutelako edo beste ardura batzuk dituztelako" (EO5). Ikus dezakegunez, unibertsitateko hezkuntza eta lan mundua uztartzen dituzten ikasleak, guztira, duela urte batzuk baino gehiago dira, eta horrek ere kontziliatzeko zailtasun handiagoak ekartzen ditu. Datuek ere indartu egiten dute ideia hori. Izan ere, EINen 2021eko datuen arabera, gazteen % 32,5ek lan egiten du ikasketak egiten ari den bitartean, eta gehiago dira emakumeak gizonak baino (% 40,8). Galdetegietan parte hartu duen ikasleetako baten testigantzak honela dio: "Nire kasuan, ikasteaz gain 'lan' egiten dut, eta horregatik ezin izaten dut jarduera horietara joan. Gainera, jarduera horietara joateak geuretzat garrantzitsuak diren beste gauza batzuk alde batera utzi behar izatea ekarriko luke" (C6).

Horrekin lotuta, ez dugu ahaztu behar ikasleek unibertsitatean (ez) parte hartzea ez dagoela soilik parte hartzeko borondatearen mende, baizik eta beti estalita ez dauden aukera material eta sinbolikoen mende ere. Beraz, parte hartzean eta ez parte hartzean gizarte klaseak, generoak eta beste menderatze eta pribilegio ardatz batzuek ere eragiten dute; izan ere, "ikasleen artean profil asko daude, baita aukera eta oztopo desberdinak ere" (EE2).

05. Diagnostikoa: UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren errealitatea

Galdetegian parte hartu duen ikasle batek honela dio: "Nire kasuan, interesa izango banu ere, ezinezkoa litzateke (parte hartzea), irisgarritasunik ezagatik. Gorra naiz, eta jarduerak ez dute interpretaziorik, ezta zuzeneko azpigitulaziorik ere" (C7). Izan ere, aurrerapauso handiak egin diren arren, baliabide mugatuak eragotzi egiten dute irisgarritasuna unibertetsala izatea.

Lan ildo nagusiak:

- Parte hartzeko zerrenda zuri bat pentsatzeko aukera (ez dago adostasunik ildo horretan asteazkenetako egungo proposamenarekin, baina beste batzuk azter litezke).
- Partaidetza eta curriculum hainbat modutan lotzeko aukera (irakasgaien barruan jarduerak sartzea; curriculumari erantsitako aintzatespena mikro-kredentzialen, diplomen, aipamenen eta abarren bidez).
- Partaidetza birtualerako espazioak.

05.3.3

Parte hartzeko motibazio txikia

Diagnostiko orokorgisa, elkarrizketatutako pertsonen eta galdetegiko galdera irekiei erantzun dieten pertsonen diotenez, UPV/EHUK aukera asko eta askotarikoak eskaintzen ditu ikasleen partaidetza sustatzeko, baina eskaintzak ez du lortzen haiengana iristea, ezta haiek motibatzea edo parte hartzera mobilizatzea ere. Hori agerian geratzen da jarraian datozen irakasleen eta ikasleen lekukotzetan.

“Nire sentsazioa da ikasleak ez daudela oso motibatuta [...] agian ordutegiaren bateraezintasunagatik, logikoa denez, eskoletara joatea lehenesten baitute, hori baita lehentasuna haientzat. Orduan, partaidetzari buruzko gai guztiak bigarren maila batean geratzen dira, eta, beraz, hori bultzatzea ere zailagoa da, ez baitute ikusten lehentasun gisa” (EO1).

Horrela ikusten dute ikasleek ere: “Nire ustez, (aldagai) garrantzitsuena motibaziorik eza da. UPV/EHUn alderdi akademikoa baino ez da ikusten (ingeniaritzako nire ingurunean behintzat), ez da espero akademikotik harago ezer gehiago eskaintzea, eta beraz, akademikotik harago dauden jarduerak unibertsitatetik kanpo bilatzen dira. Ez da nire kasua, baina bai sentitu dudana” (C8).

Arestian esan bezala, ikaslearen profila aldatu egin da, prekarizazioak gora egin duelako eta unibertsitatetik kanpo erantzukizunak eta lana eta familia uztartzeko beharrak gora egin duelako, baina baita kidetasun sentimendua falta delako ere, “ikaslea orain dator, datorren horretara, gero badauzka kanpoan bere istorioak eta bueno, ez daukate motibazio berezirik parte hartzeko; igual ere ez zaielako ematen behar beste parte hartzeko, baina hor badago aldaketa bat” (EO3).

Lehenik eta behin, elkarrizketatuek planteatzen dute gerta litekeela dagoen eskaintza ez izatea ikasleen interesekoa. Gogoeta hori zuzenean dago lotuta erakundeak eta bertako eragileek ikasleen interesei eta motibazioei buruz izango luketen ezagutza eskasarekin. Hala, honako hau esaten digute: “Agian ez ditugu antolatzen beraien gustukoak diren jarduerak” (EO2) eta “gure eskaintzak ez du zerikusirik beraien interesekin”. Erabiltzen zuten hitza [ikasleek] zen: “Hau oso instituzionala da (...) aspergarria, beren bizitzarekin ez du zerikusirik, orduan zertarako parte hartu?” (EE3). Ildo horretan, belaunaldi arrakala bat identifikatu da erakundearen eta ikasleen artean, eta, beraz, arrakala bat diseinatzeko eta proposatzen duenaren eta kontsumitzen eta jasotzen duenaren artean, eta horrek ondorio mugatzaileak ditu. Ildo horretan, harrigarria da ikerketa honetako ekimenetako batek, “pintxo-flexivo” delakoak (ikaslea pintxo batera gonbidatzea taldean ikasleen partaidetza handitzeko estrategia posiblei buruz hausnartzeko aitzakia gisa), balorazio positiboak jaso zituela partaide gehienek aldetik. Dinamika malgu eta erakargarritzat jotzen da. Ez du konpromiso handirik eskatzen eta gogoeta eta alderdi ludikoa uztartzeko

aukera ematen du. Jarduera gauzatzeko espazioa campusetik kanpo eta aisialdia guneetan izateak ere balorazio positiboak jaso du.

Hori oso lotuta dago ingurune guztietako partaidetzaren funtsezko elementu batekin. Hain zuzen, partaidetzak oinarri izatea haien interesen ezagutza eta aintzatespena. Eta bakoitzaren abiapuntutik hasten den (“Zertan da nirea?” horretatik) ezagutza hori aintzat hartuta jardun behar da: “Behar dituzten espazioak eta baliabideak ematen, kanpoko jendea ere ekartzen” (EO6). Funtsean, “Guk sortzen ditugu gauzak interesgarriak iruditzen zaizkigunak, interesgarriak direlako, baina bat datoz beraien interesekin? Batzuetan arazoa formulazioan dago. Haiek badituzte kexak, baina galdetu behar diegu” (GD2).

Hala ere, ikasleen artean kultura parte hartzailea ere falta da, ez dutelako interesik eta ez dutelako parte hartzeko premiarik ikusten; beraz, “konpromiso batzuk dituzte eta ez dute gehiagorik nahi; ez dute bizitza unibertsitarioaren txip hori, ez dago grina handirik horretarako” (EO5). Ez dago unibertsitatean parte hartzeko kulturarik, eta hori, egiturazko arazo bat izateaz gain, nork bere burua ikasle roletik haratago kokatzeko ezintasunaren ondorio izan daiteke; hau da, nork bere burua erabakitze gaitasuna duen eragile aktibo gisa ikusteko zailtasunaren ondorio, orain arte unibertsitatearengandik eskolak, jakintzak eta tituluak jasotzen dituzten subjektu moduan ikusi izan baitira.

Hala, irakasleek, oro har, muga bat dagoela aipatzen dute, honakoarekin lotuta: “Guk ematen diegun rolaekin, ikasgelako une horretara oso mugatuta baitago, eta une hori oso garrantzitsua da, baina unibertsitatea ikasgelaz haratago dagoen zerbait bezala ulertzen badugu, horrek asko mugatzen ditu, eta horixe da ikasleentako askoren autopertzepzioa” (EE2). Ikasleen iritziak ildo beretik doaz: “Gakoa motibazio eskasa da; izan ere, pertsona askok ez dute karrerak ematen dien alderdi akademikotik haratago joan nahi, ikasi eta azterketak gainditzea dute helburu bakarra, ez dituzte jasotako ezagutzak benetako proiektuetan erabili nahi” (C9).

Lan ildo nagusiak:

- Ikasleak eta haien interesak ezagutzea (galdetegiak, ekimenak eta ekintzak elkarrekin eraikitzea haien interesen arabera, etab.)
- Ikasleen behatokia (ikasleen eta gazteen beharrei buruzko ezagutza eta ikerketak sustatzeko: osasun mentala, partaidetza, lan merkatua, etab.)
- Ikasgela abiapuntu gisa: partaidetza curriculumean sartzea

05.3.4 Erakundeari buruzko prestakuntza eta ezagutza falta

Partaidetza mugatzen duten faktoreen artean beste bat identifikatu da eta zerikusia du honekin loturiko ideiarekin: “Ba al dut egitekorik nik hor? Ez dut jakingo zer esan, latsa emango dit hitz egiteak, ez naiz ondo egiteko gai ikusten, irakaslez inguratuta...” (EE2). Horiek dira zenbait ikaslek unibertsitatean parte hartzeari buruz hitz egiten zaienean izan ditzaketen ideiak. Unibertsitate kulturaren gabezia eta erakundeak funtzionatzen duen moduari buruzko jakintza faltaz ari gara, horregatik ez baita ulertzen unibertsitate gobernantza: “Ez dakite bereizten errektorea eta dekanoa; ez dakite bereizten ikastegia eta unibertsitatea; ideiarik ez parte hartze bideei buruz: Ikasle Kontseilua zer den, zer egiten duen... deprimentea da alde horretatik” (EE3), eta bi eragileek dute horren gaineko erantzukizuna.

Alde batetik, ikasleen zati batek ez luke interesik izango non dagoen eta zergatik dagoen jakiteko; interes falta hori lotuta dago desafekzio politiko orokortuarekin eta publiko denari buruzko kontzientzia faltarekin, ondorioz, unibertsitatearekiko jarrera bezero bat izatearena da, eta horrek ere mugatu eta zaildu egiten ditu partaidetzarako mekanismoak. Bestetik, erakundeak prestakuntzarik eskaintzen ez duela eta egitura oso zurrunda duela aipatzen da, ez baitu mekanismo eraginkorrik ikasleen artean partaidetza kultura sustatzeko. Galdetegian jasotako testigantzetako batek gai horretan sakontzen du: “Ikasleen eta erakundearen arteko distantzia da gakoa. Erakundeko pertsonak ezagutzeko eta haiengana hurbiltzeko zailtasuna eta markatutako hierarkia. Lotzen gaituzten zubiak ez ezagutzea” (C11). Ideia horrek lotura zuzena du erakundearen kodeen barruan mugitzeak dakartzan zailtasunekin, egiteko moduekin eta “prozesu eta bilera zurrunekin, ordutegietara, hizkuntzetara, kodeetara, denetara gutxi egokituta” (EE2); izan ere, “bilera denak izaten direlako lan orduetan, begiratu gabe ikasleen ordutegiak eta gero edukiak, dinamikak... gu ohituta gaude ikuspegi burokratiko horretatik lan egiten, baina haien zat espantosoak dira” (EO3).

Beraz, ikasleek laguntza behar dute, batez ere beren ibilbidearen lehen urteetan, erakundea eta bere funtzionamendua ezagutu ahal izateko; laguntza horrek gutxienez bi adar ditu. Lehen, unibertsitatearen barruan zer eskubide eta aukera dituzten ikasi eta jakitea, eta eskubide eta aukera horiek baliatzeak duen garrantzia ulertzea: “Ikasle gisa parte hartzeko zein espazio ditut, zertarako parte hartu (...) zein jarduera egin ditzakedan eta zeintzuk ez, zer diru laguntza jaso dezakedan eta zein ez” (EO4), ulertu behar baitute “EHUk baliabide asko dituela, baina askotan oharkabean pasatzen direla eta haiek aukera asko dituztela euren esku modu askotakoak, interesatzen zaizkien gauzak egiteko eta lortzeko” (EE3). Eta, bigarrena, unibertsitatean eta unibertsitatearekiko zer erantzukizun eta betebeharrak dituzten ezagutzea eta haiek gauzatzea, izan ere “parte hartzeak erantzukizuna dakar, eta ardura

[...] Faltza zaigu kultura instituzional handia (...) eta hor lan asko dago egiteko: prestakuntza, tailerrak, ikastaroak, erantzukizuna lantzeko, gure instituzioa ezagutzeko” (EO6). Azken batean, “lan pedagogikoa” (EO4) egin behar da, parte hartzearen garrantzia eta inplikazioak transmititzeko eta irakasteko. Ez jakitea nola parte hartu, prestakuntzarik ez izatea, ezta ezagutza nahikorik ere. Ildo horretan, testigantzetako batek honako hau nabarmentzen du: “Partaidetza hizketarako gai bat da, baina pertsona guztiek ez dituzte ulertzen partaidetzaren atzean dauden gako inplizituak, hau da, hitz egin hitz egiten da, baina ez dakigu partaidetza nola, zergatik eta zertarako” (C13).

Hala ere, ahots guztiak ez datoz bat ideia horiekin. Badira ahots kritikoak gaininformazioa aipatzen dutenak, baita ekiteko garaian ikasleak paralizatu egiten dituen “dena egin da jasotzeko” premiaz hitz egiten duten ahotsak ere” (GD2). Parte hartu duen ikasle batek argi uzten du: “Ekimenean batean izena emateak nagitasuna ematen dit GRAlean izen ematea 4 urratseko prozesua denean” (C14).

Hala ere, argi dago prestakuntza funtsezkoa dela. Hurrengo testigantzak erakusten du jardueretarako hurbiltzetan ahalbidetu behar diela ikasleei segurtasun eta handiagoarekin eta ezagutza gehiagorekin gerturatzea jarduera eta programetara: “Prestakuntzarik eza, nire kasuan, arazoa zen. Antolatzen zuten hackathon-a egin nahi izan genuen lehen aldiaren ezer egiten jakingo ez genuela uste genuen, eta ez zen horrela izan; ikasle askok uste dugu ez dakigula, inoiz ez dugulako probatzen. Askok hobea litzateke unibertsitatearen kasuan daturen bat jartzea: X arlori buruzko gutxieneko ezagutzak edo bat ere ez, jarduera egiten den bitartean nahikoa ... emango baita...” (C15).

Lan ildo nagusiak:

- Ikasleentzako prestakuntza, Ikasle Kontseilutik harago, zeinak ildo horretako prestakuntza jasotzen baitu (lehenengo mailetako irakasgaien edo ongietorri planen esparruan).
- Ongietorri planak (ikastegiko koordinatzaileak).

05.3.5

Informazio falta eta komunikazio kanalen eraginkortasun txikia

Bosgarrenik, eta I. Partaidetza Planean ohartarazi bezala, informazio falta da ikasleen partaidetza mugatzen duen beste faktoreetako bat. Informazio falta hori, ordea, ez da ulertu behar informazio eskas gisa eta/edo informaziorik eza gisa, aldiz, bi aldagairekin lotutako dago: alde batetik gaininformazioa eta, bestetik, egungo komunikazio kanalen eraginkortasunik eza; hau da, "baliabide eta informazio ugari dago, baina ez dago eskuragarri" (3. HE). Ikasle batek galdetegian adierazi duen bezala, arazorik handiena da "informazioa ez iristea, unibertsitateak oso interesgarriak izan daitezkeen jarduerak eskaintzen baititu, baina ez du jarduera horien behar adinako zabalkunde egiten eta ikasleek beren kabuz topatu behar dituzte" (C15).

Kontuan izan behar dugu, partaideetako batek zioen bezala, UPV/EHU "mastodonte" (EO3) bat dela, eta koordinazio mekanismo ugari behar dituela, mekanismo konplexuak gainera, eguneroko informazio bolumen handi hori nahiko modu eraginkorrean transmititzeko. Ildo horretan, IKTen arloko gerenteordetzak komunikazio eta informazio kanalak hobetzen jarraitzeko egiten duen lana aitortu behar da. Dena dela, oraindik ere beharrezkotzat jotzen da webguneak espazio bat izatea ikasleei eskaintzen zaizkien jarduera eta ekimen guztiak biltzeko, izan ere, webgunea, gaur egun, gehiago da biltegi bat webgune bat baino (EO2; EO3; ES2; ES1); izan ere, "hain da handia... ez bakarrik erakundekoa, fakultatekoa ere, non beraiek ere galtzen dira web orrialdearen baitan" (EO4). Beste testigantza batek dioenez, "jarduerak bilatu egin behar dira, eta, hala ere, informazioa ez da inoiz argia" (C16).

Hala ere, elkarrizketatutako pertsonen argi utzi dute informazioa komunikatzeko modurik eraginkorrenari buruz zalantzak dituztela, hain zuzen ere gaininformazio arazo batengatik: "Askotan hain handia da eurei heltzen zaien informazio zaparrada... gehiegizkoa da informazioa" (EO4). Beste ikasle baten iritzia ildo beretik doa: "Gaininformazioa arazo bat da. Postontzi elektronikoa guri zuzenduta ez dauden jardueri buruzko abisuz beteta daukagu (biologoei, matematikariei, geologoei eta abarri zuzenduriko jarduerak, nahiz eta gure karrera beste bat izan). Ikastegiak zer karrera egiten ari garen baldin badaki, zergatik ez du karreraren arabera iragazkirik aplikatzen gauza horietarako?" (C17).

Horretaz aparte, irakasleen inplikazioak informazioa transmititzeko garaian duen garrantzia ere identifikatu da. Izan ere, askotan, ikasleengandik hurbilen dauden figurek ikasgelan bertan erakusten duten interesak haien partaidetza mugatu edo sustatu dezake. Horrela, "irakasleek ez badute interesik edo ikasleei gaizki komunikatzen badiete, oso zaila da horrelako gauzak ondo egin ahal izatea, mezu elektronikoa bat bidaltzeak ez baitu funtzionatzen, ez du inoiz funtzionatu (...), baina irakasle batek ikasgelan hamaika modutara motiba ditzake, zer interesgarria den esanez, joateko

gonbidapena eginez" (EO1). Ikasleen testigantzek ideia hori azpimarratzen dute: "Arazo nagusia informazio falta da, postontzi elektronikoa mezuz betetzen digute, eta azkenean ez dituzu irakurtzen eta ez duzu interesatzen zaizkizun gauzen berri izaten. Zure karrerako irakasleek eta/edo koordinatzaileek ere ez dizute informaziorik ematen gure ezagutzak areagotu ditzaketen edo karrerarekin lotuta dauden jardueri buruz" (C20).

Elementu hori funtsezkoa da, testigantzek segurtasun falta handia erakusten baitute, eta, ondorioz, ateak ixten dizkiote parte hartzeko tresna eta aukera askori: "Interes faltari gehitu behar zaio ikasleok informazio gutxi dugula jarduera jakin batzuetara iristeko moduari buruz. Segurtasun falta eta mendekotasun sentimendu bat dago ikasleen artean, eta hala, ez dira gai ekitaldi jakin batzuetara beren kabuz joateko, pasibotasuna edo beldur soziala dela eta" (C21).

Lan ildo nagusiak:

- Espazio bat webgunean jarduera guztien berri emateko.
- Gradu, maila eta fakultateko koordinatzaileak, informazioa ikasleentzabaltzeko arduradun gisa: ikasgelan, ordezkarien bidez, irakasleen bidez.
- Bakoitzak bere borondatez, interesaren edo fakultatearen arabera, izena eman dezakeen gaien arabera zabalkunde zerrendak.

05.3.6

Aintzatespen mekanismorik ez izatea (kredituak alde batera utzita)

Egindako elkarrizketetan gauza bat argi geratu bada "parte hartzeagatik saririk ez badago" ez dagoela ekimenik da (ES1). Aurreko baieztapenari, honako hau gehitzen zaio: "Oro har, gutxi parte hartzen dute irakasgaia gainditzeko ebaluagarriak edo puntuagarriak ez diren ekimenetan" (CP3). Ikuspegi instrumental hori motibazio eta interes falta eta eskolen ordutegiak lanarekin eta partaidetzako orduekin bateragarri egiteko zailtasuna eragiten duen beste ideia batekin gurutzatzen da. Horrela, partaidetzatik zuzeneko onura bat lortzen ez bada, ez da posible zat jotzen unibertsitatean partaidetzako dinamika sustatzea. Galdetegian parte hartu duen pertsonetako batek argi azaldu du: "Zerbait irabaztea da mugiarazten gaituena. Era horretako jarduera guztiak modu independentean egin daitezke, eta egiten baditugu, zerbait lortzen dugulako da. Bestela, azterketen, lanen, laneko bizitzaren eta abarren artean, ez du merezi denbora eskaintzea onurarik ekarriko ez digun zerbaiti" (C23).

2012. urtean, garrantzi berezia eman zitzaion aukera askeko edo aukerako kredituak aitortzeari, eginiko kultur, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak jarduerak aintzatesteko bide nagusi gisa; izan ere, I. Partaidetzak Planak jasotzen zuen bezala, *krediturik ematen ez duena, ez da existitzen*.

Gaur egun, UPV/EHUK gehienez sei kreditu aitortzen ditu horrelako jarduerak egiteagatik; kopuru hori graduoko irakasgai baten baliokidea da. Ikasleen arloko Errektoreordetzaren arabera, ordezkariak lanetan edo prestakuntza osagarriko lanetan aktiboak diren pertsonak nahiko azkar lortzen dituzte, eta azkenean aitortu gabe geratzen diren kreditu soberakin handia duten ikasleak daude. Egoera horren aurrean, kreditu kopurua handitzeko aukera azter liteke, UPV/EHUko ikasleek egiten duten lana aitortzeko. Izan ere, irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate irakaskuntzen antolamendua eta horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, jarduera horietan parte hartzeagatik aitortu daitezkeen aukerako kredituen kopurua handitzeko aukera ematen du. Bide hori arautuko balitz ikasleei eginiko aintzatespena zabalduko luke. Galdetegiko lekukotzetako batek laburbiltzen du nola lotzen den gai hori beste batzuekin: "Nire ustez, errekonozimendu mekanismorik ez egotea da aldagairik garrantzitsuenak. Horri betebeharrak akademikoak batzen badizkiogu, ikasle askok sentitzen dute ez duela merezi jardueretan parte hartzea, denbora tarte bat atera behar baita eta askotan zail egiten baita ikasketekin eta beste aisia jarduerak batzuekin edo lanarekin bateratzea". (C24).

Hala ere, kreditu bidezko aintzatespenak homogeneizatu egiten ditu ikasleak, eta alde batera uzten ditu graduondoko ikasleen behar eta eskaera zehatzak. Doktoregoko ikasle batek ohartarazten duenez, aintzatespena ikasle bakoitzaren premia

eta interesetara egokitu beharko litzateke, eta, horregatik, azpimarratzen du beharrezkoa dela "unibertsitate aintzatespenen aniztasuna sustatzea" (kreditu bidezkoak, curriculumekoak, lanekoak).

Ildo horretan, partaidetzari eta horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen eginkizunari buruzko begirada aldatu da, eta horrexegatik behar da kredituetatik haratago doan aintzatespen mota bat. Horren harira, eta partaidetza "herritarrek prestatzeko tresna" gisa ulertuta, non garrantzitsuenak ez den emaitza, baizik eta "konpromisoak, ikaskuntzak, prozesuak... denbora bat eskaini diozu horri, diru bat kudeatu duzu eta abar. Prestakuntza zibikoaren ikaskuntza eredu bat da". Adituek diote ikaskuntza curriculumaren beraren zati gisa ere aitortu behar dela, positiboa eta lan etorkizunerako baliagarria (EE1). Galdetegian parte hartu duten pertsonetako batek gai horretan sakondu du: "Unibertsitateko jardueretan parte hartzeko motibazioa zuen ikasle gisa, parte hartzeagatik aintzatespenak gogoaz dezentente kendu zidan. Aparteko kredituez gain (azken ikasturtean zaudenean baino ez dituzu erabiliko, betiere muga batera iritsi bazara eta eremu jakin batekoak badira), ez da ondo azaltzen diplomaren eta ziurtagiriaren gaia, eta azken finean, horiek dira praktikan edo CVan balio handiena dutenak. Nire buruari galdetzen diot zergatik ezin diren ziurtagiri eta diplomak automatizatu ikasturtea amaitu ondoren... zergatik izan behar duen alderdi batek eskatuta eta ez automatikoki". (C13). Partaidetzaren eta lan proiektioaren arteko lotura hori ere aipatu dute beste testigantza batzuetan. Adibidez, arauen zurruntasunaren ondorioz, "ez dago lan arloan parte hartzeko aukerarik, ezta espaziorik ere unibertsitatearekin kontraturik ez dugunontzat" adierazi dute (C26).

Lan ildo nagusiak:

- Mikro egiaztagiri moduan aitortzea.
- Tituluaren gehigarriak (curriculum soziala, partaidetzako curriculumak).
- Partaidetzako pasaportea, UPV/EHUko titulu, aintzatespen eta diploma guztiak gordetzeko partaidetzako zorroa.
- Aipamenak espediente akademikoan.
- Partaidetza curriculumean sartzea (ikaskuntza-zerbitzua, herritarren zientzia eta abar).

05.3.7 Ekimenen izaera pasiboa/aktiboa

Ikasleen partaidetza mugatzen duten faktoreen diagnostikoa egiterakoan gehien errepikatu den faktoreetako bat ekimenen izaera izan da; faktore hori, ordea, kontrako bi norabidetan aipatu da. Pertsona gehienentzat, arazoa ekimenen izaera pasiboan datza, pasiboa eta are "bezero" kutsukoa, baina batzuek diote: "agian horrela eman behar zaie [eginda], igual pentsatu behar dira halako proiektu berriak muntatuta ematea" (EO6).

Oro har, eta desfekzioaren ondorioz, gauzak egiteko eta parte hartzeko gero eta ekimen txikiagoa identifikatzen da, "lehen zeuden inizatibetan ikasleak parte sentitzen ziren eta momentu honetan bezero bezala sentitzen dira, beraiei eskaintzen zaien gauza bat bezalakoa dela" (GD2). Horrela, ustez pertsona gutxi erantzuten diete irakasleen eta erakundearen proposamenei "pentsatzen dutelako dela zerbait guk beraiei ematen dieguna baina ez direla prozesuaren parte". Horren ondorioz, ezin izan dira dinamika jakin batzuk gauzatu: "inor ez zegoen prest lan hori hartzeko" (GD2). Egoera horren aurrean, honako hau azpimarratzen da: "[ikasleak] izan daitezela eragile, hori izan daiteke gakoetariko bat, ardurak haiek har ditzatela zentzu batean", baina gertatzen dena honako hau da: "intentzioa bai, baina ez dago benetan gero ekintzailtzarik" (GD2). "Eskaintza baino gehiago izan beharko litzateke ikasleek beraiek proposatutakoak, zeren eskaintza hain zabala da kanpoan. Hor bultzatu beharko litzatekeela ikasleek beraiek sortutakoak bereziki" (GD2). Galdetegian jasotako testigantza batek ideia hauek azpimarratu ditu: "Nolabait, ikasleek ez dute unibertsitatea eurek manipulatu dezaketen egitura bezala ikusten. Estatikoa den instituzio bat ikusi ohi dute, non jarduerak 'goitik' antolatuta datozen: departamentuek bultzatutako hitzaldiak, EHUk kulturak antolatutako kontzertuak... Bestalde, ikasleen ekimenez sortzen diren jarduera gehienek orientazio politiko konkretu bat dute. Hala, ez dago ia ikasle elkarerik jarduera kulturalak antolatzen dituenik: antzerkia, hitzaldiak, abesbatza, zineforuma... Ziurrenik ikasle gehienek ez dute kontzientziarik aukera hori dutenik ere" (C25). Beste parte hartzaile batek ere ikuspegi kritiko hori erakutsi du eta esan du: "ekimenak pasiboak dira, eta gainera ez dute jarraitutasunik, gutxi dira eta izaera erabat oportunistak dute" (C27).

Paradoxikoki, beste batzuek diote gaur egun benetan funtzionatzen duten jarduerak ikasleak eragile pasibo direnak direla. Galdutako aukerez eta pertsonen ilusioarekin eta inplikazioarekin hasi ziren, baina azkenean, ikasleen ekimen eta inplikazio faltagatik bertan behera geratu ziren proiektuez hitz egin da (GD2).

05.3.8 Campusen egiturak eta kokapena: espazioaren arazoa

Aurreko arazoarekin oso lotuta, elkarriketatuek espazioaren gaia aipatu dute, bi zentzutan. Alde batetik, UPV/EHUren espazio antolaketa zehatza aipatzen dute. Unibertsitatea hiru campusetan banatuta dago, eta campus bakoitzak, aldi berean, eskolak eta fakultateak ditu probintzia bakoitzeko hainbat tokitan. Izan ere, "zein espazio daukazun, zein inguru daukazun, oso garrantzitsua da parte hartzea sustatzeko eta hau ez da erakargarria. Hona jendea dator eta joaten da berehala, bere sareak eta bere gauzak beste leku batzuetan dituelako. Gauzak euren herrietan edo hirian egiten dituztelako" (EO6). Bestetik, erreferentzia egiten diote unibertsitatearen barruko espazioen egituraketa, antolaketa eta kudeaketari: "Zein leku uzten diegu parte hartzeko, ezta? Zeren ez badiegu lekurik uzten... Hori ere iruditzen zait gakoetako bat: nola egituratzen dugun espazioa. Eta espazioak eman behar dira eta horiek zaindu behar dituzte ere [...] Eta ez bakarrik lekuak baino horiek gestionatzeko aukera, zeren bestela hor dator klientelismoa eta hor mugatu egiten da parte hartzeko nahia, hor estutu egiten da" (GD2).

Horrela, lehenik eta behin, campusak kokatuta dauden lekuak eta hain sakabanatuta egoteak ez luke partaidetza sustatzen lagunduko. Hiriguneetatik urrun dagoen campus batek, ikasleentzako espazio propiorik ez duenak ezta egoitzarik ere, partaidetza zailtzen du: "Gure ikasle asko eta asko egunero joan eta etortzen dira campusera beren etxeetatik, ez dira hemen bizi. Eta horrek ekartzen du ba klaseak eta praktikak bukatzen dituztenean, etxera bueltatzen direla eta ez dutela hemen geratzeko denborarik, gogorik edo ohiturarik" (EO2). Horri gehitu behar zaio campusen eta ikastegiaren arteko jarduera eskaintza desorekatua eta bereziki txikia campus nagusietatik urrun daudenetan, hala nola Bilboko eta Eibarko ingeniarietza eskoletan, Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Gasteizko Erizaintza Eskolan edo Portugaleteko Eskola Nautikoan, zeinak Leioa, Gasteiz eta Donostiako campus zentralak baino eskaintza txikiagoa baitute (ES2; EO8).

Ildo horretan, esan bezala, ikasleek ez dute biltzeko espazio propiorik, eta, bereziki, sareak eta komunitatea eraikitzeko espazio propiorik. Horrekin lotuta, Leioako campusean dagoen Ikasleen etxearen esperientzia zabaldu liteke eta atzerriko unibertsitateetako Student Trustee deituriko estiloan sakondu (izan ere, ikasle batzuek fagozitu eta mugatu egiten dute eskuragarri dauden espazioen erabilera). Bi kasuetan azpimarratzen da UPV/EHUko espazioen gaia eta honako hau aipatzen da: "ez da bidezkoa, ze espazioak badaude ikasleentzat baina ikasle batzuek baino ez dituzte erabiltzen" (EO6). Horrela, eta espazioengatik eztabaidaren esparruan, gaur egun zenbait fakultatetan enkistatutako gatazkak daude; zehazkiago, espazio publikoen erabilera pribatua eta bizikidetzak arazoak ikasleen eta akademiako gainerako kideen artean.

05.3.9 Partaidetzaren eragin txikia

Baina espazioaren arazoa harago doa graduondoko ikasleentzat, batez ere doktorego tesiak finantzaketarik gabe egiten dituztenentzat. Bizi duten laneko prekarietateari eta prekarietate ekonomikoari beste arazo bat batzen zaie: lan egiteko, materialak gordetzeko eta unibertsitatea berezko langune gisa sentitzeko eta gainerako ikertzaileekin sareak sortzeko berezko espazioen gabezia (EO11).

Lan ildo nagusiak:

- Ikasleak dauden espazioei heltzea eta espazio horiek erabiltzea jarduerak egiteko eta proposatzeko.
- Partaidetza ikasgelara eramatea ikasleen bizitzarako gune gisa.
- Campus batetik besterako garraioa erraztea, fakultate batetik besterakoa, egiten diren jardueretara joan ahal izateko.
- Partaidetza indartzea erdigunean ez dauden fakultate eta ikastegietan (adib.: Sarriko eta Ingeniaritza Eskola; Eibar; Gasteizko Erizaintza Eskola eta abar).

Bederatzigarrenik, eta aipatutako gainerako faktoreekin bat etorriz, aldagai mugatzaile gisa partaidetzaren eragin txikia agertzen da. Ideia hori oso lotuta dago honakoarekin: "zertarako betetzen ditugu gauza hauek gero ez badu ezertarako balio" (GD1), eta estuki lotuta dago ikaslearen partaidetzari aitortzen zaion legitimitatearekin. Parte hartzeak ezertarako balio ez duela jotzen da, izan ere, "unibertsitatearen aldetik ez dela neurririk hartzen [...] eta ikasle asko desenkantatu edo frustratu egiten dira, eta ikasleak frustratzen direnean hori ez da ona" (GD1). Horrekin lotuta, argi eta garbi azpimarratzen da erakundeak bere lana beste eragile batzuekin partekatzea erabakitzen duenean biek onartu behar dutela partekatze horrek berekin dakarrena: "Protagonismoa ematen baldin bazaio gizarteari, ematen zaio horrek daukan ondorio guztiekin, eta normalki gauzak ez dira aterako guk nahi dugun moduan (...) ezin da galdetu zerbait eta gero ezer ez egitea edo ez erantzun, kontsekuenteak izan behar gara" (GD2).

Galdetegian parte hartu duen pertsona batek honako sentipen hau laburbildu du: Eragin txikia partaidetzan: "Zertarako parte hartu jarduera batean interesgarria ez den gai bat jorratzeaz gain, ez badu unibertsitateko dinamika inola aldatuko" (C30). Beste testigantza batek agerian uzten du eragin falta horrek sortzen duen frustrazioa, eta horri batzen zaizkiola, gainera, aparatu instituzionaletik eta burokratikutik eratorritako erresistentziak eta zailtasunak: "Nik UPV/EHUK antolatutako hainbat jardueratan parte hartu dut, baita ikasle elkarte batean ere, eta uste dut garrantzitsuena partaidetzaren eragin txikia dela. Askotan gauzak antolatzen dira, eta unibertsitatearen burokraziak eta denborek ezinezko egiten dute haiek zabaltzea eta hala, pertsonak ez dute haien berri izaten" (C31).

05.3.10

Ekimenen izaera pasiboa/aktiboa

Azkenik, eta parte hartzaileetako batek gogorarazten zigun bezala, garrantzitsua da kontuan hartzea "partaidetzak ere desadostasunak sortzen" dituela, eta horri heldu behar zaiola (3. EE). UPV/EHUK eta bertako langileek, erakunde gehienekin gertatzen den bezala, era guztietako arazo askori egin behar izaten diete aurre eguneroko lanean, eta eremu akademikoa arautzen duten logikek ere zeharkatu dute. Horrekin lotuta, irakasleetako batzuek eta gainerako langileek gauzak aurrera atera daitezke –baita partaidetzako dinamika ere– egiten duten lan garrantzitsua azpimarratzen da: "Ez da borondate arazo bat, baina borondatearekin bakarrik ez da hau konpontzen" (EE3). Ikasleei dagokienez, paraleloan, distantzia bat ikusten da ekintzak lantzeko moduan, haiek gidatzen dituztenak irakasleak diren edo ikasleak diren kontuan hartuta: "UPV/EHUK garrantzitsuagozat eta zilegiagozat jotzen ditu berak antolatutako ekintzak ikasleek antolatutako ekintzak baino. Eta guk, ikasleok, egindako ekintzei oztopoak jartzen dizkie etengabe".

Aldi berean, pertsona batzuek adierazi dute unibertsitatean "ikasleen partaidetzak traba" egiten duela. Traba egiten digu, adibidez, irakasleetako askori, "ematen du parte hartzea onena dela, positiboena, baina ez, sektore askori partaidetzak traba egiten die" (EE3). Egindako elkarrizketa askotan errepikatzen den eta garrantzia hartzen duen ideia bat da, batzuen ustez irakasleek "saihestu" egiten dutela ikasleek informazioa jasotzea eta parte hartzea beren eskubideak defendatzeko; eta "saileko zuzendarien erresistentziak (...) eta irakasleen lankidetzak falta" (EO1) aipatzen dituzte; beste batzuek hau diote: "Honen inguruko argudio sakonak ematea tokatzen zitzaigun eta nolabait ere defendatzea ikasleen posizioak egoera horietan" (GD1); azken batean, ikaslea eragile gisa legitimatzen ez duen eta haien parte hartzeak duen garrantzia onartzen ez duen unibertsitateko komunitatearen zati batez ari dira: "Sentitzen dute etsaia direla" (GD1). Errealitate horren aurrean, unibertsitateko kideekin pedagogia egitearen garrantzia azpimarratzen da. Ikasleen parte hartzearekin konprometitzearen garrantzia, UPV/EHUn egiteko eta egoteko ereduaren elementu nagusi gisa, espazioak eta harremanak zainduz: "Zein begiradatik hitz egiten diogu ikasleari, zein postutik... Nahi dugu haiek konfiantza izatea gudan, baina guk nola hitz egiten dugu beraiekin, zein gorputz jarrerarekin, nola hurbiltzen gara haiengana" (GD2).

Baina irakasleez gain, ikasleen arteko gatazkek ere eragiten dute partaidetzan. I. Partaidetza Planean esaten zen unibertsitate esparruaren politizazio handia zela ikasleen zati batek ez parte hartzeko arrazoietako bat. Gaur egun, arazoa polarizazio gero eta handiagoa da, politizazioa bera baino, izan ere, polarizazio horren ondorioz hainbat gatazka sortzen ari dira zenbait campus eta fakultatetan. Horrela, eta AZPko langileei eta irakasle-ikertzaileei eginiko galdetegiko erantzunetako batean diotenez, tentsio horrek "urrundu egiten ditu ikasleetako asko erabakiguneetatik eta antolatze bide

nagusietatik", eta egoera horrek okerrera egin du eta "partekatuta behar diren espazioetatik kanpo uzten ditu unibertsitateko kideetako asko" (CP2).

Ildo horretan, gero eta agerikoagoak dira beste ikasle batzuekin garaturiko eta/edo beste ikasle batzuek parte hartzen duten partaidetzako ekimen edo dinamiken "zuzeneko boikot" ekintzak; izan ere, "irakasleek edo zentroak aurkezten dituzten edozein ekintza, arerioaren kontrako jarrera bat bezala hartzen dute eta orduan ez da soilik ez dutela parte hartzen, sarritan boikotatu egiten dute" (GD2). Pertsona batzuentzat, boikot dinamika horiek irakasle batzuen erresistentziak zuzenean lotuta egongo liriteke, "horrek asko higitzen baitu ikasleei buruzko ikuspegi orokorra" (EE2). Bestalde, ikasleen zati batek ezadostasunaren beste aldea utzi du agerian: "Arazoa da zapalkuntza sistemikoa. EHUK ikasleen parte hartzea mugatu nahi du, erakundearekiko kritikoenak izan daitezkeelako. Horren adibide da ikasleak beste modu batzuetara parte hartzen dutenean jasotzen duten errepresioa eta seinalamendua" (C33). Dilema horren erdibidean, lekukotzetako batek ohartarazten du ikasleen partaidetzan eragina duen arazo bat dagoela: distantzia. "Bai ikasle mugimendu eta unibertsitatearen artean dagoen geroz eta handiagoa den arrakala" (C34).

Lan ildo nagusiak:

- Asoziazionismoa sustatzeko lan egitea, unibertsitatearen ehunetik eta unibertsitatearen ehunean oinarritutako partaidetza bat sortuta.

05.3.11

Partaidetza mugatzen dute beste faktore batzuk

Arestian aipatutakoez gain, ikasleei emandako galdetegian planteatu zen ba ote ziren partaidetza zailtzen duten beste faktore batzuk. AZPko langileek eta irakasle-ikertzaileek bigarren galdetegian zeharka erantzun diote galdera horri. Besteak beste, zenbait iritzi nabarmentzen dira, eta, landutako alderdiekin lotura estua izan badezakete ere, unibertsitateko kideek espezifikotzat jotzen dituzte, eta nortasun propioa dutela eta baloratu egin behar direla uste dute:

- Unibertsitatearen eta hirigunearen arteko distantzia handia, campusak sakabanatuta egotea, campus batetik bestera mugitzeko beharra...
- Ikasleak ikastera joaten dira, eta aukerakoa den guztia ez zaie interesatzen (interes falta).
- Motibazio falta, memorizazioan oinarritutako ikaskuntza ereduari lotuta, eta ikuspegi kritikorik ez.
- Ezer lortuko ez duzun okerreko ustea, pentsatuz denari ezetz esango diotela (ez da egia).
- Entzute falta eta distantzia unibertsitatearen eta irakasleen aldetik, ez baitute komunitaterik sortzen, distantzia baino ez.
- Unibertsitatearentzat jarduera horiek ez dira garrantzitsuak eta ez da saiatzen ordutegiak eta azterketak bateragarri egiten.
- Jarduera batzuetan lekurik ez izatea.
- Alderdi sortzaileei eta berritzaileei ikusgarritasun txikia ematen zaie eta ondo legoke ikusgarritasuna ematea elkarrekin ekimen berriak sortzeko (berritu?).
- Karrerekin lotutako erabateko jarduera falta. Jarduera horiek "alferrikakotzat jotzen dira gure lanbiderako".
- Jarduerak borondatezkoak izatea. Ikastaro batzuek, zenbait simulakrok eta abarrek nahitaezkoak izan beharko luketen eta ikasketa planetan egon beharko luketen ustea.
- Kredituak ikasleak berak eskatu behar izatea, automatikoki egin beharko litzateke.
- Irakaskuntza orientaziorik eza.
- Kezka falta.
- Ikasleen etxe baten beharra.
- Material eskasia eta dauden materialen egoera txarra.
- Jardueren aniztasunik eza, jarduera "errepikakorrak".
- Komunikazio ez sortzailea eta gaininformazioa.
- Hizkuntza eta belaunaldi oztopoak, jarduerak euskaraz izatea.
- Prezioa, erakundeekin lankidetzan egindako jarduerak direnean.
- Jarduera oso politizatuak.
- Izena emateko epe laburrak/laburtuak.
- Jarduera batera joateko kiderik ez izatea.
- Erdialdeko campusetatik urrun dauden ikastegietako ikasle batzuen isolamendua.
- Parte hartzeak zertarako balio dizun ez jakitea.
- Ez dago erraztasunik jardueretan desgaitasunen bat duten pertsonentzat: ikusmen txikia, entzumena eta abar.



06. PROPOSAMENAK

PROPOSAMENAK. UPV/EHUN IKASLEEN PARTAIDETZA HOBETZEA

Ikasleen II. Partaidetza Plan honen bidez, aurrera egin nahi da lankidetzan oinarritutako partaidetza logiketan, ikasleen agentzia indartzeko. Hala bada, I. Plana hedatzeko estrategia aurreratuetan sakondu nahi da; estrategia horiek espazio instituzionaletan parte hartzeko formuletatik haratago doaz, eta ikasleen arteko lankidetzeta eta ikasleen eta komunitateko gainerako kideen artekoa lortzeko logikak planteatzen dituzte. Hortaz, egindako diagnostikoaren ildotik, Plan hau ikasleen partaidetza hobetu eta sustatzeko ekintza sorta batean zehazten da.

Planak **sei lerro estrategiko** proposatzen ditu ekintza horiek sailkatzeko. Lerro gidaritzat hartzen dira, eta hautemandako hutsune eta zailtasunetan dute jatorria, eta, bereziki, unibertsitateko kideek egindako proposamenetan, izan llei, TEKAZELei eta ikasleei egindako galdetegi bidez bildutakoetan edo ikasleekin egindako tailer eta proposamen dinamiketan bildutakoetan.

Sei lerro estrategiko hauek identifikatu dira:

- Ikasleak etengabe eta eraginkortasunez **informatzea**.
- Ikasleak erakundearen parte hartzerari **gonbidatzea**.
- Ikasleak **aktibatzea**.
- Ikasleak partaidetzari lotutako gaitasun eta tekniketarako **trebatzea**.
- **Elkarrekin erabakitze**ko edo/eta **lankidetzarako** espazioak ezartzeko urratsak egitea, ikasleek erakundearekin batera parte har dezaten.
- Ikasleen partaidetza curriculumean eta curriculumetik kanpo **aitortzea**.

Lerro estrategikoak **lau helburu orokorren** bidez zehazten dira. Helburuok zuzentzen dituzte esku-hartze eremu bakoitzean sailkatutako ekintzak. Hauek dira helburu orokorrak:

01. Ikasleen artean partaidetzarekin lotutako informazioa transmititu, hedatu eta **komunikatzeko bideak hobetu eta berritzea**.
02. Partaidetza eskaintza indartu, egokitu eta **deszentralizatzea** ampusen, ikastegiaren eta ikasleen errealitateak, espazioak eta beharrak kontuan hartuta.
03. Unibertsitatean **partaidetzaren kultura sustatzea**, eta ikasleen kontsultarako, deliberaziorako eta partaidetzarako espazioak hobetu eta eraikitzea, unibertsitateko gainerako kideekin batera aritu daitezen.
04. Kredituetatik haratago **aitortza bideak aztertzea**, partaidetzak izaera formatzailea duela aitortu eta graduondoko ikasleen beharrei erantzuneko dieten bideak.

06. Proposamenak. UPV/EHU ikasleen partaidetza hobetzea

Identifikatutako lerro estrategikoetan oinarrituta eta zehaztutako helburuak betetzeko proposamenak egituratu nahian, jarraian zenbait ekintza zerrendatuko dira. Batzuk I. Partaidetza Planean aurreikusitako jarraipena dira, eta beste batzuk, berriz, dokumentu hau prestatzeko prozesuaren ondorio gisa azaleratu dira.

- Ekintzetako batzuk I. Planean identifikatutako jarraipena dira.
- Beste batzuek berriro heltzen diete I. Planeko zenbait ideari, baina birformulatu egiten dituzte, egindako diagnostikoa kontuan hartuta edo 12 urteotan izan duten hedapenean oinarrituta.
- Azkenik, beste ekintza batzuk berriak dira, eta ahalegina eta denbora beharko dira horiek ezartzeko.
 - Zenbait ekintza egokitzapen teknologikoak dira.
 - Beste batzuek erakunde barruko komunikazio bideak indartzea eskatzen dute.
 - Beste batzuek, irakasleen konpromiso aktiboa behar dute.
 - Azkenik, zenbait ekintza esploraziorako ekintza pilotuak dira, eta malgutasuna beharko dute, ikasleak protagonista izango diren lankidetzaren mekanismoak aztertu nahi baitituzte.

Ilido horretan, Plan honen logika trantsizio logika da, eta helburua zera da, erakundearen **pare hartzea** (egitura instituzionaletan) bultzatzen duen ereduak alde batera utzi, eta **erakundearekin batera parte hartzeko** moduetan aurrera egingo duen beste eredu bat ezartzea (lankidetzaren estrategien bidez; azken hamarkadan jada ezartzen hasi dira horrelakoak, eta II. Planean horietan sakontzen da).

Ekintzak dokumentuan definitutako **sei esku-hartze arlotan** esplizitatzen dira, I. Planaren egitura orokorrari jarraituz. Hala ere, bi aldaketa proposatzen dira.

- Alde batetik, zeharkako ekintzen arlo bat definitzen da, unibertsitateko bizitza osoa zeharkatzen duen partaidetza bermatzeko, beste arloetako ezeinetara mugatu gabe. Zeharkako ekintza horietako batzuk zehatzago azaltzen dira beste arloetan.
- Beste alde batetik, I. Planean identifikatutako ebaluazio arloa zabaldu egiten da, ebaluazioak zeharkakoa eta ebolutiboa izan behar duela iritzita. Hori dela eta, ebaluazioaren, jasangarritasunaren eta zeharkakotasunaren arloak hitz egiten da.

Hala bada, arlo hauen barruan planteatzen dira ehundik gora ekintza:

1. Zeharkako arloa
2. Irakaskuntza eta ikerkuntza arloa
3. Kudeaketa eta ordezkartza arloa
4. Arlo soziokulturala
5. Arlo komunitarioa
6. Ebaluazioaren, jasangarritasunaren eta zeharkakotasunaren arloa


Amaitzeko, aipatzekoa da Plan osoa eta haren ekintzak Euskal Herriko Unibertsitateak bere ikasleei eta gizarte osoari begira hartuak dituen konpromisoek arautzen dituztela. Hauexek dira: kalitatezko prestakuntza integrala, gizarteratzea eta laneratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako partaidetza arduratsu eta aktiboaren sustapena, aniztasunaren onspena eta irisgarritasuna, eta, hortaz, **unibertsitatean indarkeriarik gabeko bizimodua eta partaidetza garatzeko konpromisoa**.



06.1 Partaidetza Planaren lerro estrategikoak

Plan honen arabera, partaidetza demokrazia indartu eta herritarren eraikuntza bideratzen duen aukera bat da, eta, horrenbestez, prestakuntza zibikoko elementu bat. Hala bada, Planaren lerro estrategikoek lotura zuzena dute komunitatea egituratzearekin eta partaidetza eta haren edukia sustatzearekin, eta helburutzat dituzte honako hauek: zenbait bira eginez partaidetzaren helmena areagotuko duen logikan aurrera egitea; objektu logikatik subjektu logikara igarotzea; partaidetza unetik partaidetza prozesura igarotzea; alderdi sinbolikotik alderdi praktikora igarotzea, eta, azkenik, erakundeak gonbidatuta parte hartzeko logika zabaltzea, erakundearekin lankidetzan parte hartzeko logika ezartzeko. Horrenbestez, II. Partaidetza Planean sei lerro estrategiko lantzen dira, irekiera eta itxiera logika irudikatzen duen diagrama honetan ageri denez.

Irudia 2: Ikasleen II. Partaidetza Planaren lerro estrategikoak



Iturria: geuk egina

Partaidetzaren abiapuntua informazioaren transmisioa da. Informazioa behar bezala jasoz gero bakarrik parte har daiteke espazio egituratu eta arautuetan, non erakundeak ateak irekitzen dituen eta ikasleak gonbidatzen dituen, ikasleen ekimena sustatuz, ikaskuntza prozesua, gobernantza edo bizitza komunitarioa hobetzen parte hartzera. Edukiari begirako irekiera prozesu hori aktibazio estrategien bidez iristen da gorenera. Informazioa a prioriko baldintza bat bada eta gonbidapen bidez espazio instituzionaletan parte hartzeak erakundearen irekidura irudikatzen badu, partaidetza errotu eta hedatzeko beharrezkoa da aktibatzea, motibatzea eta bidea erraztea. Baina ez da nahikoa parte hartu ahal eta nahi izatea; parte hartzen jakitea ere garrantzitsua da. Hori dela eta, trebakuntzarekin hasten da ixten eredu estrategikoa. Trebakuntza hori goi mailako hezkuntzaren espiritu hezitzailearekin lotzen da, eta, gainera, ateak irekitzen dizkio komunitaterako eta herritartasunerako trebakuntzari. Horregatik, continuum horren helmugan partaidetzaren eskemaren itxiera puntu bat dago, eta horrek oinarritzat dituen mekanismoetan ikasleen agentzia handiagoa da; izan ere, mekanismo horiek ikasleen autonomia eta agentzia aktibatzen dituzten lankidetzak dituzte oinarri (ikasleen arteko lankidetzak; unibertsitateko beste espazio batzuekiko lankidetzak). Amaitzeko, eskema estrategikoa honetan, zeinak ez duen asmoz lerro bati besteei baino balio handiagoa ematea, haien arteko harreman dialektikoa nabarmentzea baizik, feedbacka aitortzan oinarritzen da. Aitortzakez duhur biltzeta instrumental hutsetara mugatu behar, eta aurrerapausoak egin behar ditu, ikasleak hartzaile gisa aitortzetik prestakuntza eta ekintzaren eragile eta subjektu gisa aitortzera igarotzeko.

06. Proposamenak. UPV/EHU ikasleen partaidetza hobetzea

- 01.** Hasteko, **ikasleei informazioa transmititzea** daukagu, partaidetzaren abiapuntua informazioa eta gardentasuna baitira. Hori dela eta, garrantzitsua da jardueren informazioa eta hedapena hobetzen jarraitzea, betiere irisgarritasun irizpideak errespetatuz, ikasle guztiek eskuratu ahal izan dezaten informazioa.
- 02.** Hortik abiatuta, eta kontuan harturik partaidetza ekintza eta mekanismo partizipatiboetan zehazten dela, erakundeak partaidetza espazioak ireki eta sortu, eta ikasleak horietan parte hartzera gonbidatzen dituenean, garrantzitsua da parte hartzeko eskaintza lantzen jarraitzea; eskaintza hori erakundetik jaioko da, **berdintasunean parte hartzera gonbidatuko ditu ikasleak, aintzat hartuko ditu haien askotariko errealitateak** eta diskriminazioari eta inklusio zailtasunei aurre egingo die.
- 03.** Hirugarrenik, partaidetzaren garrantziaren gaineko kontzientziazioan aurrera egitea helburu, funtsezkoa da unibertsitateko kideen artean **ikasleak aktibatzea**, partaidetza logika horietan aurrera egiteko. Eta baita partaidetzaren logika puntualetik prozesu dinamikara igarotzeko ere.
- 04.** Aurrerapausoak emateko, garrantzitsua da parte hartzeko gaitasun, teknika eta tresnen trebakuntza eta prestakuntza indartzea, unibertsitatea espazio hezigarria delako ez ezik, baita partaidetza herritarrak prestatzeko mekanismo bat delako ere, aurretik esan bezala.
- 05.** Horrekin batera, **lankidetza** logiketarantz jo behar dugu, **eta elkarrekin erabakitzeo espazioak sortu** behar ditugu, ikasleak unibertsitateko eragile gisa ahaldundu ahal izateko eta haien agentzia handitzeko. Ekintzen diseinuan eta garapenean haien partaidetza aktiboa bermatzeko lan egitea lagungarria izan daiteke unibertsitateko komunitate kide guztien arteko loturak eta harremanak sendotzeko.
- 06.** Azkenik, unibertsitatearen berezko berezitasuna tarteko, **partaidetza aitortzea** funtsezkoa da komunitate parte hartzaile sendo eta arduratsua eraikitzeko. Aitortza horrek ikasle guztien behar zehatzei erantzun behar die, hau da, graduoko, graduondoko, master eta doktoregoko ikasleen beharrei.

06.2 Partaidetza Planaren helburu orokorrak

Aipatutako norabide estrategikoan lan egiteko aukera ematen duten ekintzak bildu ahal izateko, hainbat **helburu orokor** hartu behar dira kontuan, eta horiei esker sailkatu ahal izango dira ikasleen Unibertsitateko partaidetzaren arlo bakoitzean beharrezkoak diren ekintzak. Hortaz, unibertsitateko kideekin batera egindako diagnostikoan identifikatu diren hutsune eta mugei erantzun nahi diete helburu orokorrek, baina, era berean, UPV/EHU Ikasleen I. Partaidetza Planak irekitako aukerak indartzea ere badute xedetzat.

01

Diagnostikoaren zatian partaidetza mugatzen duten faktoreak azaldu dira, eta horien artean dago komunikazio bideen eraginkortasun txikia; izan ere, unibertsitatearen eskaintza zabala eta interesgarria izan arren, badirudi ez dela ikasleengana iristen.

Egoera hori izanik, eta ikasleak **informatu, gonbidatu, aktibatu eta trebatzeko** asmoz, II. Partaidetza Planaren lehenengo helburua partaidetzari buruzko **informazioaren transmisioa eta hedapena hobetzea** izango litzateke, eta horretarako komunikazio bideak berraztertu, indartu eta berritzea, eta ikasleen eta unibertsitate osoaren testuinguru eta behar berrietara egokitutako hobekuntzak proposatzea.

Ikasleen artean partaidetzari buruzko informazioa komunikatu, transmititu eta hedatzeko bideak hobetu eta berritzea.

02

Bigarrenik, diagnostikoak agerian uzten zuen ikasleen gero eta prekarizazio handiagoak, betebeharrak akademikoek eta profil aldaketak, nolabaiteko distantziari eta hezkuntza espazioaren ikuspegi instrumentalari lotuta, ondorioztat dakartela gero eta motibazio txikiagoa eta gero eta kideetza sentimendu txikiagoa, eta horrek ikasleen partaidetza blokeatu eta mugatzen du. Nolanahi ere, I. Partaidetza Planak zenbait aukera ireki zituen ikasleen artean harrera ona duten ekintza eta dinamikekin, nahiz eta diseinatzen duenaren eta parte hartzen duenaren arteko arrakala aintzat hartu beharreko faktore mugatzaile bat izan.

Hala bada, ikasleak erabaki organoetan egoteko eta horiekin lankidetzan aritzeko modu malgu eta berritzaileetan aurrera egiteaz gain, **parte hartzeko eskaintza indartu eta hobetu egin**

behar da, ikasleen egoera aldakorrera egokitu. Hortaz, II. Partaidetza Planaren bigarren helburu nagusia hau da izango litzateke: garaietara eta ikasleen beharretara egokitutako eskaintza diseinatzea (eta, ahal dela, kodiseinatzea), eta apustua egitea balorazio ona duten ekintzak eta dinamika mantentzeko, baina baita ikasleen eskaerei erantzungo dieten bide eta proposamen berriak aztertzeko ere. Horrek aukera emango luke erakundearen gonbidapen bidezko partaidetzaren eskaintza sustatzeko, eta, ondorioz, ikasleak aktibatu eta trebatzeko.

Egungo partaidetza eskaintza indartu, egokitu eta deszentralizatzea, eta campus, ikastegi eta fakultateetako errealitateak, espazioak eta beharrak errespetatzea, baita ikasleen ere.

03

Nolanahi ere, parte hartzeko eskaintza beste eredu baterantz bideratu behar da; alegia, ikasleek partaidetza dinamiken edo gainerako kideekin batera lankidetzan aritzeko dinamiken diseinuan, garapenean eta ezarpenean parte hartzea ahalbidetuko duen eredu baterantz. Horrek berekin dakar **trebakuntza zibikoko** prozesu bat, eta gainera beharrezkoa da, sakonago aztertzeko nola, zergatik eta zertarako parte hartu unibertsitatean, eta partaidetza prozesuen inpaktua hobetzeko.

Hortaz, garrantzitsua da unibertsitateko kide guztien artean **partaidetzaren kultura sustatzea**, eta horretarako kontsultarako, deliberaziorako eta parte hartzeko espazio gehiago eta hobeak sortzea, **lankidetzan eta elkarrekin erabakitze**ko prozeduretan

oinarritutako bide berriak diseinatzeke erakundearekiko partaidetzarako. Gaur egun badira parte hartzeko metodologiak eta tresnak, hala nola deliberazio foroak eta aurrekontu partizipatiboak, eta horrelakoek elkarrekin ekoitzi eta erabakitzekeko prozeduretan esperimendatzeko bideak defini ditzakete. Bide horretatik aurrera egiteak, esperimendazioko lehen urratsak eginez bada ere, ikasleak **aktibatzen** lagunduko luke, modu aktiboagoan parte hartuko bailukete Unibertsitateko dinamiketan.

Unibertsitatean partaidetzaren kultura sustatzea, hobekuntzak eta berrikuntzak eginez, eta kontsultarako, eztabaidarako eta parte hartzeko espazio gehiago eraikiz, ikasleak unibertsitateko gainerako kideekin batera aritu daitezten.

04

Amaitzeko, aldatu egin denez partaidetzari eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen funtzioari begirako ikuspegia, partaidetza ikasleak **aktibatu** eta **trebatzeko** aukera gisa **aitortu** behar da.

Ilido horretan, diagnostikoak argi uzten du **kredituetatik haratagoko aitortza bideak aztertu** behar direla, graduako eta graduondoko ikasleen beharrak kontuan hartuko dituzten bideak. Bide horiek unibertsitateko bizitzan konpromiso aktiboa izateak ikasleei maila pertsonalean, eta maila profesionalean ematen dizkien bizi gaitasunak, gaitasun zibikoak eta konpetentziak azpimarratu beharko dituzte, bereziki.

Kredituetatik haratagoko aitortza bideak arakatu behar dira, partaidetzaren izaera hezigarria onartu eta graduondoko ikasleen beharrei ere erantzungo dieten bideak.

06.3

Esku hartzeko ekintzen proposamena

UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Planaren lerro estrategikoak eta helburu orokorrak aurkeztu ondoren, atal honetan esku hartzeko ekintzei buruz hitz egingo dugu. Horiek abian jarrita, ikasleen partaidetza hobetu eta zabaldu nahi da, UPV/EHUko prestakuntzaren kalitatea eta unibertsitateko kideen arteko kohesioa indartzeko.

Ekintzak dokumentuan zehar aipatu diren bost esku-hartze arloetan sailkatuta daude, eta horiei ekintza orokor edo zeharkako batzuk biltzen dituen beste arlo bat gehitu zaie.

Zehaztutako arloetako zeharkako ekintzak

Ikasleen partaidetza bideratuta dagoen unibertsitateko bizitzako alderdi zehatzekin hasi aurretik, Planak aipatutako arloak gainditu eta zeharkatzen dituzten ekintza transbertsal batzuk biltzen ditu. Ekintzetako batzuek zerikusia dute UPV/EHUko komunikazio tresnetan egin beharreko aldaketa teknikoekin; beste batzuek partaidetza mekanismoak hedatu eta argitzeko materialen lanketan sakontzeko beharra aipatzen dute; beste zenbaitek partaidetzan inklusibitatea eta berdintasuna bermatuko dituzten estrategiekin jarraitzeko beharrari egiten diote erreferentzia, eta beste batzuk ikastegi batzuetako berezko espezifikotasunekin lotuta daude. Garrantzitsua da elkarri entzuteko eta lankidetzan aritzeko metodologia eta espazioen berrikuntzaren eta esperimenezkoaren aldeko apustua, eta horri lotuta ekintza zehatzagoak aipatzen dira gainerako arloetan. Amaitzeko, apustu garrantzitsua egiten da partaidetzaren aitortza zabaltzeko eta ildo horretan berrikuntza eta esperimenezkoa sustatzeko, ez dadin mugatu kredituak baliozkotzera.

01. HELBURUA

Informazio bideak hobetu eta berritzea

Ekintzak

01. UPV/EHUko aplikazio mugikor bat sortzeko aukera aztertzea, eta bertan biltzea Unibertsitatean parte hartzeko eskaintza.
02. UPV/EHUko partaidetza mekanismo eta espazioei buruzko liburuxka didaktiko eta erakargarri bat sortzea.
03. Ikasle sartu berriei UPV/EHUn parte hartzeko urteko aukeren berri ematea.
04. Ikasleekin partaidetza prozesuak ezartzeko modu berriak aztertzea, informazio eta komunikazio bideen irisgarritasuna berraztertu eta bermatzeko.

02. HELBURUA

Gaur egungo partaidetza eskaintza indartu, hobetu eta egokitzea

Ekintzak

01. Unibertsitateko dinamiketan ikasle ohien presentzia indartzea, eta horretarako EHUalumni plataforma sustatzea.
02. UPV/EHUko partaidetza eskaintza osoaren irisgarritasuna hobetzeko aukerak aztertzea, eta eskaintza handitzeko eta online partaidetza ezartzeko aukera aztertzea.
03. Jarduerak gauzatzeko denbora tarte zehatz bat (ordutegia, asteazken kulturalak, etab.) ezartzeko aukera aztertzea, ikasleen kontziliazioa hobetzeko asmoz.
04. Iradokizunak eta kexak jakinarazteko postontzia erabilera bultzatzea, ikasleek erakundeari idazteko eta beren eskaerak eta iritziak partekatzeko aukera izan dezaten.

03. HELBURUA

Unibertsitatean partaidetzaren kultura sustatzea

Ekintzak

01. Unibertsitateko partaidetza eskaintza instituzionala prestatzean ikasleen iritziak, proposamenak, interesak eta beharrak entzun eta kontrastatzeko espazioak sortu eta sustatzea.
02. Ikasleen kudeaketa espazio autonomoak sortzea (Ikasle Etxea), erakundearen ordutegia, egutegia eta arauak errespetatuz.
03. Genero ikuspegia eta ikuspegi interseksionala duten ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboak egiten jarraitzea eta sustatzea, ikasleek ikaskuntzan, ikerketan, kudeaketan eta mugimendu asoziatibo eta kulturalen parte hartzearekin lotutako arazoak hautemateko.

04. HELBURUA

Kredituetatik haratagoko aitortza bideak aztertzea

Ekintzak

01. *Partaidetzako zorro digitala* sortzea, bertan jasotzeko ikasle bakoitzak gauzatutako jardueri lotutako ziurtagiriak eta diplomak.
02. *Mikrokredentzialen eredu propioa* garatzea, ikaskuntza forma guztiak aitortzen laguntzeko.
03. UPV/EHUren *Zeharkako Gaitasunen Katalogoaren* erabilera bultzatzea, curriculumetik kanpoko jardueretan parte hartuz eskuratzen direnak egiaztatzeko eta ziurtatzeko.

Irakaskuntza eta ikerketa arloa



Jada esan dugunez, eta nazioarteko organismoek eta egungo arauk aipatzen dutenez, ikaskuntzaren eta ikerketaren arloko partaidetza erabiltzen diren metodologiaren arabera da, neurri handi batean. UPV/EHUko unibertsitate esparruan, **i3 eredu pedagogiko propioak** partaidetza modu exigenteagoak behar dituzten eta dakartzaten metodologia aktiboak ezartzen ditu. Hala bada, metodologia tradizionaletan ikasleen partaidetza galdetu eta erantzutera mugatzen bazen ere, ikaskuntza kooperatiboak, ikerketa-ekintzak edo proiektuetan oinarritutako ikaskuntzak aukera zabalak eskaintzen dituzte ikasleek presentzia eta partaidetza aktiboa izan ditzaten, eta horrek zuzenean lotzen du **ikerketaren eta ekintzaitzaren arloarekin**. Izan ere, I. Partaidetza Planak azpimarratzen duen moduan, garrantzitsua da ikasleei ikasitakoa ulertzen, praktikan jartzen eta egoera berrietara egokitzen lagunduko dieten gaitasunen garapenean oinarritutako prestakuntzarekin jarraitzea (I. Plana, 2012).

Aldi berean, eta kontuan hartuta prestakuntzak ez duela zertan ikasgelara mugatu, ikasleek **prestakuntza osagarriari** begira izan behar duten partaidetza ere jorratzen du arlo honek; prestakuntza horren barruan daude **mugikortasun programak, ekintzaitza programak edo unibertsitate hedapeneko ikastaroak**, besteak beste.

Lerro estrategikoei eta lau helburu orokorrei jarraituz, arlo honetan proposatutako ekintzek xedetzat dute **ikastorduen eta partaidetzarako orduen arteko kontziliazioa hobetzea, ikasleentzat interesgarria den prestakuntza eskaintza sustatzea, komunikazio bideak hobetzeko lan egitea eta, azkenik, ikasleen partaidetza aktiboa sustatzea** haien prestakuntza prozesuarekin eta lan etorkizunarekin zerikusia duten jardueretan. Partaidetzaren aitortza babestu eta indartzeko, horrelako jardueretan parte hartzeak ikasleei ematen dizkien zeharkako gaitasunak eta gaitasun profesionalak aitortzearen aldeko apustua egiten da.

01. HELBURUA

Ekintzak

INFORMAZIOA KOMUNIKATU ETA TRANSMITITZEKO BIDEAK HOBETU ETA BERRITZEA

Ikastegi eta sailetako irakats eskaintzari eta eskaintza osagarriari buruzko informazioa hedatzeko bideak hobetu eta berritzea

01. Ikastegi eta sailek antolatutako jardueren berri ematea oholetan, webgunean eta posta elektronikoz bidez, irisgarritasun eta inklusio irizpideak kontuan hartuta.
02. Ikastegi eta sailek antolatutako jardueren berri ematea oholetan, webgunean eta posta elektronikoz bidez, irisgarritasun eta inklusio irizpideak kontuan hartuta.

Unibertsitateko orientazioari buruzko informazioa komunikatu eta transmititzeko bideak hobetzea, ikasleen partaidetza sustatzeko

01. Entzute eta Erantzute Sarea sustatu eta indartzea, ikasleek, Ilek eta TEKAZELek osatutako sare informal gisa.
02. Diziplina bakoitzeko lan esparruko etorkizunari eta orientazioari buruzko informazioa hedatzea Enplegu Guneen eta Orientazio Profesionalerako Jardunaldien bidez, berdintasun eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta.
03. UPV/EHUko graduondoko ikasketei buruzko informazioa antolatu eta hedatzea, eta horretarako Master Eguna antolatzea, irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta.
04. Mugikortasun programei buruzko informazioaren transmisioa hobetzea, Erasmus Student Network gisako elkarteak eta EHUalumni sarea inplikatu.

i3 eredu pedagogiko propioari buruzko informazioa komunikatu eta transmititzeko bideak hobetzea

01. i3 eredu pedagogikoari buruzko informazioa zabaltzea irakasle arduradunen eta ikasleen artean.
02. i3 eredu pedagogikoa ezartzeko tresnen gaineko prestakuntza sustatzea irakasleentzat, irisgarritasun eta inklusibitate irizpideak kontuan hartuta.

02. HELBURUA

GAUR EGUNGO PARTAIDETZA ESKAINTZA INDARTU, HOBETU ETA EGOKITZEA

Prestakuntza akademikoarekin eta ikerketarekin lotutako eskaintza indartu, hobetu eta egokitzea, inklusibitate eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta.

Unibertsitateko orientazioko programak indartu, hobetu eta egokitzea, inklusibitate eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta.

Ekintzailetzarekin eta lan arloko etorkizunarekin lotutako eskaintza indartu, hobetu eta egokitzea, inklusibitate eta irisgarritasun irizpideak kontuan hartuta.

Ekintzak

01. Ikasleen lankidetzaren barne hartuko duten prestakuntza espazioen diseinua bultzatzea. Lankidetzaren hori hitzaldi, tailer, jardunaldi edo ikastaro osagarrien bidez gauzatu ahal izango da.
 02. Diziplinaz kanpoko prestakuntza ikastaroen eskaintza handitzea: lehen laguntza, oratoria, lan elkarrizketak, CVa, zeharkako gaitasunak.
 03. Urtero antolatzea *Ikerketa Jardunaldiak*, ikertzaile bokazioak sustatzeko eta ikerketa ikasleengana hurbiltzeko (ikerketa taldeen aurkezpena, ikasleek egindako proiektuen erakusketa, bekei buruzko informazioa, etab.).
 04. Ikasleei dagokien diziplinako biltzarretan parte hartzeko trebakuntza espezializatua ematea, ikerketarako lehen sarbidea bermatzeko.
01. Ikasleek *Berdinen Arteko Tutoretza (BAT) programan* parte har dezaten sustatzea, eta arreta berezia eskaintzea tutoreen jarraitutasunari, eta haien presentzia bermatzea ikastegi guztietan, baita txikienetan ere.
 02. Mentoretza programa berriak garatu eta ezartzea (generoan, ekintzailetzan, ikerketan, kirolean), ikasleen partaidetza sustatzeko.
 03. Tutoretza eta mentoretza programetan parte hartzen duten ikasle tutoreetara egokitu eta bideratzea berdintasun eta irisgarritasun arloko prestakuntza.
01. Ekintzailetzaren kultura eta enpresa sarearen ezagutza sustatzea, eta horretarako enpresa/erakundeak eta espazio enplegatzailerak posibleak ezagutzeko bisitak antolatzea ikastorduetan.
 02. Ikasleen enplegarritasuna sustatzea, eta enpresa, erakunde eta elkarteekiko harremana erraztea, *Enplegu foroak, eta bestelako ekitaldiak eginez ikastegi txikienetan ere.*
 03. Ezagutza-arlo guztietako ikasleek Campusetako ekintzailetza-programetan parte har dezaten sustatzea.
 04. Ikasleek kanpoko erakundeetan praktikak egin ditzaten sustatzea.
 05. Lan orientazioko hitzaldi, tailer eta jardunaldiak sustatzea, Unibertsitateko prestakuntza amaitutakoan ikasleei lan munduan sartzen laguntzeko.

03. HELBURUA

Ekintzak

UNIBERTSITATEAN PARTAIDETZAREN KULTURA SUSTATZEA

Ikasleek beren prestakuntza akademikoan aktiboki parte har dezaten sustatzea

01. *Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak, Ikasiher* beka eta *Campus Bizia Lab* jasagarritasun proiektuak ezagutzera ematea ikasleei, eta horrelakoetan presentzia eta partaidetza handiagoa izan dezaten bultzatzea, inklusibitate irizpideak kontuan hartuta.
02. Mintegiak, workshopak eta prestakuntza jardunaldiak antolatzea, eta graduondoko ikasleak eramatea hizlari gisa.
03. *Ikasleen diziplinarteko mintegia* sortzeko aukera aztertzea, ikasleek antolatua eta partaidetza librekoa, ikasleek izena eman dezaten eta hitzaldi eta mintegi txikiak eskain ditzaten.

Ikasleek enplegarritasunari, ekintzailetzari eta lan etorkizunari lotutako jardueretan aktiboki parte har dezaten sustatzea

01. Ikasleek i3 GAZtE *programan* eta Gazte Ekintzailetza beka programan parte har dezaten sustatzea.
02. Ikasleei babesa, aholkua eta laguntza ematea, beren prestakuntza prozesuaren barruan UPV/EHUri zerbitzuak eskaintzeko aukera emango dioten *Junior Enpresak* sor ditzaten.

Ikasleek ikerketarekin lotutako jardueretan aktiboki parte har dezaten sustatzea

01. Ikerketari lotutako ikasleen talde eta elkarte zientifikoek sorrera sustatzea.

04. HELBURUA

KREDITUETATIK HARATAGOKO AITORTZA BIDEAK AZTERTZEA

Curriculumaz kanpoko jardueretan parte hartzeagatiko aitortza

Ekintzak

01. Irakaskuntzarekin eta ikerketarekin lotutako curriculumaz kanpoko jardueretako partaidetza aitortzeko bide berriak aztertzea.
02. Mikrokredentzialen sistema bat ezartzeko aukera aztertzea, curriculumaz kanpoko prestakuntza osagarriko, ikerketako eta ekintzailetzako ekimenetan izandako partaidetza aitortu ahal izateko.
03. UPV/EHUren *Zeharkako Gaitasunen Katalogoa* erabiltzea, prestakuntzarekin, irakaskuntzarekin eta ikerketarekin lotutako jardueretan parte hartuz eskuratutako gaitasunak aitortzeko eta identifikatzeko.

Aitortza publikoa

01. Ikasleen lan eta proiektuak aitortzea eta jendarean ezagutzera ematea (argitalpenak, panelak, posterrak, webgunea, etab.).
02. *Campus*a aldizkarian ikasleei buruzko berri gehiago jasotzea eta haien lana aitortzea.
03. *Ikertzaille gazteak* sariak sortzea, UPV/EHUko ikasleek garatutako ikerketa lanen kalitatea aitortzeko.
04. *Ekintzaile gazteak* sariak sortzea, kontzeptu horrekin lotuta dauden UPV/EHUko gradu amaierako eta master amaierako proiektuak aitortzeko.
05. Defendatutako tesiak ezagutzera emateko eta UPV/EHUko doktoreak aitortzeko ekitaldiak sortzea diziplina bakoitzean.

Kudeaketa eta ordezkaritza arloa



Unibertsitateko partaidetzaren bigarren arlo handia erakundearen gobernuari eta unibertsitateko politikari dagokio (Trilla-Bernet et al. 2011: 97). Hala bada, izan unibertsitateko politikari lotutako gai nagusiei begira edo fakultate eta sailtako kudeaketa zehatzeko prozesuei begira, ikasleek ere presentzia izan eta parte hartu behar dute. Horretarako, **ikasle kontseiluak** dira ikasleen ordezkaritza organo gorenak, baina badira beste figura batzuk ere, hala nola ordezkariena; horiek dira ikasleengandik hurbilen daudenak. Baina **ordezkaritza** hori bermatzeaz gain, garrantzitsua da lanean jarraitzea **ikasleen eskubide eta betebeharrak hobeto ezagut daitezen, eta modu eraginkorrean defendatu eta errespetatu** daitezen; horretarako, unibertsitateko kide guztien arteko harremanak indartu behar dira, eta Unibertsitate Publikoa demokratizatu behar da.

Diagnostikoak erakutsi duenez, kudeaketari eta ordezkartzari lotutako hutsune nagusien atzean zera dago, ikasleek ez dituztela ezagutzen erakundearen egitura bera eta funtzionamendua, ezta ikasle kontseiluen zereginak, eraketa eta funtzioak ere. Era berean, UPV/EHUko ikasleek eta horien ordezkariak komunikatzeko eta kontuan emateko erabiltzen dituzten bideak hobetzeko beharra ere azpimarratu da. Hutsune horiek kontuan hartuta, proposatutako ekintzek helburu nagusizat dituzte honako hauek: **ikasleek hobeto ezagutzea Unibertsitateko egitura, funtzionamendua eta aukerak; ikasleen eta haien ordezkarien** (ordezkariak eta ikasle kontseiluetako kideak) **arteko loturak hobetu eta indartzea, eta ikasleek erabakiguneetan parte har dezaten sustatzea, entzute eta eztabaida espazio paraleloak sortuz.**

01. HELBURUA

INFORMAZIOA KOMUNIKATU ETA TRANSMITITZEKO BIDEAK HOBETU ETA BERRITZEA

Unibertsitate erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko informazioaren ezagutza eta transmisioa hobetzea: ordezkariak organoak, ikasleen presentzia, eskubideak eta betebeharrak.

Ikasleen ordezkariak eta ikasleak elkarren artean komunikatzeko eta elkarri kontuak emateko bideak sustatzea

02. HELBURUA

GAUR EGUNGO PARTAIDETZA ESKAINTZA INDARTU, HOBETU ETA EGOKITZEA

Ikasleen ordezkarien zereginak indartu, hobetu eta egokitzea

Ekintzak

01. Unibertsitatearen egitura, funtzionamendua eta antolakuntza orokorra azaltzeko diptiko edo triptiko berri bat diseinatzea eta ikasleen artean zabaltzea, eta dokumentu horretan bereziki azpimarratzea ikasleen partaidetza.
 02. Unibertsitatearen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko prestakuntza dinamikak egitea, erakundeak parte hartzeko eskaintzen dituen aukerengaineko kontzientziasortzeko; dinamika horiek graduondoko ikasleak ere hartuko dituzte kontuan.
 03. UPV/EHUn egitura, funtzionamendua eta antolamendua eta partaidetza mekanismoak ezagutzeko interesa piztuko duten formula berritzaileak aztertzea (online ihes gelen estiloan).
 04. Ikasleen ordezkariak unibertsitatean dituzten presentzia eta zereginak azaltzeko ikasleen ordezkariaren gidaliburua diseinatu eta zabaltzea, ikasleen partaidetza sustatzeko asmoz.
 05. Ikasleek unibertsitatean dituzten eskubide eta betebeharrak buruzko dekalogoak diseinatu eta zabaltzea.
 06. Ikasleen ordezkarietako prestakuntza eta lan jardunaldiak antolatzea (ikasle kontseiluak).
01. Ordezkarien Newslettera prestatzea, ikasle kontseiluek egindako lanaren berri eman diezaieten ikasleei.
 02. Ikasle kontseiluek babestutako deliberaziorako ekimen pilotuak sustatzea, proposamenak jasotzeko ikasleentzat interesgarriak diren arlo jakin batzuetan.

Ekintzak

01. Irakasleak ikasleen ordezkarien garrantziaz sensibilizatu eta kontzientziazatzea, eta haien funtzio, betebeharrak eta eskubideen berri ematea.

Unibertsitateko organoetan ikasleen ordezkariak hautatzeko prozesuak indartu eta hobetzea

02. Ikastegi eta sailetan ikasleen ordezkariak gidatutako elkarrizketa eta lankidetzak espazio eta sareak sortzea, bertan biltzeko ikasleen ordezkari eta ordezkariordeak (mailakoak, graduakoak, ikastegikoak, etab.).
03. Bilerak ikasleen ikastorduek errespetatzen dituzten ordu tartetan egiteko bideragarritasuna aztertzea, kontziliazioa errazteko eta aukera desparekotasuna murrizteko.
04. Ikasleen ordezkarien bilera eta lan espazioak zaindu eta sustatzea.

01. Ikasleen hauteskunde kanpainak eta prozesuak egin eta garatzeko espazioa eta presentzia handitzea.
02. Ikasle ordezkariak hautatzeko prozesuen gardentasuna indartzea, hauteskunderen emaitzak hedatuz eta argitaratuz.
03. Talde/gela bakoitzean ordezkariak eta ordezkariordeak hauta ditzaten sustatzea, UPV/EHUko Ikasleen Araudian jasota dagoenaren arabera.

03. HELBURUA

UNIBERTSITATEAN PARTAIDETZAREN KULTURA SUSTATZEA

Ikasleen ordezkariak Unibertsitatean parte hartzeko espazioak sustatzea

Ekintzak

01. UPV/EHUko ikasleen ordezkariak estatutu-batzordeetan eta bestelako lan-batzordeetan parte har dezaten bultzatzea

04. HELBURUA

KREDITUETATIK HARATAGOKO AITORTZA BIDEAK AZTERTZEA


Curriculumeko aitortza eta aitortza akademikoa

Aitortza publikoa

Ekintzak

01. Ordezkarien eta ordezkariordeen lana aitortzea.
02. Ikasle kontseiluetako eta kide anitzeko beste edozein organotako ikasle ordezkarien lana aitortzea.
01. Ikasleen ordezkariak egindako lana aitortzeko ekitaldiak antolatzea.
02. Ikasleen ordezkariak ekitaldi instituzionaletara gonbidatzea (graduazioa, ikasturte hasiera, etab.).

Arlo soziokulturala



Dokumentu honetan eta diagnostikoan ikusi dugunez, ordezkaritza eta kudeaketa espazio formalez gain, unibertsitateko bizitzan badaude, halaber, **kulturarekin eta kirolarekin lotutako jarduerak, baliabideak eta zerbitzuak**; horiek ez daude prestakuntza akademikoarekin erlazionatuta, aisialdiko espazioekin baizik, baina espazio horietan ere lotura komunitarioak eraiki eta indartzen dira, **ikasle elkarteak** sortuz edo **ekitaldi instituzionalak** eginez, adibidez.

Ikasleen arabera, eta II eta TEKAZEL askoren arabera, arlo soziokulturala **da partaidetza aktibatze, erakundearekiko kidetza sentimendua eta lotura eraikitze eta motibazioa handitze aukera gehien eskaintzen duenetako bat**. Era berean, espazio interesgarria da jardueren diseinu, antolakuntza eta ezarpenerako lankidetza moduak aztertze, baita ikasleen **agentzia** eta horren bidezko **ikaskuntza** sustatzeko ere. Hortaz, proposatutako jarduerak lerro horiek lantzea dute helburu.

01. HELBURUA

Ekintzak

INFORMAZIOA KOMUNIKATU ETA TRANSMITITZEKO BIDEAK HOBETU ETA BERRITZEA

Ikastegi eta sailetako kultura eta kirol eskaintzari buruzko informazioa zabaltzeko bideak hobetu eta berritzea

01. Gaikako hedapen zerrendak sortzeko aukera aztertu (kirolak, kultura, euskara, etab.), posta elektronikoz, WhatsApp bidez edo Telegram bidez jarduerari buruzko informazioa bidaltzeko.
02. Akademiaz kanpoko jardueren, kulturakoen eta kirolekako eskaintza webgune berean jasotzeko aukera aztertzea.

Asoziazionismoari buruzko informazioa transmititzeko bideak hobetzea

01. Ikasle elkartei buruzko informazio guztia zentralizatzea: izen ematea, araudiak, etab.
02. Ikastegi bakoitzeko elkarte aktiboak eta elkarte berriak sortu eta inskribatzeko prozedurari buruzko informazio-triptiko bat zabaltzea..

02. HELBURUA

Ekintzak

GAUR EGUNGO PARTAIDETZA ESKAINTZA INDARTU, HOBETU ETA EGOKITZEA

Campusetako kultura eta kirol jarduerak indartu, hobetu eta egokitzea, eta arreta berezia eskaintzea ikastegi txikietan horrelakoak antolatzeari.

Unibertsitatearen eta ikasleen arteko lotura indartzen duten jarduera soziokulturalen eskaintza indartu, hobetu eta egokitzea

Euskararen erabileran inplikatzeko eta hura sustatzeko jardueren eskaintza indartu, hobetu eta egokitzea: Unibertsitate euskaldunagoa sortzea.

01. Ikasleen kultura eta kirol interesak ezagutzeko galdetegiak egitea urtero, inklusibitate irizpideak kontuan hartuta.

01. Graduazio ekitaldiak diseinatu, antolatu eta garatzea, eta ikasleek antolakuntzan parte har dezaten sustatzea.

02. *Harrera Eguna* antolatzea hiru campusetan, ikasleen elkarteen, ikasleen kontseiluen eta unibertsitate-zerbitzuen parte-hartze aktiboarekin, ikasle sartu berriei unibertsitatearen partaidetza-jardueren eskaintza ezagutarazteko.

03. *Ikastegiaren Eguna* ospatzeko programa diseinatu, antolatu eta garatzea, eta ikasleek parte har dezaten sustatzea.

04. Ikastegi eta fakultateetako ospakizun eta ekitaldietan UPV/EHUn sortu diren edo/eta bertako kideak dituzten talde artistikoen presentzia sustatzea (musika, antzerkia, dantza).

01. Hizlari euskaldunen eta euskarazko jardueren presentzia bermatzea eta indartzea.

02. Euskarazko jarduerari finantziario erraztasunak eskaintzea.

03. HELBURUA

UNIBERTSITATEAN PARTAIDETZAREN KULTURA SUSTATZEA

Ikasleek jarduera soziokulturalen diseinuan, lanketan eta ezarpenean partaidetza aktiboa izan dezaten sustatzeko lankidetzak espazioak sortzea.

UPV/EHUko elkarten egitura berreraikitzea

Ekintzak

01. Jarduera soziokulturaletarako batzordeak edo espazio partizipatiboak sortzeko aukera aztertzea, urteko jardueren eskaintza prestatzeko inklusibitate irizpideak kontuan hartuta.
02. Unibertsitateko ikasle eta elkarteentzako laguntzen deialdiak egitea, kultura jarduerak proposatu eta prestatzeko dituzaten.
03. Akademiak kanpoko jarduerak (hitzaldi informalak, kontzertu akustikoak, jolasak, etab.) gauzatzeko atsedean eta bilera espazioen erreserba erraztea, baita ikastegi txikietan ere.

01. Kirol eta kultura klubak (eztabaidakoak, irakurketakoak, antzerkikoak, xakekoak, etab.) eta ikasle elkarteak sor daitezela sustatzea.
02. Irakasleek eta fakultateetako ikasle kontseiluek diziplinei lotutako elkarten sorreran duten inplikazioa sustatu.
03. *Elkarten Eguna* antolatzea, UPV/EHUko elkarteak sustatu eta ezagutzera emateko eta elkarte berrien sorrera sustatzeko.

04. HELBURUA

KREDITUETATIK HARATAGOKO AITORTZA BIDEAK AZTERTZEA

Curriculumeko aitortza eta aitortza akademikoa

Aitortza publikoa

Ekintzak

01. Jarduera soziokulturaletako eta akademiak kanpoko jardueretako partaidetza aitortzeko bide ezberdinak aztertzea.
01. UPV/EHUren irudi ona zabaltzen duten ikasleen aitortzen publikorako formulak bultzatzea.
02. Kirol sariak ematea.

Arlo komunitarioa



Arlo komunitarioaren helburu nagusia da Unibertsitatearen eta gainerako egitura sozial eta komunitarioaren arteko lotura bultzatzea gizartean proiektzioa duten jardueren bidez. Hala, aurretik aipatu dugunez, i3 eredu pedagogikoak berak oinarritzat ditu inklusioa, jasangarritasuna eta konpromiso soziala, eta, hortaz, UPV/EHUK jada badauzka Jasangarritasunerako Hezkuntzako zenbait sare, eta erakunde eta GKEekiko elkarlana sustatzen du kooperazioaren, boluntariotzaren eta garapen jasangarriaren esparruan.

Arlo honetako lan lerro nagusia irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar **erakundeekiko lankidetzak** programak indartzea da, eta horretarako **ikaskuntza-zerbitzuan** edo **ikerketak-ekintzan** zentratutako hurbilketak sustatzea, baita **praktikak, GRALa, MALa eta bestelako ikerketa proiektuak erakundeekin lankidetzan egitea** ere. Hortaz, kontuan hartuta arlo komunitarioari begirako eragozpen nagusietako bat ikasleek haren gainean duten ezagutza eskasa dela, garrantzitsua da informazioa hedatzeko bideak hobetzea, boluntariotza eta lankidetzak **jarduerak hobeto ezagut ditzaten.**

01. HELBURUA

INFORMAZIOA KOMUNIKATU ETA TRANSMITITZEKO BIDEAK HOBETU ETA BERRITZEA

Boluntarioria eta kooperazioko jardueri eta erakundeekiko lankidetzaren proiektuei buruzko informazioa eta eskaintza komunikatu eta hedatzeko bideak hobetu eta berritzea.

Ekintzak

01. Webgunean zentralizatzea boluntarioria eta kooperazioko jardueri eta erakundeekiko lankidetzaren proiektuei buruzko informazio guztia, horretarako berriazko espazio bat sortuta.
02. *Ikasle enbaxadoreen* figura sortu eta sustatzea: boluntarioria eta kooperazioko jardueretan parte hartu duten ikasle ohiak izango dira, eta ikasle berriekin partekatuko dute beren esperientzia, hitzaldi, bideo eta abarren bidez.
03. Matrikularen % 0,7ko funts ekarpenaren gainean sentsibilizatzeko kanpaina egitea.
04. Boluntarioria Azoka antolatzea, UPV/EHUren eskaintza komunitarioa ezagutzera emateko, eta ikasle enbaxadoreen, erakundeen, GKEen, irakasleen eta ikasle kontseiluen partaidetza sustatzea.

02. HELBURUA

GAUR EGUNGO PARTAIDETZA ESKAINTZA INDARTU, HOBETU ETA EGOKITZEA

Boluntarioria eta kooperazioko jardueren eta erakundeekiko lankidetzaren proiektuen eskaintza indartu eta egokitzea.

Ekintzak

01. i3 eredu pedagogikoa bultzatzea eta irakaskuntza-zerbitzuan, komunitatean oinarritutako ikaskuntzan edo ikerketa-ekintzan oinarritutako metodologiak garatzea, hurbileko komunitatean zentratuak.
02. Batekin, Bizkaia Gara, Gizalde eta antzeko beste erakunde batzuekiko lankidetzaren programak sustatzea, boluntarioria eta kooperazioko jarduerak hobetu eta egokitzeko.
03. Gaztenpatia, Europako Elkartasun Kidegoa, Auzolandegiak eta Elkartasun Uda programak indartzea.
04. Ikasleen ikuspegia eta presentzia txertatzea EHUguneko jardueretan.
05. Jasangarritasunarekin eta GJHeekin lotutako gaien buruzko poster zientifiko, sozial eta kulturalen lehiaketak egitea, sormena sustatzeko.

03. HELBURUA

UNIBERTSITATEAN PARTAIDETZAREN KULTURA SUSTATZEA

Ikasleek kooperazio eta boluntariotzako jardueretan eta erakundeekiko lankidetzaren proiektuetan aktiboki laguntzeko eta parte hartzeko espazioak sortzea.

Mugikortasun programetako ikasleei laguntzeko jarduerak garatzeko lankidetzaren espazioak sustatzea.

Ekintzak

01. Garapenerako lankidetzarekin (IKASKOOP) lotutako unibertsitate praktikak eta GRALak egin ditzaten sustatzea eta horretarako laguntzak ematea.
02. Ikasleek Unibertsitateko garapen jasangarrirako EHU Agenda 2030 aplikatzeko erronka eta proiektuen diseinuan, antolakuntzan eta garapenean parte har dezaten sustatzea.
03. Ikasleek jasangarritasunari, ingurumenari, garapenerako lankidetzari eta abarri buruzko jardunaldi eta hitzaldien diseinuan, antolakuntzan eta garapenean parte har dezaten sustatzea, laguntza ekonomikoen bidez.

01. *Welcome Desk* zerbitzua ezartzeko aukera aztertzea, ikasleek erakundearekin elkarlanean antolatua eta kudeatua; zerbitzu horrek informazioa eta laguntza eskaini, eta laguntza sare informalak sortuko ditu, mugikortasun programetako ikasleen integrazioa errazteko.

04. HELBURUA

KREDITUETATIK HARATAGOKO AITORTZA BIDEAK AZTERTZEA

Curriculumeko aitortza eta aitortza akademikoa

Aitortza publikoa

Ekintzak

01. Boluntariotza eta kooperazio jardueretan parte hartzeagatik aitortza lortzeko prozesuak erraztea..

01. UPV/EHUren irudi ona zabaltzen duten ikasleen aitortza publikorako formulak bultzatzea.
02. *Gure GRALek mundua aldatzeko balio dute* izeneko biltzarra antolatzea, erakundeekin elkarlanean eta justizia sozialaren, jasangarritasunaren, kooperazioaren eta abarren gainean garatutako GRALak ezagutu eta aintzatesteko.



Ebaluazioaren, jasangarritasunaren eta zeharkakotasunaren arloa



Amaitzeko, bosgarren arloa dugu: ebaluazioa, jasangarritasuna eta zeharkakotasuna. Arlo hau aldatu egin da I. Planeko proposamenarekin alderatuta (ebaluazioaren arloa), eta ikasleen partaidetzan eta, ondorioz, aurreko arloetako ekintza guztietan zeharkakoak diren gaiak eta edukiak biltzen ditu.

Espazio honetan sartzten dira ikasleek **irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioan duten partaidetzarekin** erlazionatuta dauden proposamen guztiak (hezkuntza prozedura den heinean). Hala bada, ebaluazioa aldatu egiten da, eta atzean uzten du pasibotasunean zentratutako eredu bat, non ikasleek sentitzen duten beren iritziek ez dutela erantzunik jasotzen eta ez dutela balio etorkizuna hobetzeko elementu gisa, eta eredu partizipatiboago bat proposatzen da, **gardentasuna** eta **ebaluaziorako deliberazio espazioen** sorrera sustatzen dituen eredu bat.

Hortaz, arlo honetan proposatzen diren ekintzek zerikusia dute **Planaren hedapenarekin, jarraipenarekin, jasangarritasunarekin eta zeharkakotasunarekin**; hau da, ekintza horiek helburutzat dute **II. Plana ezagutzera ematea**, unibertsitateko zenbait kidek lehenengo planari begira duten ezjakintasuna gainditzeko, eta baita etorkizunerako **partaidetza aukerak aztertzen** jarraitzea ere, unibertsitateko kide guztien arteko partaidetzan eta koordinazioan oinarritutako garapena bermatzeko.

01. HELBURUA

INFORMAZIOA KOMUNIKATU ETA TRANSMITITZEKO BIDEAK HOBETU ETA BERRITZEA

Ikasleen II. Partaidetza Planaren komunikazio eta hedapen bideak hobetzea.

Ekintzak

01. Ikasleen II. Partaidetza Plana unibertsitateko kide guztiei publikoki aurkeztea, haren lerro estrategikoak, helburu orokorrak eta ekintzak ezagut ditzaten.
02. Webgune, posta elektronikoko, ohol eta abarren bidez Ikasleen II. Partaidetza Plana zabaltzea.

02. HELBURUA

GAUR EGUNGO PARTAIDETZA ESKAINTZA INDARTU, HOBETU ETA EGOKITZEA

Goi mailako hezkuntza ebaluatzeko prozesuetan parte hartzerako gonbidatzea ikasleak, eta prozesuen gardentasuna hobetzea.

Ekintzak

01. Ikasleek irakasleen irakats lanari buruzko iritzia inkestak egin dezaten sustatu.
02. Parte hartzen duten pertsonen zerbitzuei, programei eta egindako jarduerari buruzko iritzia eta gogobetetze inkestak egin ditzaten sustatu.
03. Ikastegi eta sailek egindako iritzia eta gogobetetze inkestak emaitzak landu, ezagutzera eman eta zabaltzea.

03. HELBURUA

UNIBERTSITATEAN PARTAIDETZAREN KULTURA SUSTATZEA

Etorkizunean parte hartzeko aukerak aztertzea

Ekintzak

01. Ekimen pilotuak sustatzea, ikasleekin batera martxan jartzeko elkarrekin erabakitzeko prozesuetan oinarritutako partaidetza prozesuak, hala nola aurrekontu partizipatiboak aurrekontu partida jakin batzuetan.

06.4 Planaren ebaluazioa eta jarraipena

Arestian adierazi den bezala, UPV/EHUko Ikasleen Partaidetzarako I. Planaren gabeziak bat da, kontrol- eta jarraipen-organo bat eratzea aurreikusten zuen arren, hainbat lantalderen bidez Planaren aplikazioa antolatze eta koordinatzeko erantzukizunarekin, ez duela ebaluazioa egiteko eta ezarpenaren jarraipena egiteko adierazle-multzorik. Eragozpen hori II. Plan honen I. eranskinean partaidetza-eremuen arabera sailkatuta, zeharkako adierazle batzuekin batera, jasota dauden adierazleen definizioaren bitartez konpontzen da.

Horrela, **ebaluazio-adierazle** kuantitatibo batzuk txertatzen dira parte-hartzaileen kopurua garrantzitsua den ekintzetan. Aldi berean, gauzate-adierazle batzuk identifikatzen dira eta adierazle kualitatibo batzuk ere zehazten dira. Hala ere, ebaluazioaren bilakaerari dagokionez, adierazle kualitatibo berriak egitea aurreikusten dugu, ekintzetan proposatzen diren parte hartzeko esplorazio-moduei eta forma berriei lotuta.

Bestalde, plan honetan proposatzen dugu **pilotaje-egitura** bat eratzea, praktikan ekintza horien inplementazioa definitzera bideratua. Egitura hori ikasleen parte-hartzearekin zuzenean lotutako ordezkariak osatuko dute (Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza eta Ikasleen Kontseilua). Planaren talde eragile hori arduratuko da planaren ekintzak zeharkako bihurtzeko estrategiak diseinatzeaz, UPV/EHUko Zuzendaritza Taldeak ezarritako ildo estrategikoen arabera, eta planaren urteko ebaluazioaz, ekintzen inplementazioaz eta unibertsitate-komunitate osoari kontuak emateaz ere arduratuko da, urteko jarraipen-txostenak eginez, ezarritako adierazleen arabera. Era berean, Plan berriko ekintzen jarraipena egiteko adierazle berriak diseinatu ahal izango ditu.

Bestalde, **jarraipen-batzorde** puntualak sortu ahal izango dira, gai zehatzak aztertzeko, Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren

ekimenez. Batzorde horiek irakasle eta ikertzaileen, ikasleen eta TEKAZELen ordezkariak izango dituzte, errektoreordetzeko ordezkariarekin batera, bakoitza bere eskumenen arabera. Batzorde hauen eginkizuna Planean proposatzen diren ekintza pilotuak orientatzea, laguntzea eta, hala badagokio, monitorizatzea izango da. Koordinazio puntualaren logika malgu horren helburua lankidetzaren zeharkakotasuna eta iraunkortasuna bermatzea da.

A close-up photograph of a person's hand reaching for a book on a white library shelf. The hand is positioned on the left side of the frame, with fingers slightly curled. The book being reached for is on the right, with a green spine label. The background is filled with other books on shelves, creating a sense of a well-stocked library. The lighting is soft and natural, highlighting the texture of the hand and the edges of the books.

07. ONDORIOAK

ONDORIOAK

Erakundeek, akademikoek barne, partaidetzaren irakurketa anbiziotsua egin behar dute, eta onartu behar dute partaidetza dinamikek ikasleen agentzia eta ikaskuntza indartzeko, herritartasuna eraikitzeke eta Unibertsitate barruan sare komunitarioak sendotzeko balio behar dutela.

UPV/EHUren Ikasleen I. Partaidetza Planari esker, Unibertsitatean ikasleen presentzia eta partaidetza legitimatzeko lehen urratsa eman zen, eta onartu zen presentzia eta partaidetza horrek intentsitate, inplikazio eta konplexutasun maila desberdinak izan ditzakeela, baina aitortu eta sustatu egin behar dela unibertsitateko bizitzako zenbait arlotan: pedagogikoan, instituzionalean eta ordezkartzakoan, soziokulturalean, komunitarioan eta ebaluazioarenean. Hala bada, Plan hark erakundearekin parte hartzeko mekanismoak zehazten zituen, baina baita lankidetzarako espazioak ere, ikasleek aukera izan zezaten inplikazio eta agentzia maila desberdinekin parte hartzeko.

07. Conclusiones

Sinetsita gaude partaidetzan aurrera egiteko urratsak ematen jarraitu behar dugula eta komunitatea egituratuz eraiki behar dugula. Ideia horretatik abiatuta, II. Planak helburu nagusizat du ikasleen partaidetza aktibo eta arduratsua sustatzen jarraitzea, unibertsitateko kideekin elkarlanean. Horretarako, partaidetza mugatu eta zailtzen duten aldagaiak hartu ditu kontuan, egungo erronkei aurre egingo dioten lerro estrategiko, helburu eta ekintza posibleak identifikatu ahal izateko.

Egindako lanak agerian utzi du ikasleak saiatzen direla unibertsitateko bizitzan parte hartzen eta, gainera, modu oso desberdinetan eta inplikazio maila desberdinekin parte hartzen dutela. Inkestak erakutsi digunez, ikasle askok partaidetzaren ikuspegi komunitarioa dute, eta ikuspegi horren arabera, partaidetza lotuta dago sareak eraikitzearekin, elkarbizitzarekin, lankidetzarekin, ikaskuntzarekin, aldaketarekin eta, zergatik ez, baita gozamenarekin ere.

Horrek ez du esan nahi prozesu erraza denik eta egiturazko baldintzekin lotutako zailtasunik ez dagoenik. Betebehar akademikoek eta lan betebeharrek, motibaziorik ezak, erakundearen eta haren funtzionamenduaren gaineko ezjakintasunak eta, bereziki, sare komunitarioak ahultzen dituen axolagabetasunak atxikimendurik eza eta mesfidantza eragiten dituzte, eta, ondorioz, ikasleek ez dute parte hartzeko gogorik eta ahalmenik.

Egoera horretan, unibertsitateko kide guztiek egin behar dute ahalegina, aktibazioaren eta prestakuntzaren bidez, eta parte hartzeko legitimitatea eta ardura dutela onartuz. Ildo horretan, ikasleek jardueren gaineko informazioa hobeto eta eraginkortasun handiagoz hedatzea proposatzen dute, baita trebakuntza eta prestakuntza indartzea ere; horretarako, irakaskuntzarekin eta laneko etorkizunarekin lotutako jarduez gain, Unibertsitateak nola funtzionatzen duen eta bertan ikasleek zer eginkizun duten ezagutu ahal izateko tresnak behar dituzte. Era berean, beharrezkoa iruditzen zaie aisialdirako, sozializatorako eta sareak eraikitzeko espazioak eta uneak indartzea; izan ere, UPV/EHU ez da erakunde hezigarri huts, eta indartu beharreko eginkizun sozial eta komunitarioa du. Amaitzeko, iradokitzen dute badaudela aukerak lankidetzan oinarritutako partaidetza modu eta espazioak sustatzeko; hala, erabakiguneetan ikasleen ahotsa, iritziak eta eskaerak aintzat hartuko dira, ez entzun bakarrik, eta haien partaidetza aitortuta geratuko da.

UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Planak dokumentuaren lanketan parte hartu duten eragileek proposatutako ekintzak biltzen ditu, eta, horregatik, prozesuan lagundu duten guztien interesa eta laguntza eskertu nahi ditugu. Ekintzetako batzuk abian daude jada, eta beste batzuk datozen urteetan jarriko dira martxan. Eta beste batzuk etorkizunari begira aztertu behar dira, norbanakoaren esparruan hasi eta esparru kolektiboan amaitzen den partaidetzaranzko urratsak egiten jarraitzeko.



08. ERANSKINAK

ERANSKINAK

IKASLEEN II. PARTAIDETZA PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK

UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Plana ekimen aitzindaria izan bazen ere ikasleen parte hartzearen esparruan, planean ez zen agertzen betetze maila ebaluatzeko erabil zitekeen adierazlerik. Esan dezakegu horren ondorioz ez zela egin planaren ebaluazio eta jarraipen sistematikorik plana onartu ondoren. Horregatik, gure ustez, komenigarria izateaz gain, ezinbestekoa da planean adierazle multzo bat sartzea, planaren ezarpen mailaren edo betetze mailaren aldizkako ebaluazioa egiteko aukera emango duena (adibidez, urtero).

Atal honetan adierazleak aurkezten ditugu, ikasleek parte hartzen duten bost arloen arabera sailkatuak. Arestian adierazi bezala, Plana onartu ondoren eratu beharreko talde eragileak (pilotaje-egiturak) adierazle berriak diseinatu ahal izango ditu plan berriko ekintzen jarraipena egiteko.. Hauek dira:

A) IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA

A.1	Hezkuntza berrikuntzako proiektuetan parte hartu duten graduoko ikasleen kopurua
A.2	Hezkuntza berrikuntzako proiektuetan parte hartu duten masterreko ikasleen kopurua
A.3	Hezkuntza berrikuntzako proiektuetan parte hartu duten masterreko ikasleen kopurua
A.4	Enplegurako prestakuntza ikastaroetan eta hizkuntza ikastaroetan parte hartu duten masterreko ikasleen kopurua
A.5	Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu duten graduoko ikasleen kopurua
A.6	Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu duten masterreko ikasleen kopurua
A.7	Kanpoko erakundeetan praktikak egin dituzten graduoko ikasleen kopurua
A.8	Kanpoko erakundeetan praktikak egin dituzten masterreko ikasleen kopurua
A.9	Ekintzailletza programetan parte hartu duten graduoko ikasleen kopurua
A.10	Ekintzailletza programetan parte hartu duten masterreko ikasleen kopurua
A.11	Ikasikerbeken bitartez ikertaldeekin elkarlanean jardun duten ikasleen kopurua
A.12	Gradu eta master amaierako lanei sariak emateko deialdietan parte hartu duten ikasleen kopurua

08. Eranskina

B) KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA

B.1	Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan parte hartu duten ikasleen %
B.2	UPV/EHUko titulazio guztietan aukeratu diren ikasle taldeetako ordezkarien kopurua
B.3	UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko presidente izateko hauteskundeetarako aurkeztu diren hautagaien kopurua
B.4	UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak eta kontseilu horren Batzorde Iraunkorrak egindako bileren kopurua
B.5	UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren eta campusetako ikasleen kontseiluen aurrekontuetako diru partiden gauzatze maila (%)
B.6	Ikasleen ordezkariak UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren zenbat bileretara joan diren (%)
B.7	Ikasleen ordezkariak UPV/EHUko Klaustroaren zenbat bileretara joan diren (%)
B.8	Ikasleen ordezkariak ikastegietako batzarren zenbat bileretara joan diren (%)

C) KOMUNITATEA

C.1	Erregistroan izena emanda duten ikasle elkarteen kopurua
C.2	Gizarte boluntariotzako lanak egin dituzten ikasleen kopurua
C.3	Berdinen arteko tutoretza programetan tutore diren ikasleen kopurua
C.4	UPV/EHU barruko eztabaida txapelketan parte hartu duten ikasleen kopurua
C.5	Euskarazko eztabaida txapelketan parte hartu duten taldeen kopurua
C.6	Elkarteen jardueretarako eta parte hartzeko jardueretarako diru partiden gauzatze maila (%)
C.7	Erregistratutako elkarteren bateko kide diren ikasleen kopurua
C.8	Parte hartzeko jardueren eskaintza ezagutzera emateko egin diren jardunaldien kopurua
C.9	Unibertsitateko bizitzan parte har dezaten ikasleei diru laguntzak emateko deialdien kopurua
C.10	Nazioarteko ikasleei laguntzeko Buddy programan parte hartu duten ikasleen kopurua
C.11	Berdinen arteko tutoretza programan parte hartu duten lehen mailako ikasleen kopurua

D) GIZARTEA ETA KULTURA

D.1	UPV/EHUko kultura zuzendaritzek antolatutako kultur jardueretan parte hartu duten ikasleen kopurua
D.2	UPV/EHUko kirol zerbitzuek antolatu edo sustatutako kirol jarduera unibertsitarioetan parte hartu duten ikasleen kopurua
D.3	Kultur eta kirol jardueretarako diru partiden gauzatze maila (%)

E) EBALUAZIOA

E.1	Ikasleen parte hartzea (%) irakasleen irakaslana ebaluatzeko inkestetan
E.2	Ikasleen ordezkariak ikastegietako kalitate batzordeen zenbat bileretara joan diren (%)

F) ADIERAZLE TRANSBERTSALAK

F.1	Ikasleen parte hartzearekin zerikusia daukaten prestakuntza ekintzen kopurua (Ikasleen Kontseiluaren prestakuntza jardunaldiak, BAT programako prestakuntza, Entzute Sarea edo Eztabaida Txapelketa)
F.2	Ikasleen parte hartzea sustatzeko prestakuntza ekintzetan parte hartu duten ikasleen kopurua
F.3	Parte hartzeko programetan parte hartu duten ikasleen gogobetetze maila (talde eragileak definitu beharrekoak)
F.4	Parte hartzeko programetan parte hartu duten ikasleen gogobetetze maila (talde eragileak definitu beharrekoak)
F.5	Ikasleek imenabultzatzeko aldealdietan ikasleak aurkeztutako proposamenen kopurua (eta onartutako proposamenen kopurua)
F.6	f.5) adierazleko jardueretan parte hartu duten ikasleen kopurua

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

